



MINISTERIO DE DERECHOS SOCIALES Y AGENDA 2030

2030 AGENDA

LOKALIZATZEKO GIDA



ESKERRAK

Gida hau 2030 Agendarako Estatu Idazkaritzak zuzendu duen eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioaren (FEMP) lankidetzan izan duen lan prozesu luze baten emaitza da, baina ezinbestekoak izan dira beren denbora, ezaguera eta esperientzia Gida honen prestaketa prozesuaren zerbitzura jarri dituzten pertsonen ekarpen baliotsuak. Bereziki eskertu nahi dugu honakoen laguntza: Cristina Gómez Estévez (Consell Insular de Menorca), Jesús Santos Gimeno, Santiago Anes Benito eta David Comas Rodríguez (Alcorcóneko Udala), M^a del Mar Vázquez Aquero (Almeriako Udala) eta M^a del Mar Plaza (Almería 2030), Jose Luis Nuin Susin (Alacanteko Diputazioa), Amparo Torres (Albaceteko Diputazioa), Carmen Mallo (Muria de Paredeseko Udala), José Manuel Santos (Jaraicejoko Udala), Ignacio Rodríguez (Matanza de Acentejojoko Udala), Emilia Saiz eta Pablo Fernández (CGLU), Carmen Sánchez (ONU Habitat), Gemma Aguado (ART PNUD), Vanesa Rodríguez (Mundu Itunaren Espainiako Sarea), Ángela de la Cruz Mera (Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa), Anna Ayuso eta Agustí Fernández (CIDOB), Félix Ovejero (CCOO – Futuro en Común).

Egileak

Fernando Varela, Beatriz Álvarez, Javier Cortés - Social Gob SL.

Koordinazioa, lankidetzan eta edizioa

Secretaría de Estado para la Agenda 2030, en colaboración con la Federación Española de Municipios y Provincias.

Diseinua eta maketazioa

Rex Media SL.

2020ko abendua.

Edita

© MINISTERIO DE DERECHOS SOCIALES Y AGENDA 2030
CENTRO DE PUBLICACIONES
PASEO DEL PRADO, 18-20. 28014 Madrid

NIPO en línea: 129-21-035-2

<https://cpage.mpr.gob.es/>



Laguntzaileak:



ÍNDICE

I. ZEIN DA GIDA HONEN HELBURUA?	6
II. 2030 AGENDA: TOKI ERAKUNDEEN GARAPENERAKO AUKEREN AGENDA	8
III. GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK ETA HAUEN LOKALIZAZIOA	10
IV. 2030 AGENDA DEFINITU ETA EZARTZEKO URRATSAK	14
1. fasea: Oinarriak ezartzea	16
1.1. Foku Puntua zehaztea	16
1.2. Ezaguera, interesa eta konpromisoa sortzea	19
2: fasea: Tokiko diagnostikoa	22
2.1. Testuinguruaren analisia	22
2.2. Eragileen mapaketa	24
2.3. Gaitasun tekniko-administratibo eta politikoen analisia	27
2.4. Tokiko politika eta baliabideen azterketa	29
2.5. Etenak/erronkak identifikatzea	32
3: fasea: Lokalizazio planaren definizioa	33
3.1. Diagnostiko txostenaren aurkezpena	33
3.2. GJH eta nazioarteko helmugen lehenespena	35
3.3. Tokiko helmugak eta jarraipen adierazleak zehaztea	37
3.4. Politika osagarrien eta ekintzen definizioa proposatutako tokiko helmugak betetzeko	40
3.5. Zeharkako alderdien txertaketaren berrikusketa	42
3.6. Garapenerako lankidetzeta	44
PARTAIDETZA, KOMUNIKAZIO ETA GAITASUNEN SORRERA PROZESUAK	45
P.1. Elkarrizketa prozesua eta aliantzak	45
P.2. Lokalizazio prozesua azpimarratzeko komunikazio prozesua	50
P.3. Tokiko eragile publiko zein pribatuen gaitasunak sortzeko prozesua	53
GOBERNANTZA ETA BALIABIDEAK MOBILIZATZEKO MEKANISMOAK	55
M.1. Gobernantza mekanismoa	55
M.2. Baliabideak mobilizatzeko mekanismoa	57
M.3. Erosketa publiko jasangarrirako mekanismoa	59
4. fasea: Ezarpena eta jarraipena	61
4.1. Ezarpena	61
4.2. Jarraipena	63
BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA	66
ERREMINTA KUTXA	67

PABLO IGLESIAS TURRIÓN

GOBERNUKO BIGARREN PRESIDENTEORDEA ETA GIZARTE ESKUBIDEEN ETA 2030 AGENDAREN MINISTROA

Denona dena tokian tokitik berreraikitzea

2015. urtean onartu zenetik, 2030 Agenda Estatu osoaren konpromiso bilakatu zen gure herrialdeko pertsonetikiko. Azken bost urteetan zehar, akordio horretara jo dute gure gizarteko sektore guztiek, bereziki sozietate zibileko kolektibo eta elkarteek, hartara eskakizun maila oso altua ezarrita administrazio publikoek egin behar dugun lanari.

Hain zuzen ere, urte hauetan, toki erakundeek ekimen honetan parte hartu dute eta azaldu egin digute, tokiko ekarpenekin, 2030 Agendaren funtsean bertan dagoen errealitate bat: ez dugu aurrera egingo Garapen Jasangarriko Helburuetan herritarren eguneroko bizitza hobetzen ez badugu. Badirudi, zenbaitetan, 2030 Agenda adierazpen eta eszenifikazio handiekin nahasten dela, baina agenda honen edukiak are anbizio handiagoa du: herritarrek merezi duten herrialdea eraikitzea. Helburu horrekin, toki erakundeen eguneroko lana ezinbestekoa izan da eta oraindik ere bada, tokian tokiko eraldaketarekin bakarrik lortuko baitugu erronka hauek gainditzea.

Errealitate hori, gainera, bereziki azaleratu da azken hilabeteetan, COVID-19aren pandemiaren ondorioz. Estatuko Gobernuaren eta erkidegoetako administrazioen ahaleginarekin batera, diputazio, udal, kabilido, consell eta gainerako toki erakunde guztien eginkizuna ezinbestekoa izan da krisi honetan inor atzean gera ez zedin. Erakunde hauen eskumen esparruak eta herritarrekiko hurbiltasunak funtsezko eragile bihurtzen ditu, ez bakarrik krisi honetatik ateratzeko, baizik eta Garapen Jasangarriko Helburuen printzipioetan oinarritutako eredu ekonomiko eta sozial berri bat eraiki eta finkatzeko ere.

Gizarte Eskubide eta 2030 Agendarako Lehendakariordetzak eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak 2030 Agenda lokalizatzeko gida hau aurkezten dugu, 2030 Agenda tokiko esparruan ezarriko duten politika publikoen garapenean laguntzeko, betiere lurralde bakoitzaren ezaugarriak, inguruabarrak eta erronkak kontuan hartuta. Gidak kontuan hartzen ditu lokalizazioaren zailtasunak eta aukerak tokiko errealitateen ikuspegi zabaletik, gure herrialdearen izaerarekin bat etorrira: aberastasuna aniztasunean duen Estatu bat, hiri eta herrietan, udalerrietan, uharteetako eskualdeetan eta landa eremuan.

2030 Agendak epe bat ezartzen du ere, epemuga bat. Hamarkada bat besterik ez dugu Espainia erreferente bihurtzeko Garapen Jasangarriko Helburuen betetzean eta bene-benetan denona den horretan, jasangarritasunean eta justizia sozialean oinarritzen den etorkizuna eraikitzeko. Jarrai dezagun elkarrekin lanean hori errealitate bihurtzeko.

ABEL CABALLERO ÁLVAREZ

FEMP-KO PRESIDENTEA ETA VIGOKO ALKATEA

Tokiko gobernuen laguntza gabe 17 GJHen 169 helmugetako gehienak ezingo dira 2030. urterako lortu

Espainiako Udallerri eta Probintzien Federaziotik 2030 Agendako Garapen Jasangarriko Helburuen tokiko ezarpena bultzatzen ari gara, izan ere, konbentziturik gaude tokiko gobernuen laguntza gabe ezingo direla Nazio Batuek epemuga gisa ezarritako 2030. urterako lortu 17 GJHak osatzen dituzten 169 helmugetako gehienak.

Ekintzarako hamarkada bat gelditzen zaigu gure bizimoduan aldaketak egiten jarraitzeko, gure herri eta hirien garapena sustatuta oreka iraunkorra lortzeko hiru arlo nagusietan: ekonomia, gizartea eta ingurumena.

Jorratzen ari garen aldaketa ezin da banakako edo aldebakarreko moduan egin, eragile eta maila anitzeko ahalegina behar du, non udalek, diputazioek, kabildoek eta uharteko kontseiluek eginkizun garrantzitsua dugun. Asko dago jokoan eta orain, inoiz baino gehiago, erronka hau gizarteko sektore guztiei helarazteko gai izan behar dugu: herritarrak, enpresak eta mundu akademikoa. Gaur egun, 2030 Agendako Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko ekintza egituratzeko foku puntua gara, eta hala jarraitu behar dugu. Ahalegin horretan ezinbestekoa da administrazio guztien arteko erantzukidetasuna mantentzea eta elkarrekin lan egiten jarraitzea baliabideen bidezko banaketarekin, izan ere, toki erakundeetan sarritan gure legezko eskumenetatik kanpo dauden erantzukizunak hartzen ari gara, baina erantzukizun horiek onartzen ditugu alkateok garelako herritarrengandik hurbilen gaudenak eta, gehienetan, berehalako erantzun bat behar delako.

FEMP lankidetzan aritu da Gizarte Eskubide eta 2030 Agenda Ministerioarekin Gida hau garatzeko: 2030 Agendako GJHak lokalizatzen laguntzen duen tresna, egoeraren autodiagnostikoak egiteko, toki mailan GJHen bilakaera neurtzeko adierazleak identifikatzeko eta, azken batean, 2030 Agendaren alde lan egiteko. Laburbilduz, jarduketa hauek abian jarri ditugu uste dugulako guri dagokigula toki erakundeetako erantzule politiko eta teknikariei laguntza ematea, egunero gure udalerrietan aurkitzen ditugun erronkei aurre egiten laguntzen duten tresnei esker.

Ondorioz, Gida honen erabiltzaile guztiei gonbidapena luzatzen diet bertan azal dutakoa praktikara eraman dezaten. Eleonor Rooseveltek esandako moduan: "Etorkizuneko mundua gure esku dago. Bihar orain da", eta toki erakundeek ahal dugun guztia egingo dugu orain hori oraintxe izan dadin, eta bihar hori gaur izan dadin.



¿ZEIN DA GIDA HONEN HELBURUA?

Pertsonak erdigunean jarrita eta inor atzean utzi gabe gure planetan garapen jasangarria eraikitzeke nazioarteko erronka gehienek toki mailako eraldaketa eskatzen dute. Ekonomia berde berri baterako trantsizioa bidezko moduan egiteko, COVID-19aren pandemiaren inpaktuaren ondoren suspertzeke eta gizarte koheSIONATUAGOAK eta ekonomia inklusibo eta jasangarriagoak lortzeko eta landa-hiri harreman berri baten inguruko banaketa demografiko berri bat ezartzeko ezinbestekoa da lurraldeko begiradarekin lan egitea. Lurraldea da gizartearen, ekonomiaren, ingurumenaren eta erakundearen arloak eta herritarrei eragiten dieten horien arteko harremanak barne dituen espazioa.

Espainiako udalerrri eta probintzia askok urteak daramatzate berebiziko garrantzia duen lana egiten, tokian tokitik, eguneroko bizitzako alderdietatik eta herritarrei gehien eragiten dieten arazo nagusiekiko hurbiltasunetik ekarpenak egiten, gure lurraldearen garapen jasangarriagoa eta inklusiboagoa lortzeko.

Tokiko lan hori are garrantzitsuagoa da COVID-19ak eragindako osasun, gizarte eta ekonomia krisi eta krisi ondorengo testuinguru batean, non udalen, diputazioen, kabildoen eta uharteko kontseiluen eginkizuna, berriz ere, herritarren premiazko beharrei erantzutea izan den, arreta berezia jarrita pertsona zaugarrienei, emandako beste zerbitzu askoren artean¹.

2015ean onartu ziren 2030 Agendak eta Garapen Jasangarriko Helburuek (aurrerantzean, GJH) aurrerapenerako esparru bat ezarri dute, uneko ahalegin asko barne hartuta eta, kasuaren arabera,

ahalegin horiek osatuta, nazioarteko adostasuna lortu duten helmuga erkideetarantz aurrera eginez. COVID-19aren ondorengo berreraikitze fasean, ahalegin horien helburu nagusia izango da gizarte bidezkoak eta erresilienteagoak ezartzea, eta lurraldean benetako garapen jasangarri eta inklusibo bultzatzea.

GJHak lokalizatu eta praktikara eramateko oraindik ere gaitzizke dauden erronken arren, erakunde ugari aparteko lana egin dute hainbat gida eta tresna garatuta, gobernuei eta bestelako eragileei laguntza emateko nazioarteko Agenda honetan aurrera egin eta konpromisoa errealitate bihurtzeko, izan ere, gure errealitate hurbil dauden erronkak ere planteatzen dizkigu Agendak. Honela, Gida honek ahalegin horiek in bat egiten du eta haiengandik elikatzen da 2030 Agenda toki esparruan definitzeko eta ezartzeko prozesuan **laguntzeko tresna** gisa.

Gidak lokalizazioak dakartzan erronka eta aukerak aztertzen ditu errealitate lokalen ikuspegi zabaletik, tokiko Espainiaren lurralde aniztasuna kontuan hartuta, hiri handiak ahaztu gabe baina arreta berezia jarrita udalerrri txikietan, uharteetako **udalerrietan eta Espainiako landa eremuetan eta Espainia hustuan**.

Gidaren eta eskaintzen dituen baliabideen helburua da tokiko eragile guztien sentsibilizazioa eta kontzientziazioa laguntzea eta horien GJHen lokalizazio prozesuko **partaidetza aktiboa sustatzea**. Modu horretan, Gida hau **toki erakundeetako ordezkari politiko eta teknikarientzat** baliagarria izango dela espero dugu GJHak lurralde bakoitzean lokalizatu eta ezartzeko bidean.

1. https://issuu.com/femp/docs/carta_local_n_333_marzo_de_2020/1?ff.

¿NOLA ERABILI?

Oso erabilgarria izan dadin eta kudeaketa publikoaren eguneroko lanetarako baliagarria izan dadin, Gida hainbat irakurketa mailatan egituratu da, toki erakunde bakoitzaren behar praktikoei erantzuteko eta erabiltzaile bakoitzaren 2030 Agendaren inplikazioen inguruko ezagueria maila kontuan hartzeko, bakoitzaren ardura politiko edo teknikoaren arabera.

Gidak aukera ematen du prozesu osoaren multzoari ekiteko edo egokiak diren ataletan bakarrik arreta jartzeko, **toki erakundearen lokalizazio prozesuaren puntuaren arabera**.

Erabilera errazte aldera, 2030 Agendak eta GJHeK tokiko gobernuei eskaintzen dizkieten aukerei buruzko sarrera labur baten ondoren, Gidak lokalizazioaren prozesua azaltzen du lau fasetan, horietako bakoitzean eman beharreko urratsak deskribatuta, fitxa moduan. Eskuinaldean ageri diren ikurrek irakurketa errazteko eta erabiltzaile bakoitzak, urrats bakoitzean, informaziorik esanguratsuena identifikatzeko balio dute:



HELBURUA?



GOBERNUTIK EGIN BEHARRENAK?



NON IZAN HONAKOEN KASUAN...?



Udalerri txikiak eta/edo landa izaerakoak



Uharteetako lurraldeak



ZEZAKIN DEZAKEZ BAKOITZAK?



ZEZAKIN KUTXA?



ZEZAKIN BATZUEN ERPERIENTZIA BATZUEN ERABILTZEAK?



ZEZAKIN URRAKSA EMAN AURRE-ERABILTZEAK?

Halaber, hainbat mekanismo eta prozesu integratzen dira, fase bakoitza zeharkako moduan indartzeko eta lokalizazio prozesua bera ikaskuntzarako, gaitasunak sortzeko eta publikoak ez diren tokiko eragileekin (esaterako, sozietate zibila, sektore pribatua eta/edo esparru akademikoa) aliantzak ezartzeko aukera izan dadin.





2030 AGENDA: TOKIKO GOBERNUEN GARAPENERAKO AUKEREN AGENDA

ZER DA 2030 AGENDA?

2030 Agenda **193 herrialderen nazioarteko konpromisoa** da, 2015ean adostu zena gobernu maila desberdinen ahotsak batu zituen **partaidetza prozesu sakon** baten ondoren, besteak beste, munduko udalerririk txikiak, sozietate zibileko elkarteak, sektore pribatua eta akademia.

- Es Gizateriaren proiektu handia da, **eraldaketarako dei** unibertsal eta itxaropentsua.
- **Nazioarteko garapenerako agenda da, baina abiapuntua tokiko errealitatea izanda.**
- **Eguneroko bizitzan** eraiki behar den agenda bat da, **eragile anitzeko planteamendu** batekin, eragile publiko eta pribatu guztien lankidetzeta lortuta, lurraldeko erronka partekatuei aurre egiteko.
- Lurraldeko erronkei aurre egiteko lankidetzeta hori lurraldeari eragiten dioten eskumenak dituzten adminis-

trazio maila guztien artean gertatu behar da ere, hartara **maila anitzen arteko koherentzia lortuta erabakiak hartzeko orduan**: toki mailan, probintzian, eskualdean, erkidegoak eta estatu mailan.

- 2030 Agendak **Giza Eskubideen Adierazpenaren balioak gauzatzen ditu** ekintza eta helburu zehatzagoekin.
- **Elkarrekin lan egiteko lengoia unibertsala eskaintzen du.**
- **Politikak jasangarritasunaren eta integralitatearen inguruan diseinatu eta lerrokatzeko** gure **ibilbide orria** da.
- Lehenetsuna ematen die **berdintasunik ezari, klima aldaketari** eta **pertsonak** subjektuaren eta objektuaren garapeneraren erdigunean jartzeari eraldaketa jasangarria ahalbidetzeko.
- Mundu honetan dugun bizimodua hobetzeko **aldaketa kulturala dakarren agenda da**².
- **Lurralde garapena planteatzen du ekonomia, gizartea eta ingurumena eta horien arteko elkarrekintzak kontuan hartuta.**

FUNTSEZKO PRINTZIPIOAK

Baliabideen zaintza era erabilera efizientea Gizarte inklusiboagoak eta berdintasunik ezaren aurkako borroka Giza Eskubideen errespetua Mugikortasun jasangarria Negozio eta ekoizpen eredu jasangarriak Ekonomia zirkularerako trantsizioa Kontsumo arduratsu eta jasangarria Ekoizpen sistemaren eraldaketa Enplegu egonkor eta kalitatekoa Erakunde sendo, demokratiko, eraginkor eta gardenak Jasangarritasuna eta ekitatea sustatzen duten administrazio publikoak Mota guztietako indarkerien aurkako borroka Herritarren kontzientziazioa Bizimodu jasangarriak Eragileen arteko lankidetzeta

2. 2030 Agendaren alderdi kulturean gehiago sakontzeko, jo hona: http://www.agenda21culture.net/sites/default/files/culturaods_web_es.pdf

ZEIN AUKERA ESKAINTZEN DITU TOKIKO GOBERNUENTZAT?

■ Lurraldean **garapen jasangarriaren plangintza eficienteagoa egiteko esparru homogeneoa** eskaintzen du, gobernu maila guztien arteko sinergiak osatuta, tokiko mailatik nazioarteko mailara eta alderantziz.

■ **Lurralde bakoitzaren agenda suspertzeko eta eguneratzeko aukera** eskaintzen du **garapen jasangarriaren ikuspegitik, planteamendu zabalago eta inklusiboarekin, eta testuinguru bakoitzean dauden erronka nagusiak identifikatuta.**

■ Duen **izaera integratzaileak** toki mailan sustatzen du epe ertain eta luzera garapen jasangarria ahalbidetzen duten tokiko politikak eta planak diziplina anitzeko ikuspegi batetik koordinatu eta integratzeko behar den aldaketa.

■ Lortutako emaitzen plangintza, jarraipen eta neurketak hobea egiteko **ibilbide orria da.**

■ Partaidetza sustatzeari esker, **esparru berriak** eskaintzen ditu eragile publiko-pribatuen arteko **sinergiak ezartzeko.**

■ Tokiko politikak gidatzen eta indartzen ditu garapen jasangarriagoa eta inklusiboagoa lortzeko eta **garatutako politiken koherentzia handiagoa sustatzen du.**

■ **Lengoaia partekatu** berri bat sortzen du partaidetza sustatzeko eta lurraldeko pertsona guztiei ahotsa emateko.

■ Udalen, diputazioen, erkidegoetako gobernuen eta tokiko sektore pribatuaren posizionamendua hobetzen du **finantzaketa aukera** berriak eskuratzeko.

■ **Nazioarteko espazio eta foroetan parte hartzeko** atea zabaltzen du, beste tokiko gobernu eta nazioarteko erakunde batzuekin lankidetzak eta koordinazioak, hartara nazioarteko irtenbideak eskainita tokian tokiko errealitatetik.

■ Herritarren kontzientziak areagotzen du **garapen jasangarriago eta inklusiboago baterako eraldaketaren sortzaile** diren heinean.

2030 Agenda, beraz, **aukera ugari eskaintzen dituen ekimen berria** da, baina hainbat erantzukizun dakartza ere toki erakundeentzat hurrengo hamarkadan zehar³, **2030 Agenda honen ezarpenaren protagonistak** baitira, bakoitza bere lurraldeko errealitatetik, **ekintzen arreta arlo hauetan jarrita: pertsonak** (People), **planeta** (Planet), **oparotasuna** (Prosperity), **bakea** (Peace) **eta aliantzak** (Partnership).

Ez utzi atzean pertsona eta toki bakar bat ere





GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK ETA HAUEN LOKALIZAZIOA

2030 Agendaren esparruan, **17 Garapen Jasangarriko Helburu (GJH)**⁴ eta 2030. urteko epemuga adostu ziren. GJH bakoitzak hainbat helmuga ditu barne (guztira, 169), helburua lortzeko lagungarriak direnak, ikuspegi integral eta sistemiko batetik, hartara agerian utzita garapen jasangarriaren hiru dimentsioen arteko loturak: ekonomia, gizartea eta ingurumena.

GJHei buruzko informazio gehiago nahi duzu?

- GJH bakoitzean eta horren helmugetan sakontzeko jo [Nazio Batuen GJHen inguruko webgunera](#).
- Tokiko gobernuen lanarekiko lotura ezagutzeko gomendatzen dizugu: [Hiri eta Tokiko Gobernu Batuen Gida \(CGLU gaztelaniaz\)](#): "Garapen Jasangarriko Helburuak, tokiko gobernuek jakin beharrekoa".

GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK



4. Nazio Batuen Garapen Jasangarriaren inguruko Gailurra

Zer esan nahi du GJH-AK LOKALIZATZEAK?

GJHak unibertsalak diren arren, lurralde bakoitzaren testuingurura egokitu behar dira. Beraz, tokiko ezarpena behar dute, administrazio maila desberdinen arteko erabakien koherentzia sustatuta eta lurraldean GJHei egindako ekarpenak helburu horiek probintzian, erkidegoan, estatu mailan eta nazioarteko mailan lortzen laguntzen duela ziurtatuta, **“behetik gora”** hain zuzen ere.

Ondorioz, **lurralde ikuspegia funtsezkoa** da **GJHen lokalizazio eta ezarpenean**, lurralde gisa ulertuta bertan bizi diren eta etengabeko elkarrekintzan diharduten eragile mota guztien artean gertatzen diren harreman sozial eta historikoek moldatutako espazio konplexu eta dinamikoa.

Espazio horren garapenak **sistemikoa** izan behar du, gizartearen, ekonomiaren, ingurumenaren eta gobernantzaren osagaiak barne hartuta, eta baita dinamikoa ere, **eragileen arteko elkarrekintzaren ondorioz** (eragile anitzeko planteamendua). Eraitza **partaidetzako eta eraikuntza kolektiboko prozesu** bat da, epe luzerako erronka erkideak partekatuz, hala nola lurraldean identifikatutako GJHak.

Lurralde garapeneko **planteamendu horrek plangintza eta kudeaketa efizienteagoak** eskatzen ditu, **lurraldeko errealitatea eta abian diren jarduketak abiapuntutzat hartzen dituztenak**: nola sustatu nahi da garapen inklusiboagoa eta jasangarriagoa uneko gaitasunekin eta zer beharko litzateke inpaktu eraldatzaileagoa lortzeko, inor atzean utzi gabe. Horretarako ezinbestekoa da udal politiken plangintza integratua, ezarpenerako baliabideak eta lortutako aurrerapenen eta lorpenen neurketa.

Lokalizazioari esker tokiko errealitatera egokitzen dira GJHen helmuga eta adierazleak. Huelvako Konderriko Mankomunitateak bere esperientzia azaltzen digu.

Honela, 2030 Agendaren lokalizazioak **tokiko lehentasunak eta beharrak birbideratzeko aukera** ematen du, garapen jasangarriago eta sozialki inklusiboago baterantz aurrera egiteko.

Zergatik da garrantzitsua lokalizatzea?

GJH guztiek tokiko gobernuen **erantzukizunekin lotutako helmugak** dituzte eta, zehazki, tokiko gobernuek duten zerbitzuak emateko eta lurralde garapen endogenoa, inklusiboa eta jasangarria sustatzeko mandatuarekin lotutakoak. **Tokiko eragile publiko eta pribatu guztiak eta sozietate zibila, herritar ez antolatuak barne, ahalduzko prozesua da,** tokiko mailan identifikatutako behar eta erronketatik hasita garapen jasangarria sustatzeko helburua duena. GJHak lortzeko ezinbestekoa da **tokiko eragileen erabateko parte hartzea, ez bakarrik ezarpen fasean, baizik eta tokiko 2030 agendaren definizio eta monitorizazio fasean ere.**

Lokalizazio Agendaren nazioarteko esparrua: eragile anitzeko, maila anitzeko eta “behetik gorako” agenda eraikitzeke Espainiako esparru deszentralizatua

Jarraian ageri den koadroan ikus daitezke GJHak lurralde bakoitzean lokalizatzeko prozesuen garrantzi geroz eta handiagoa eta GJHen “behetik gorako” eraikuntza indartzen dituzten Nazioarteko Garapen Agendaren funtsezko mugarriak, honela administrazio maila guztien arteko maila anitzeko koherentzia sortuta.

Akordio hauen inguruan, **tokiko eragileek eginkizun baliotsua izan dezakete, euren lurralde, erronka eta aurretatik, Nazioarteko Agendaren aurrerapenari buruzko nazioarteko elkarriketetan.**

Espainiako Administrazio Orokorrak, duen egitura espezifikoa deszentralizatuari esker, baldintza egokiak ditu Nazioarteko Garapen Agendaren erreferente izateko, nazioarteko GJHak toki mailan lokalizatzearen aldeko apustuari eta horien **behetik gorako eraikuntzari dago-kienez, hartara, toki mailatik, probintziako, erkidegoko, estatuko eta nazioarteko GJHetan lagunduta.**

<p>Nazio Batuen Garapen Talde barruko elkarrizketak 2015aren ondoko Agendaren lokalizazioari buruz</p>	<p>Toki erakundeen eta nazioz azpiko erakundeen eginkizuna aintzatestea Nazioarteko Garapen Agenda berriko funtsezko eragile gisa eta giza eskubideak bertan integrazteko hartu duten konpromisoa azpimarratzea.</p>
<p>Global Task Force</p>	<p>Tokiko eragileen partaidetza aktiboa ahalbidetzen du Hiri eta Tokiko Gobernu Batuen (CGLU) eta Global Task Force-en bidez.</p>
<p>Nazio Batuen Garapen Sistemaren erreforma: sistemaren orientazio berria 2030 Agenda ezartzeko eragile anitzeko eta maila anitzeko prozesu bat sustatu eta egituratzeko helburuarekin</p>	<p>Garapen jasangarriak dakartzan erronkek eragile publiko zein pribatu guztien aldetiko ekintza kolektiboak, koordinatuak eta osagarriak eskatzen dituzte, tokiko gobernuen eginkizuna ezinbestekoa izanik lurralde bakoitzean erronka horiei aurre egiteko.</p>
<p>ART-PNUD ekimena (Giza Garapen Jasangarriako Lurralde Sareen artikulazioa)</p>	<p>Tokiko eta eskualdeko gobernuen eginkizuna indartzea tokiko gobernantza eta tokiko garapenerako programak aurrera eramateko ezinbesteko bazkide eta eragileak diren heinean. Art-PNUD ekimenak laguntza garrantzitsua ematen die tokiko eta eskualdeko gobernuak GJHak lokalizatzeko prozesuan.</p>
<p>Local 2030</p>	<p>Plataforma honi esker, tokiko gobernuak tresnak, esperientziak, irtenbide berriak eta GJHak lokalizatzen laguntzeko gidak partekatzeko aukera dute. Zehazki, askotariko mekanismo eta instrumentu zehatz, praktikoa eta moldagarriak dituen erreminta kaxa bat eskaintzen zaie, GJHen ekintzak tokiko testuinguruan ezarri, gainbegiratu eta berrikusi ahal izateko.</p>
<p>Sevillako Konpromisoa</p>	<p><i>“Tokiko gobernuak eta beren biztanleriak, tokiko enpresak, oinarrizko erakundeak eta bestelako tokiko eragileak GJHen politiken garapen, ezarpen, jarraipen eta berrikusketa prozesuen erdigunean ipintzeko, eta lurralde eta landa-hiri kohesioa, hiri jasangarriak eta landa eremuak tokiko eta lurraldeko garapen jasangarria ahalbidetzen duten sektore arteko planteamendu integratuen bitartez sustatzeko...”</i> konpromiso irmoa.</p>
<p>2030 Agendari buruzko FEMPren adierazpena</p>	<p>GJHak, behetik gora, hiri eta lurraldeetan sustraitzeko konpromisoa eta lidergo politikoa berritzen eta indartzen ditu.</p>
<p>2030 Agenda Ezartzeko Ekintza Plana Garapen Jasangarriko Espainiako Estrategia baterantz</p>	<p>Ekintza Planean honakoa azpimarratzen da: “tokiko eta eskualdeko gobernuak laguntza eman dezakete GJHak “behetik gorako” ekintzaren bidez lortzeko, eta GJHei tokiko garapenerako politika gauzatzeko esparru bat eskaini dezakete”.</p>
<p>Policy Options txostena Garapenerako Finantzaketa Agendaren inguruan, Espainiako Gobernuaren proposamenak, 2020ko irailaren 23koak, Nazio Batuen Batzar Orokorraren aurrean</p>	<p>Espainiako Gobernuak hala eskatuta, kontuan hartu da 2030 Agenda betetzeko finantza baliabide publiko eta pribatuen mobilizazioak lurraldeen garapenerako finantzaketa barne hartzeko eta GJHen lokalizazio prozesuaren barne egoteko duen beharra.</p>

Zer eskaintzen dio toki erakundearen lanari eta horrek duen herritarrekiko konpromisoari?

- Dis Tokiko politika publikoak diseinatzea **eskubi-deen inguruko planteamendu integralagoarekin**.
- **Lehendik zeuden plangintza prozesuen berreskuratzea, ezartzea edo sakontzea** ahalbidetzea, politika bakoitzak sortzen dituen elkarreraginak eta ondorioak hobez egiaztatuta.
- **Epe ertain eta luzerako helmugak** zuzentzea jorratu nahi diren tokiko erronka eta arazoaren arabera.
- **Politiken lehenetsuna ezartzeko eta jarraipena egiteko** prozesuak ahalbidetzea.
- **Politika publikoen monitorizazioa** eta dagoeneko finkatuta dauden **emaitzen neurketa** ahalbidetzea.
- **Tokiko politikak, probintzia, eskualde, estatu eta nazioarteko mailan artikulatu daitezkeen** sustatzea.
- Tokiko politiken diseinuan eta ezarpenean **garapen jasangarriaren hiru dimentsioak** sartzea (ekonomia, gizarte eta ingurumena).
- **Zaugarritasun eta bazterkeria arrisku handiagoa duten pertsona eta taldeei zuzendutako ekintza espezifikoak** gauzatu ahal izateko.
- Prozesuan zehar **bestelako ahotsen entzunaldi aktiboa** sustatzea, sektore publikotik haratago, eta sozietate zibilaren edo akademiaren moduko eragileen **mobilizazioa** bultzatzea euren jarduketara esparruetatik 2030 Agendan lagundu dezaten.
- **Herritarren sentsibilizazioa** areagotzea bizi ohitura jasangarriagoak hartzeko garrantziaren inguruan **eta herritarrek ahalbidetzea** gobernuei 2030 Agendarekiko konpromiso irmoa eskatzeko.
- **Enpresen sektorearen eta beste eragile batzuen mobilizazioa** sustatzea **garapen jasangarri eta inklusiboaren helburu duen lankidetzan, baterako sorkuntzan eta berrikuntzan** parte hartu dezaten.

Garapen Jasangarriko Helburuak eta Hiri Agenda Berria

Ikusi dugun moduan, **2030 Agenda** baldin bada **garapen jasangarria eta inklusiboaren lortzeko politikak diseinatzeko esparrua** eta **GJHek** adierazten baldin badigute **“zer” lortu** behar den, **Hiri Agenda Berria** da 11. GJHaren lorpenari lotutako ekintzarako esparrua, hiri inklusiboagoak, seguruagoak, erresilienteagoak eta jasangarriagoak lortzeko. Beraz, Hiri Agenda Berria 2030 Agendaren barne dago.

Zehazki, **tokiko Hiri Agenda tresna baliagarria eta aukera bikaina da 11. GJHaren inguruan artikulatutako politikei koherentzia eta osagarritasun handiagoak emateko**. Hiri Agendak hiri inguruneetan hartutako erabakiak ordenatzen laguntzen du, ikuspegi estrategiko batekin, hartara erabaki guztiak koherenteak, sistematikoak, integratuak eta udal esparru guztien eta gainerrako administrazio eta eragileen arteko koordinazioan eta lankidetzan oinarritutakoak izan daitezkeen ziurtatuta.



IV.

2030 AGENDA DEFINITU ETA EZARTZEKO URRATTSAK

Lokalizatorako bideak abiapuntu ezin hobea dauka: toki erakundeetako bakoitzaren esperientzia zabala eta ezaguera espezifikoak. Hiri handietatik hasi eta landa eremuko eta Espainia hustuko udalerrri txikiak, udalak, diputazioek, kabildoek eta uharteetako kontseiluek urteak daramatzaten euren lurraldean bizi diren pertsonen beharrei erantzuten, zerbitzu publikoen bitartez.

Honela, errealitate hori abiapuntu hartuta, **GJHak lurraldeetan lokalizatzeko prozesuak dakar**, Gida honetan zehar azalduko den moduan, **modu integratu eta artikulatuan lan egitea jarraian adierazitako eraldaketaren funtsezko arloetan:**

- Planak eta politikak diseinatu eta/edo egokitzea garapen jasangarriaren eta GJHen aurrerapeneren erronkei lurraldean aurre egiteko, uneko erronka nagusiak eta atzean geratzen ari diren kolektiboak antzematen dituen diagnostiko egoki batetik hasi eta horien ezarpen eta monitorizaziora iritsi arte.

- **Herritarren ezaguera, interesa eta konpromisoa sortzea.**

- Agenda honek eskatzen dituen **gaitasunak garatzea** administrazioan eta eragile pribatuetan.

- **Eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetzeta eta elkarrizketa bultzatzea**, bai planak eta politikak diseinatze eta baita horiek ezartzeko ere.

- **Finantza baliabide publiko eta pribatuak erakartzea** lurraldeko garapen jasangarriko plan eta politiketarako eta GJHen aurrerapenerantz.

Modu horretan, hurrengo orrialdeetan aurki daitezke **udalei, diputazioei, kabildoei eta uharteetako kontseiluei bide horretan laguntzeko ibilbide orria**. 2030 Agendako printzipioak tokiko plangintzan behar bezala txertatzeko behar diren urratsak eta estrategiak modu erraz eta praktikoak gauzatu daitezke.

Urrats bakoitzaren azalpenarekin batera, askotariko tresnak eta Espainiako eta nazioarteko beste toki erakunde batzuen esperientziak eskaintzen dira, bidean zehar ikasten jarraitzeko. Halaber, Espainiako tokiko errealitatearen aniztasuna kontuan hartuta, urrats bakoitzean aurki daitezke ere udalerrri txikienei, landa eremuei, Espainia hustuari eta uharteetako lurraldeei dagozkien berezitasun eta erronka espezifikoak.

Ekin diezaiogun bideari...



1. FASEA

OINARRIAK EZARTZEA

1.1. EZAGUERA, INTERESA ETA KONPROMISOA SORTZEA



¿ZEIN DA HELBURUA?

■ 2030 Agendaren lokalizazio prozesuko alderdi funtsezko bat da **langile publiko guztien eta herritarren inplikazioa eta konpromisoa lortzeko beharra**. Horretarako, garrantzitsua da 2030 Agenda ezagutzera ematea, lehenik, eraldaketa eta eraikuntza kolektiboko proiektua den heinean eskaintzen dituen aukerak eta erronkak behar bezala azalduta. Azken batean, hainbat ekintza gauzatu behar dira, bai sektore publikoan eta baita herritarren artean ere, 2030 Agendaren eta GJHen ezaguera zabaltzeko eta, honela, alderdi guztien interesa piztu eta partaidetza lortzeko (lurraldeko gizarte ehun osoa, sektore pribatua barne). Esparru politikoan ere gomendagarria da 2030 Agenda ezagutzera ematea eta lurraldean dauden aukera politiko guztien aintzatespena eskuratzea. Urrats hau ezinbestekoa da hurrengo faseetarako oinarriak ezartzeko eta lokalizazio prozesuaren aurrerapenaren inguruko narratiba bat eraikitzeko.



TOKIKO GOBERNUTIK EGIN BEHARREKO LANAK

Herritarrekiko duten hurbiltasuna dela eta, tokiko gobernuek funtsezkoak dira herritarren eta lurraldeko gainerako eragileen (sozietate zibileko erakundeak, sektore pribatua eta akademia) inplikazioa sustatzeko. honakoen bidez:

1. TOKIKO GOBERNUTIK BERTATIK KONTZIENTZIA:

■ **Lurraldeko gobernuaren aldetiko konpromiso instituzionala agertzeko adierazpen bat egitea**, ahalik eta alderdi politiko eta eragile publiko gehien barne hartuta. Epe luzerako prozesua izanda, jarraitasuna eta norabide estrategikoa bermatu behar dira, gobernu ziklo batetik haratago, hartara auresangarritasuna eta egonkortasuna sortuta eta identifikatutako helburuetan inpaktu eraldatzaileak eraginda.

■ **Barne hausnarketa egitea** (adib. presidentziatik edo alkatetzatik zuzendutako lantalde baten bitartez, gobernu talde osoarekin batera, eta sail guztien ordezkari teknikoarekin) **GJHek eskaintzen dituzten aukeren inguruan**, besteak beste, barne plangintza eta kudeaketa hobetzeko, kultura instituzionalean aldaketa bat sustatzeko, eta herritarrei zuzendutako zerbitzuak hobetzeko planteamendu integralago eta koordinatuago bati esker.

■ Gobernu taldearen eta langile teknikoaren ezaguera mailaren arabera, **2030 Agendari eta GJHen lokalizazio prozesuari buruzko prestakuntza plan bat diseinatzea** (lineako ikastaroa, mintegia, lantegia...) eta erakundeko kide guztiei zabaltzea, ez bakarrik prozesu honen arduradunei.

■ **Toki Erakundearen Sarearekin bat egitea 2030 Agendako GJHak garatzeko.**

■ **Arlo politiko eta teknikoko ordezkariekin lantalde bat sortzea** GJHen lokalizazio prozesua zuzentzeko, gainerako erakundea erakartzeko eta konbentzitzeko gaitasuna duena⁵.

■ **Herritarrei jakinaraztea** tokiko gobernutik ematen diren urrats guztiak (prentsa oharra, webgune instituzionala, komunikabideetako eta gizarte sareetako ikusgarritasuna, etab.).

5. Para Informazio gehiago eskuratzeko, jo *"Guía para la Localización de los ODS en el ámbito local de Andalucía"* gidaren 24. orrialdera.

2. HERRITARRAK KONTZIENTZIATZEA GJH-EK DITUZTEN BIZI KALITATEA HOBETZEKO ETA ERAL-DAKETARAKO ALDAKETA ERAGILEAK AHALDUNTZEKO ONDORIO POSITIBOEN INGURUAN:

- 2030 Agenda aurkezteko ekitaldiak antolatzea, agenda hori eragile guztien partaidetzarekin garatzeko borondate instituzionala azalduta.
- Ohitura jasangarriak, kontsumo arduratsua, birziklatzea eta abar sustatzeko kanpainak antolatzea eta 2030 Agenda-rekin lortzea.
- Kultura (antzerkia, musika, margolaritza) eta kirol jarduerak sustatzea GJHen ezaguera eta bereganatzea areagotzeko pizgarri kolektibo gisa.

3. BESTE ERAGILE BATZUEKIN SINERGIAK EZARTZEA:

- **Tokiko eragile guztien arteko aliantzak ahalbidetu eta indartzea** (GKEak eta hirugarren sektoreko erakundeak, enpresa ehuna, merkataritza ganberak, unibertsitateak, eskola eta institutuak, liburutegiak, helduen irakaskuntza ikas-tetxeak, sindikatuak, komunikabideak...) lankidetzaz hitzarmen bidez, baterako sentsibilizazio kanpain bidez, etab. Horretarako, lurraldean dagoen elkarte ehuna identifikatuko da eta, halakorik ez balego, hura sortzeko behar diren bitartekoak bideratuko dira.
- **Garapen jasangarriko hezkuntza ekimen osagarriak sustatzea** tokiko hezkuntza espazio formaletan, ez formaletan eta informaletan, GJHak integratzeko helburuarekin.
- **Unibertsitateen ekimenei sostengua ematea** GJHak ezaguera arlo desberdinetan integratzeko.



KONTUAN IZAN HONAKOEN KASUAN:...



UDALERRI TXIKIENAK ETA/EDO LANDA EREMUETAKOAK: auzokoien elkarrekin, irakurketa klubak edo liburutegiak, eskola edo herriko taberna eta antzekoak funtsezko espazioak izan daitezke GJHen aldeko eguneroko bizitzaren ekintzei buruzko informazioa zabaltzeko eta ingurumen jasangarritasunari, energia aurrezteari eta abarri buruzko kontzientziakzioa areagotzeko.



LANDA EDO MENDIKO UDALERRIAK EDO UHARTEETAKO LURRALDEAK: teknologia berrietarako sarbidea ezinbestekoa da "isolamendu" sentipena gainditzeko (esaterako, aurrez aurreko prestakuntza eta sentsibilizazio jardueretan). Honen inguruan, autonomia erkidegoen eta/edo diputazioen laguntza behar da eremu isolatu eta urrunetan sarbide hori bermatu ahal izateko..

GIDAN ZEHAR ERABILITAKO IZENDAPENARI BURUZKO OHARRA

Lantaldea: ordezkeri politikoen eta langile teknikoek osatutako taldea, hausnarketa egiteko eta proposamenak aurkezteko 2030 Agendari buruz, agenda udal politika eta programetan integratzeari buruz eta GJHen lokalizazio prozesua dinamizatzeari eta toki erakundeko gainerako kideen partaidetzari buruz. Talde hau eragile ez publikoei ere irekitzea gomendatzen da (sozietate zibila, akademia, sektore pribatua, etab.) prozesuan zehar partaidetza inklusiboa bermatze aldera.

Foku Puntua: 2030 Agenda lokalizatzeko prozesurako toki erakundeko erreferentziako pertsona edo saila. Pertsona bat bada, normalean, goi mailako funtzionario bat edo udal arloko inguruko eskumenak dituen udal gobernu kide bat izaten da. Foku Puntua sailburu bat izan daiteke, eta baita saila bera ere, edo, zenbaitetan, unitate berri bat sor daiteke helburu horretarako.

Foku puntuak toki erakundeko gainerako sailetan: lokalizazio planaren integralitatean laguntzen duten erakundeko gainerako erreferenteak dira (barne hartuta giza eskubideen, generoaren, haurren, ekitatearen eta jasangarritasunaren planteamenduen zeharkako izaera egokia bermatzea).



ERREMINTA KUTXA

- Adierazpen instituzionalaren eredia.
- Informazio orokorra: Toki Erakundeen Sarea 2030 Agendara atxikitzea – FEMP.
- GJHen ezagueraren inguruko galdetegia: “Guía para la Localización de los ODS en el ámbito local de Andalucía”.
- “170 eguneroko ekintza gure mundua eraldatzeko” gidan hainbat ideia jasotzen dira herritarrek GJHak beren eguneroko bizitzan sar ditzaten.
- Nazio Batuen kanpaina: “Egizu posible aldaketa. Onartu erronka”.
- “Jardun orain” Nazio Batuen kanpaina klima aldaketaren eta jasangarritasunaren aurreko banakako ekintzak sustatzeko.



BESTE ESPERIENTZIA BATZUEN IKASKUNTZAK

- Argitalpen adibidea webgune instituzional batean. <http://www.dpz.es/noticias/por-la-incorporacion-la-diputacion-de-zaragoza-al-proceso-de-localizacion-de-la-agenda-2030-y-la-promocion-de-los-objetivos-de-desarrollo-sostenible-en-la-provincia>
- **Garapen Jasangarriaren aldeko Hirien Aliantza** Valentiako Consell de la Generalitatek sortu zuen toki mailan ezagutzera emateko GJHein konpromisoa hartzeak duen garrantzia.
- Europar Batasunaren **DEAR programa**.
- Flandria eskualdeko (Belgika) alkateek Garapen Jasangarriko Helburuak beren herritarrei azaldu dizkiete. <https://plattforma-dev.eu/flemish-mayors-explain-the-sustainable-development-goals-in-video/>



HURRENGO URRATSA EMAN AURRETIK GOGORATU...

- **Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak aukera bikaina dira aliantzak sustatu eta eraikitzeko** tokiko eragileen artean. Tokiko eragileen (sozietate zibila eta sektore pribatua, besteak beste) inplikazio aktiboa geroz eta handiagoa izan, orduan eta legitimoagoa eta egokiagoa izango da GJHen txertaketa tokiko plangintzan.
- **Eragile anitzeko espazioen** sustapenari esker, beste alderdi positibo batzuen artean, **2030 Agendaren bereganatz handiagoa eta erabakiak hartzeko prozesuaren legitimazioa lortzen dira**.
- Azpimarratu behar da tokikoa eta unibertsala den Agenda honek eskaintzen duen aukera herritarren **itxaropenak gauzatzeko**, etorkizuneko gizarte hobea, jasangarriago, bidezkoago eta inklusiboago bat lortzeari dagokionez.
- **Ezinbestekoa da aniztasuna bermatzea** antolatutako ekimen guztietan (kultura, jatorri eta genero desberdinetako pertsonen, desgaitasuna duten pertsonen, adin guztietako pertsonen eta abarren parte hartzea).
- Funtsezkoa da **esperientzia trukerako eta baterako irtenbideak bilatzeko espazioak sortzea**.
- Dagoeneko garapen jasangarriko estrategiak bultzatzen ari diren **sare eta erakundeei onura ateratzea**, esaterako 21 Agendaren esparrukoak.

1.2. 2030 AGENDARAKO FOKU PUNTUA ZEHAZTEA



ZEIN DA HELBURUA?

Lokalizazio prozesua hastean ezinbestekoa da **pertsona/sail bat izendatzea**, ikuspegi politikotik eta teknikitik GJHak lokalizatzeko eta ezartzeko prozesua sustatu eta koordinatzeko ardura izango duena toki gobernuaren esparruan. Horrez gain, identifikatutako lehentasuneko erronkak gainditzeko eta planteatutako helmugak lortzeko bidean egindako aurrerapenen jarraipena ere egingo du, beharrezkoa denean doikuntzak eginda.



NOR DA/IZAN DAITEKE 2030 AGENDARAKO FOKU PUNTUA TOKI GOBERNUAN?

Ezinbestekoa da Foku Puntua **diputazioko/kabildoko/uharte kontseiluko edo alkatetzako presidentziaren mendekoa izatea zuzenki**, GJHak lortzeko behar diren sail guztiak tartean sartzeok eta koordinatzeko gaitasuna izan dezan. Gomen datzen da taldeak erantzukizun politikoak dituzten pertsonekin eta langile teknikoekin osatzea.



TOKIKO GOBERNUTIK EGIN BEHARREKO LANAK

- Funtzio honen ardura duen sailik baden egiaztatzea.
- Halakorik bada, prozesu hau aurrera eramateko dituen benetako gaitasunak balioestea eta, beharrezkoa bada, gaitasun horiek indartzea (adib. langile gehiago jartzea, prestakuntza, etab.).
- Halakorik ez bada, sortu beharko litzateke. Oso garrantzitsua da sail horrek ahalik eta sostengu politiko eta instituzional handiena izatea GJHen lokalizazio eta ezarpen prozesuaren legitimotasuna bermatzeko.
- Gainerako sailekin sinergiak jakinarazi eta ezartzea. Garrantzitsua da koordinazio eginkizun hori arduradun politikoarengandik etortzea eta sail bakoitzean helburu hauetarako arduradun bat izendatzea, koordinazioa errazteko eta 2030 Agendarako foku puntuarekin informazioa trukatzeko.




KARGU POLITIKOAREN FUNTZIOAK SAILAREN BARRUAN

- GJHen lokalizazio eta ezarpen prozesua ezagutzera ematea tokiko instantzia betearazle eta legegile guztiei.
- Kabinete osoari aurkeztea GJHen nazioarteko helmugak eta tokiko errealitaterako esanguratsuenak diren helmuga nazionalak eta probintzialak.
- Lokalizazio prozesuaren ardura izango duen taldearen osaera zehaztea.
- Jorratu beharreko lehentasuneko erronkak identifikatzeko tokiko diagnostikoa koordinatzea.
- Helburuei lehentasuna emateko, tokiko helmuga eta adierazleak ezartzeko eta helmuga horiek lortzeko politikak definitzeko prozesua koordinatzea (barne hartuta, egokia denean, lehendik dauden politiken norabidea aldatzea edo lan ildo berriak definitzea tokiko politiketarako).
- Lokalizazio planaren amaierako dokumentuaren prestaketa koordinatzea.
- Lokalizazio planaren ezarpen eta monitorizazio prozesua koordinatzea.
- Prozesuko etapak eta lortutako aurrerapenak jakinaraztea.

TALDE TEKNIKOAREN FUNTZIOAK

- GJH bakoitzaren kasuan, dagoeneko 2030 Agendan laguntzen ari diren edo harekin lotura duten udalerriko sailak eta/edo programak identifikatzea.
- Laneko errutina bat ezartzeko urratsak zehaztea, esaterako, bileren agenda, txostenen prestaketa, jarduerak erregistratzeko moduak, etab.
- Tokiko diagnostikoa egiteko prozesua koordinatzea.
- GJHen helburu eta helmugen lehen tasuna ezartzeko proposamen teknikoa prestatzea.
- Helmuga horiek lortzeko tokiko helmugak, adierazleak eta politikak zehazteko proposamen teknikoa prestatzea (barne hartuta, egokia denean, lehendik dauden politiken norabidea aldatzea edo lan ildo berriak definitzea tokiko politiketarako).
- Monitorizazio sistemarako proposamen teknikoa prestatzea.
- GJHen ekimena ezagutzera emateko komunikazio plana diseinatu eta gauzatzea, lokalizazio prozesu osoan zehar.
- Eragile anitzeko espazioak antolatu eta diseinatzea lurraldeko eragile guztien parte hartzea lortzeko (gizarte erakundeak, enpresak, erakunde akademikoak, etab.) lokalizazio prozesuan.

KONTUAN IZAN HONAKOEN KASUAN:...

 **UDALERRI ERTAIN TXIKIA** talde txiki bat izan daiteke. Kasu horretan, ezinbestekoa izango da koordinazio eta informazio truke egoki bat izatea izaera sektoriala duten beste sail batzuekin (hezkuntza, enplegua, etab.) eta zeharkako izaera duten beste sail batzuekin (genero berdintasunak, haurtzarora, ingurumena, etab.). Udal oso txikietan eta landa eremuetako udaletan ere, tokiko gobernuaren egitura oso mugatua izan arren, erantzukizuna alkateari edo alkateordeari dagokio. Udalerrri txikiak osatutako landa eremuetan auzo alkateak aliatu onak izan daitezke prozesu honetan. Udalerrri handietan edo hirietan taldea, seguruenik, konplexuagoa izango da, beraz, azpibatzaordeak edo gaikako lantaldeak sortzea gomendatzen da lan dinamika produktiboagoa lortzeko.

ERREMINTA KUTXA

1.1.1 koadroa: Helburuen egokitzapenarekin zuzeneko lotura duten udal sailak identifikatzea GJHen, gobernuko instantzia guztien eta horien arduradun tekniko eta politikoen arteko lotura ahalbidetzeko.

GJH	HELMUGA	UDALEKO/DIPUTAZIOKO SAILAK/ZINEGOTZIGOAK						
		Gizarte zerb	Enplegua	Hirigintz	Kultura	Ingurumena	Gen. berdin	Ekonomia
1. GJH	1.1. 1.2....							

Iturria: Argentinako Garapen Jasangarriko Helburuen Tokiko Egokitzerako Eskuliburuan oinarritua.



BESTE ESPERIENTZIA BATZUEN IKASKUNTZAK

ALMERÍA 2030 udal enpresa gisa.



AHURRENGO URRATSA EMAN AURRETIK GOGORATU...

■ **Diziplina anitzeko lantalde** bat ezartzea tokiko gobernuen organoetako sailak elkarren artean konektatzeko modu ona da. Talde hauek alkatearen edo presidentearen zuzendaritzapean egon ohi dira sail, departamentu eta erakunde guztien konpromisoa eta interesa lortzeko helburuarekin.

■ Garrantzitsua da foku puntuak lurraldeko plangintza aurrekariak kontuan hartu ditzan (aurreko edo uneko plan estrategikoak, sailtako jarduketa planak, etab.), eta baita horien ardura duten udal sailen esperientzia ere.

■ Ezinbestekoa da **zeharkako planteamenduak integratzeko ardura duten sail/foku puntuen inplikazioa lortzea eta koordinazioa ezartzea** (giza eskubideak, generoa, haurtzarora, ekitatea, jasangarritasuna, etab.) ikuspegi hauei zeharkako izaera ematen dieten helburuak, helmugak eta adierazleak definitzeko orduan, bai plangintzari dagokionez eta baita tokiko helmugan jarraipenari dagokionez ere.

■ **Datu eta estatistika sailen parte hartze aktiboa** ezinbestekoa da bai helmuga eta adierazleen definizioan eta baita Lokalizazio Planaren ezarpenaren monitorizazioan ere. Halakorik ez badago, prozesu hau aukera paregabea da datu estatistikoen bilketa eta sistematizazioa nola landu hausnartzeko, dagoeneko udalerrri, probintzia eta estatu bailan dagoen informazioa abiapuntu hartuta.

2. FASEA

TOKIKO DIAGNOSTIKOA

2.1. TESTUINGURUAREN ANALISIA



ZEIN DA HELBURUA?

GJHetan laguntzeko ezarriko diren lehentasunen eta gauzatuko diren ekintzen inguruko erabakiak hartzeko, eman beharreko lehenengo eta ezinbesteko urratsa da **lurraldeko hiri eta herrietan bizi diren pertsonen errealitatea ongi ezagutzea**, hauen **interesak eta behar espezifikoak** bakoitzaren adinaren, sexuaren, jatorriaren eta abarren arabera, eta baita **lurraldeko ingurumen erronkak** eta enpresa ehunak dituen **aukera eta zailtasunak ere**.



TOKIKO GOBERNUTIK EGIN BEHARREKO LANAK

- Uneko edo arestiko diagnostiko dokumentuak eta/edo plangintza estrategikoko dokumentuak eta tokiko planak** (adib. 21 Agenda, EDUSI, Tokiko Hiri Agendak, etab.) **edo bestelako informazio iturriak** (adib. ekobarometroak...) **berrikustea**.
- Horiek eguneratzeko beharrik baden erabakitzea eta informazioak dituen gabeziak antzematea.
- Foku puntuak informazio esanguratsuaren analisia eta sistematizazioa koordinatu behar du sail/departamentu sektorialekin eta zeharkakoekin. Beharrezkoa balitz, autonomia erkidegoko sail sektorialekin eta zeharkakoekin ere koordinazioa ezarriko da.
- Diputazio probintzietan dauden datu estatistikoak egiaztatzea (adib. tokiko azpiegitura eta ekipamenduei buruzko inkesta) edo autonomia erkidegoko estatistika institutukoak edo Estatistikako Institutu Nazionalekoak, etab.
- Halakorik bada, tokiko gobernuko **estatistika sailarekin** edo baliokidearekin **koordinazioa** ezartzea.
- 2030 Agendak lurraldearen garapenerako dakartzan aukerak eta tokiko arazo nagusiak aztertzea** (barne hartuta kolektibo zaugarrienen errealitatea eta emakumeen behar espezifikoak) prozesu honetan parte hartuko duten sailekin batera.
- Tokiko gobernuko erantzule politikoekin eta langile teknikoekin egindako bileretatik atera daitekeen **informazio kuantitatiboaren** bilketa eta analisia zein neurritan lehenetsiko den erabakitzea (elkarrizketak tokiko informatzaileekin: tokiko adituak, sozietate zibileko erakundeetako kideak, sektore ekonomikoetako ordezkariak, etab.; eta partaidetza jarduerak: partaidetza saioak, herritarren pertzepzioa ezagutzeko inkestak, etab.).
- Diagnostiko sintetiko eta praktikoa** egitea GJHen lokalizazio prozesuaren hurrengo urratsetan **erabakiak hartzeko** balio duena eta tokiko gobernuaren **kudeaketarako baliagarria** izango dena.
- Barne mailan**, lantegi edo jardunaldi batean eta **gainerako eragile interesdunekin batera**, amaierako diagnostikoaren dokumentua **baliozkotzea**.



TENER EN CUENTA QUE EN EL CASO DE...



UDALERRI TXIKIAK ETA LANDA EREMUETAKOAK: honelako informazioa urriagoa izango da eta ahalegin handiagoa egin beharko da informazio kuantitatiboa eskuratzeko udal arduradunengandik, herritarrengandik eta beste tokiko eragile batzuegandik. Hiri eta udalerrri handiagoetan, informazio kuantitatiboa eta erreferentziako dokumentuak izateko aukera gehiago daude, eta horrek diagnostikoa egiteko oinarri sendo bat eskaini dezake.



ZER ESKAINI DEZAKETE BESTE ERAGILE BATZUEK?

Eragile anitzeko espazio bat sortzea, lurraldeko eragile guztien aldetiko diagnostikoa aurkezteko eta gauzatzeko (sozietate zibila, sektore pribatua, akademia...) hartara diagnostikoari eta ondorengo plangintzari legitimitasun handiagoa emanda. Espazioa aurrez aurre edo inkesta bidez, herritarren partaidetzarako kanalen bidez, webgune instituzionalen bidez eta abar antola daiteke. Unibertsitateek eta, zehazki, **jasangarritasunaren arloko behatokiak** edo izaera sektorialagoa duten bestelako behatokiak informazio iturri oparoa dira.



ERREMINTA KUTXA

DIAGNOSTIKO BATEN FUNTSEZKO ELEMENTUAK

- Lurraldeko alderdi garrantzitsuenen eta bertan behatutako erronken bilketa egituratua eta sintetikoa (barne hartuta generoagatiko bereizkeriak eta zaugarritasun handiagorekin eta baztertze arriskuan bizi diren pertsonen arazo nagusiak).
- Alderdi kualitatibo eta kuantitatiboan integrazioa.
- 2030 Agendako lehentasunezko jarduketara alorren identifikazioa ikuspuntu intersektorial batetik.
- Izaera sintetikoaren arren, idazketa zorrotza izan beharko da, mezu orokorregiak saihestuta.

LENGOAI/ESTILOA

- Testu eta diagrama, grafiko eta datu taulen arteko oreka egokia, eta edukien sintesia.
- Testu sintetikoak eta zorrotzasun teknikoak dutenak, baina aldi berean ulergarriak direnak.

*Iturria: EAEko udalerrietan 21 Tokiko Agendaren ekintza planak berrikusteko gida metodologikoa*ren egokitzapena.

- Genero ikuspegia tokiko garapenean integratzeko eskuliburua.
- Beste tresna interesgarri batzuk ezagutzeko, bisitatu LOCAL 2030.



BESTE ESPERIENTZIA BATZUEN IKASKUNTZAK

- Sevillako hiriko uneko egoeraren azterketa diagnostikoa eta ebaluazioa. , 2030 Agendako 17 Garapen Jasangarriko Helburuak betetzeko.
- Almería 2030.
- Garapen Jasangarriko Helburuen azterketa udal alorrean - Fuenlabradako Udala (oinarri lerroa barne du).



HURRENGO URRATSA EMAN AURRETIK GOGORATU...

- Lehendik dauden txostenen / diagnostikoen hasierako mapaketa on bat egiten bada eta informazio gabeziak identifikatzen badira **ez dugu hutsetik hasi beharko**.
- Sarritan denbora eta gaitasun teknikoak mugatuak izaten direnez, ezinbestekoa da **lehentasunezkoztat jo diren eta aurretiazko informazioaren gabeziak dituzten arloetan arreta jartzea**.
- Ahal bada, **izaera desberdineko informazio iturriak konbinatu** behar dira (kuantitatiboa, dokumentala eta kualitatiboa).
- **Hartzaile nagusiak erantzule politikoak eta langile teknikoak** dira, lurraldeko **gizarte eragile eta eragile ekonomikoekin batera**, herritarrez gain.

2.2. SOZIALTASUN ZIBILEKO, SEKTORE PUBLIKOKO ETA SEKTORE PRIBATUKO ERAGILEEN MAPAKETA GJH-EI DAGOKIENEZ

ZEIN DA HELBURUA?

Lokalizazio plana elkarrekin lan egiteko konpromisoa da, lurraldeko garapen jasangarri eta inklusiboaren alde. Horregatik, lurraldearen eta bertako pertsonen "argazki" eguneratua ezagutu ondoren, identifikatu egin behar da zein garapen eragile dauden lurraldean, zein eragilek duten prozesuan interesa, zein eragilek izan dezaketen prozesuan eragina eta/edo zeintzuk diren garrantzitsuak. Mapaketa hori ahalik eta zabalena izan beharko da inor atzean ez uzteko.

TOKIKO GOBERNUTIK EGIN BEHARREKO LANAK

1. Lurraldeko **eragile nagusiak identifikatzea**. Iturria: "Guía para la implementación de los ODS en el ámbito local de Andalucía" gidatik egokitua.

2. **Eragile horien ezaugarriak aztertzea, honako alderdiei dagokienez: eginkizuna eta jarduerak, eta** 2030 Agendaren eraikuntza kolektiboko **prozesuan parte hartzeko eta laguntzeko borondatea**. Barne du eragileen arteko harremanen analisia, ezinbesteko faktorea baita aliantzak sustatzeko eta eragile anitzeko lana ahalbidetzeko.

Eragileen eta haien arteko harremanen mapaketari esker ulertuko dira lurraldeko errealitate sozial eta politikoaren aniztasuna eta konplexutasuna, eta mapaketa horrek elkarriketarako eta trukerako instantzia edo espazioak sortzen lagunduko du, 2030 Agendako partaidetza prozesuetan funtsezko alderdia direnak.



Iturria: "Guía para la implementación de los ODS en el ámbito local de Andalucía" gidatik egokitua.

KONTUAN IZAN HONAKOEN KASUAN:...

 **UDALERRI TXIKIENAK ETA LANDA EREMUETAKOAK:** auzokoen elkarrekin eta kultura elkarrekin ezinbesteko eginkizuna dute, alkate auzoekin batera.

- Udalerri txikienetan, ETEek funtsezko eginkizuna izango dute tokiko eta hurbileko ekoizpen ehun bat sustatzeko eta irtenbide berritzaile jasangarriak proposatzeko ere.
- Landa eremuetako udalerrietan eskolak eta liburutegiak zabalkunde eragile garrantzitsua dira⁶.

6. Esperientzia interesgarriak: "La lección más grande el mundo" <https://www.unicef.es/noticia/la-leccion-mas-grande-del-mundo-los-ods-en-la-escuela>; <https://escuelasdesarrollosostenible.org/>; <https://aulasods.com/>.



ZER ESKAINI DEZAKE ERAGILE BAKOITZAK?

ESKUALDEKO ETA TOKIKO GOBERNUA

- Herritarrek GJHei buruz duten ezaguera identifikatzea.
- Eragile eta maila anitzeko partaidetza eta gobernantza ereduak bultzatzea.
- GJHekin lerrokatutako jarduketa lehentasunak eta plan estrategikoak ezartzea.
- Garapen jasangarri eta inklusiboaren ikuspegia euren politiketan sartzea.
- Funtsezko eragileak kontuan hartzen dituzte epe ertainerako eta luzerako estrategiak prestatzea.
- Kudeaketa modu inklusiboagoak eta zeharkakoagoak lortzeko kultura instituzionala aldatzea sustatzea, lengoiaia komun eta inklusiboa sortuta eta partekatutako ezagueraren kudeaketa ahalbidetuta, besteak beste.

SOZIETATE ZIBILA

- Proposamen zehatzak eta politika eraldatzaileak definitzea errealitatearen ezaguera abiapuntu hartuta eta zeharkako planteamenduekin (generoa, giza eskubideak, ekitatea, haurtzaroa, etab.).
- Botere publikoei GJHak lortzeko hartutako konpromisoak eta obligazioak bete ditzatela eskatzea.
- Baztertze edo zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen laguntza eta sostengua ematea pertsona hauen aldarrikapenak ezagutzera emateko eta lokalizazio planean banakako interesak eta interes kolektiboak kontuan har daitezela ziurtatzeko.
- Lurraldean gertatzen diren baztertze egoerak eta giza eskubideen urraketak salatzea.
- Giza eskubideei buruz sentibilizatzea eta herritarren partaidetza lortzea GJHak betetzeko ahaleginean.

EZAGUERA ETA ZABALKUNDE ERAGILEAK (ikastetxeak eta unibertsitateak)

- GJHen inguruko ikerketa.
- Irtenbide eta planteamendu berritzaileak bilatzea.
- Balioetan hezte eta balioak sustatzea garapen jasangarri eta inklusibo baten alde.
- Haurrak eta gazteak erakarri eta mobilizatzea.
- Herritar arduratsuak izateko behar den kontzientzia sortzea.

SEKTORE PRIBATUA

- Gizarte balioa sortzea eta ingurumen babesaren erantzukidetasuna onartzea.
- Enpresa ereduetan jasangarritasunarekin, epe luzerako pentsamenduarekin eta ingurumen, gizarte eta gobernantza jardunarekin lotutako irizpideak txertatzea.
- Irtenbide teknologiko berriak aplikatzea eta berrikuntza eragile izatea.
- Aliantzen sorreran parte hartzea.

Iturria: Guía para la implementación de los ODS en el ámbito local de Andalucía.



ERREMINTA KUTXA

2.2.1 Koadroa. GJHen eta beren helmugen egokitzapenarekin zuzeneko zerikusia duten eragileen identifikazioa:

Koadro honetan jaso beharko dira GJH bakoitzarekin eta bere helmugekin lotutako ekintzak, lokalizazio prozesuan zehar foku puntuarekin lankidetzan aritu beharko duten erreferente tekniko eta politikoak adierazita.

GJHT	Helmugak	TOKIKO PUBLIKOA SEKTORE (adib.)			Sektore pribatua	Sozietate zibila	Akademia	Beste eragile batzuk
		Osasuna	Enplegua	Obra publikoak				

Iturria: Argentinako Garapen Jasangarriko Helburuen Tokiko Egokitzerako Eskuliburuan oinarritua.

Eragile hauek GJHekin duten loturari buruzko informazio gehiago jasotzeko, kontsultatu gida hauek:

ETEEi zuzendutako gida Garapen Jasangarriko Helburuen aurrean

Nola hasi GJHekin unibertsitateetan

GKEak Garapen Jasangarriko Helburuen aurrean

GKEak GJHen aurrean. Mundu Itunaren ekintza proposamena



BESTE ESPERIENTZIA BATZUEN IKASKUNTZAK

- Malagako GJHen eragileen sarea
- Almería 2030 – DAFO.



HURRENGO URRATSA EMAN AURRETIK GOGORATU...

- Eragileen mapaketari esker eragile bakoitzak **tokiko mailan proposatzen diren GJH eta helmugei egin diezaiokeen ekarpena identifikatu** ahalko da, lokalizazio prozesuan zehar emango duen laguntzarekin batera, eta **aliatu posibleak ezagutu** ahalko dira, **aurkako** jarrera **edo** jarrera **neutrala** dutenez gain.
- Lurraldeko eragile guztiek eginkizun garrantzitsua izan dezaketela: **sindikatuak eta enpresa elkarteak, komunikabideak, auzokoen elkarteak eta elkarte kulturalak, tokiko ekintzarako taldeak, hirugarren sektoreko elkarteak, fundazioak, etab.**
- Sozietate zibilarri dagokionez, ezinbestekoa da lurraldean **emakumeen eskubideen defentsan diharduten erakundeak** identifikatzea, bai eta **zaurgarritasun egoeran dauden kolektiboak ordezkatzan dituzten erakundeak** ere (adib. migratzaileen elkarteak, desgaitasuna duten pertsonenak, haurtzaroren arlokoak, adinekoenak, etab.).

2.3. GAITASUNEN ANALISIA



ZEIN DA HELBURUA?

Lurraldean dauden eragileak identifikatu ondoren **toki erakundearen gaitasun errealak eta** GJHen lokalizazio prozesua eta haren ezarpen eta jarraipena gauzatzeko **indartu behar diren alderdiak** ezagutu behar dira. Halaber, funtsezkoa da ere prozesu osoan zehar **langile teknikoaren gaitasunak** aztertzea, Foku Puntu moduan jarduten duen pertsonaz/sailaz haratago, tokiko gobernuko sail guztietan 2030 Agendaren arloan prestakuntza eta konpromisoa duten langileak badirela ziurtatzeko.



TOKIKO GOBERNUTIK EGIN BEHARREKO LANAK

1. Aurretiazko kontsulta txiki bat garatzea, banakako elkarrizketen bidez, gobernu taldearekin eta toki erakundeko langile teknikoekin.

AURRETIAZKO KONTSULTARAKO EDUKIEN IRADOKIZUNAK

- 2030 Agendari eta GJHei buruzko ezaguera eta interes maila.
- Eginkizunak bete ahal izateko prestakuntza eta tresna beharrak.
- Tokiko eskumenek eta lan sail bakoitzak GJHetan laguntzeko duten potentziala. Datuak bildu eta sistematizatzeko sistema (gaitasun tekniko eta teknologikoak).
- Erakundeko plangintza prozesuetako parte hartze maila (indarguneak eta ahulguneak).
- Programak eta proiektuak jarraitu eta ebaluatzeko gaitasuna eta indartu beharreko alderdiak.
- Partaidetzarako eta sozietate zibilarekin eta beste eragile batzuekin elkarrizketa ezartzeko espazioak sustatzeko gaitasuna, politika publikoen eta hauen programa espezifikoaren identifikazioa eta ebaluazioari esker.
- Eskualde eta estatu mailako beste gobernu instantzia batzuekin ezarritako elkarrizketa maila.

2. Kontsultaren/elkarrizketen emaitzak erantzule politikoekin eta toki erakundeko sailtako langileekin (giza eskubideetako saila barne) partekatze **lantegi** bat antolatzea.

3. Langile teknikoekin eta gobernu taldeari zuzendutako **prestatuntza plana** (lineakoa, aurrez aurrekoa, etab.) prestatzea.

4. Baliagarriak izan daitezkeen **tresnak** (gidak, azterlanak, etab.) identifikatu eta ezagutzera ematea.

5. **Beste eragile batzuei** dagokienez, gomendagarria da hainbat lan bilera antolatzea, bereziki GKE sareekin edo enpresa elkarteekin, hauen gaitasunak aztertu ahal izateko eta prestakuntza jarduerak prestatzeko (zuzenekoak edo eragile anitzeko espazioen bitartez egindakoak).



KONTUAN IZAN HONAKOEN KASUAN:...



UDALERRI TXIKIAK ETA LANDA EREMUETAKOAK: baliabiderik eta gaitasunik eza bereziki larria da hiri ertain eta txiki askoren eta landa izaerako udalerrien kasuan. Horregatik, diputazioetatik, autonomia erkidegoetatik eta administrazio zentraletik, aholkularitza teknikoa, prestakuntza proposamenak, lineako ikastaroak, zabalkunde tresnak eta abar eskaini behar zaizkie. Halaber, ezinbestekoa da erreferentziako espazio eta sare hauetan parte hartzea esperientziak eta erronkak partekatu ahal izateko eta ezaugarri eta erronka antzekoak dituzten beste lurralde batzuetan aplikatutako irtenbideak ezagutzeko. FEMPK **funtszko eginkizuna dauka prestakuntza eskari horiei erantzuteko** eta udalerriei eta udalerrien elkarreei sostengua emateko orduan.



UHARTEETAKO LURRALDEAK: arlo honetako espezialisten kopurua txikiagoa izan daiteke, beraz, ezinbestekoa da jardunaldi eta prestakuntzetan telematikoki parte hartu ahal izatea, teknologia berriei esker.



ERREMINTA KUTXA

- **FEMPAk** tokiko langile publikoei eskaintzen dien **etengabeko prestakuntza programa**.
- **CGLU prestakuntza: prestakuntza moduluak eta Local 2030 ekimenaren inguruko bestelako trebakuntza baliabideak (Aurkezpen bideoa):** bereziki aipagarriak dira eragile hauek batera garatutako ikaskuntza moduluak: Nazio Batuen Garapenerako Programa, UN Habitat, Global Taskforce, CGLU eta Bartzelonako Diputazioa.
 1. ikaskuntza moduluak: GJHen lokalizazioa.
 2. ikaskuntza moduluak: GJHak lortzeko lurraldeko plangintza
 3. ikaskuntza moduluak: GJHen txostenak



BESTE ESPERIENTZIA BATZUEN IKASKUNTZAK

- Gobernu taldeari eta udal sailei zuzendutako GJHen inguruko prestakuntza **Terrasa** eta **Granollerseko udaletan**.



HURRENGO URRATSA EMAN AURRETIK GOGORATU...

- Gaitasun egokiak eskura izatea ezinbestekoa da lokalizazio plana ezarri ahal izateko. Gaitasun honen analisiari esker, **hobe erantzun ahal izango zaie epe luzerako erronkei**, arreta berehalako arazoetan bakarrik jarri ordez.
- Ditugun gaitasunen ezaguera sakonak **kultura instituzional propioa aldatzeko** eta, eguneroko bizitzan, eskura ditugun bitartekoen erabilera eraginkorragoa dakarten **ezaguera espezifikokoak eta trebeziak indartzeko** aukera emango digu.

2.4. TOKIKO POLITIKA ETA BALIABIDEEN AZTERKETA



ZEIN DA HELBURUA?

GJHen funtsa aurki daiteke **tokiko gobernuak dagoeneko egiten ari diren lanaren oinarrian**, baina **lokalizazio** prozesuak hainbat abantaila eskaintzen ditu, besteak beste, **kudeaketa integratuago bat egiteko aukera** eta pertsonen bizi kalitatean eta lurraldeko ingurumen jasangarritasunean **inpaktu handiagoa lortzeko aukera**.

Zehazki, analisi honi esker lortuko da, betiere GJHen arabera eta 2030 Agendaren integralitatea (eta helburu eta helmugen arteko lotura) galdu gabe, **dagoeneko gauzaten ari diren politikak, programak eta jarduketak ordenatzea**, identifikatutako lehentasunak hobe asebetetzeko **beharrak** eta erronkak identifikatzea, **eta behar diren baliabideak kuantifikatzea**. Urrats horrek berebiziko garrantzia dauka aurrerago etorriko diren politika eta programen diseinua eta kudeaketa GJHak lurraldean eta lurraldetik lortzeko helburuarekin egiten direla bermatzeko.

2030 Agenda erantzukidetasun agenda bat da, beraz, tokiko politika guztiak koherenteak izan behar dira 2030 Agendak proposatzen dituen garapen jasangarriko printzipioekin. Koherentzia hori lortzeko ikuspegi integratu bat behar da, tokiko esparruko jarduketan artean eta tokiko jarduketan eta beste gobernu mailetako jarduketan artean gertatzen diren sinergia positiboak eta negatiboak identifikatzeko gai dena, nahi ez ditugun ondorioak saihestu edo ahalik eta gehien murrizteko doikuntza egokiak egiteko helburuarekin.

GARAPEN JASANGARRIRAKO POLITIKEN KOHERENTZIARI BURUZKO BEHAKETAK⁷

- **Politika eta jarduketan artean eta horiei lotutako helmugen artean ager daitezkeen elkarreaginak (sinergiak edo kontraesanak) aztertzea.**
- Dokumentu estrategiko eta politikoen eta 2030 Agendako printzipioen arteko koherentzia berrikustea.
- Toki, eskualde eta estatu mailako eskumen esparruen arteko elkarreaginak aztertzea.
- **Kontraesanak gainditzeko eta sinergia positiboak onura ateratzeko estrategiak edo politikak birdefinitzea.**



TOKIKO GOBERNUTIK EGIN BEHARREKO LANAK

1. Tokiko gobernuaren **plangintza estrategikorako uneko tresnak identifikatzea**, honela lokalizazio prozesua nola garatu erabaki ahal izateko.

- Tokiko 2030 Agenda eraikitzea tokiko plan estrategikoa, edo beste plan estrategiko batzuk (adib. hirigintza plana, uharteetako lurralde plana, etab.), GJHekin lerrokatuta.
- Halakorik bada, tokiko Hiri Agenda abiapuntu egokia izan daiteke eta beharrezkoa da 2030 Agendarekin lerrokatuta dagoela egiaztatzea diagnostikoan antzemandako erronka guztiei aurre egin ahal izateko.
- Halakorik bada, 21 Agenda abiapuntutzat hartu eta jarduketa horiek 2030 Agendarekin⁸ osatzea.
- Erreferentziako planik ez badago, existitzen ez delako edo indarrean ez dagoelako, GJHen lokalizazio plana hutsetik sortzea.

7. Iturria: "La Coherencia de Políticas en el corazón de la transición hacia la sostenibilidad" dokumentutik egokitua, Futuro en Común.

8. Adibidez, Menorcako Hiri Agendaren helburuetako bat da Biosfera Erreserbako Ekintza Plana osatzea pertsonen, herrien eta hirien inguruko ikuspegiarekin, eta horiei lotutako eskubide guztiekin.

2. Eratutako lantaldearen parte hartzea funtsezkoa da. Halaber, parte hartze politikoa behar da (adib. diputazioko presidentearen zuzendaritzapean, alkatearen zuzendaritzapean edo sail bakoitzeko zinegotzien zuzendaritzapean) departamentu eta erakunde guztien interesa eta konpromisoa lortzeko.

3. Zeharkako gaien (esaterako, giza eskubideak, genero berdintasuna, desgaitasuna, haurtzarora, gaztarora, etab.) gaineko erantzukizuna duten sailen edo foku puntuen partaidetza aktiboa lortzea.

4. Toki erakundeko kudeaketa ildoek GJHekin eta horien helmugekin **duten lotura** identifikatzea.

5. Jorratzen duten gaiaren/sektorearen edo arazoaren arabera, goiko puntuan aipatutako toki erakundeko kudeaketa ildoetan eta GJH bakoitzean laguntzen duten **politikak, programak edo tokiko ekintzak** adieraztea.

6. Finantza baliabideak, giza baliabideak eta baliabide materialak kuantifikatzea, propioak edo beste gobernu maila batzuenak, identifikatutako politika, programa, ekintza eta/edo zerbitzu bakoitzerako.

7. Beharrak identifikatzea lehendik dauden planak eta programak eta uneko baliabideak aztertzeari esker.

8. Sinergiak eta loturak identifikatzea tokiko gobernuaren baitan, bai eta beste eragile batzuekin ere.

9. Sozializazio eta baliozkotze lantegi bat egitea barne mailan zerikusia duten departamentu guztiekin.



KONTUAN IZAN HONAKOEN KASUAN:...



UDALERRI TXIKIENAK ETA LANDA EREMUETAKOAK: prestazio eta/edo zerbitzu "tradizionalak" garatzera orientatuagoak egon ohi dira (zerbitzu publikoak, argiteria, zabor bilketa, espazio berdeen mantentze lanak).

Hiri ingurune handien kasuan, bestelako prestazioak eta zerbitzuak ere ematen dituzte, esaterako, ekoizpenaren garapena, gizartearen garapena eta eskubideen sustapena helburu dituztenak.



ZER ESKAINI DEZAKETE BESTE ERAGILE BATZUEK?

Beste eragile batzuekin uneko lankidetzak edo lankidetzak potentzialak identifikatzea, esaterako:

- Sektore publikoren, enpresa sektore pribatuaren eta sozietate zibileko elkarten arteko lankidetzaren moduko aliantzak garapenean inpaktua lortzen duten eta agenda erkideen sorrera sustatzen duten ekimenak gauzatzeko, eta baita baliabideen, arriskuen eta onuren konbinazioa lortzeko ere.
- Lankidetzak hitzarmenak unibertsitateekin eta ikerketa institutuekin.
- Lokalizazio plana ezartzen lagundu dezaketen sozietate zibileko elkarten programak.



ERREMINTA KUTXA

2.4.1 Koadroa

KUDE AKETA ILDOA	GJH	HELMUGA(K)	TOKIKO POLITIKA	PROGRAMA ETA/EDO EKINTZA	GIZA BALIABIDEAK	BIDERATUTAKO AURREKONTUA	SINERGIAK BESTE ERAGILE PUBLIKO-PRIBATUEKIN	ANTZEMANDAKO BEHARRAK
"Udalerriko auzo zaurgarrietan pobrezia desagerraraztea"	11. GJHa: Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak	11.1. (...) 11.2. (...) 11.3. (...) 11.4. (...) ...						



BESTE ESPERIENTZIA BATZUEN IKASKUNTZAK

- *"Participamos Dipucordoba 2030"*: Cordobako Diputazioaren 2019ko aurrekontua GJHein lerrokatuta eta ematen dieten sostenguarekin ezagutzera emanda, 2019ko aurrekontu orokorrak GJHei egindako ekarpenaren analisiari buruzko eranskinarekin (2018/12/19ko osoko bilkura).
- Palentziako Diputazioa: *"Hacia una diputación sostenible: la integración de los ODS en la gestión"* CNIS saria 2020 GJHetan oinarritutako aurrekontu eraldaketarako proiektu aitzindariagatik. Proiektuaren inguruko informazio gehiago: <https://www.diputaciondepalencia.es/noticia/20191122/presupuestos-2020-personas-muni-cipios-desarrollo-socioeconomico>.
- Aurrekontuak GJHein lerrokatzeko metodologia, Badajozeko Diputazioa.
- Estatuko Aurrekontu Orokorrak 2030 Agendako GJHein lerrokatzeari buruzko txostena.
- CEPAL: *Aurrekontu publikoen eta GJHen plangintzarako oharra*.



HURRENGO URRATSA EMAN AURRETIK GOGORATU...

- Lokalizazio prozesua nola jorratzeari buruzko erabakia tokiko gobernutik bertatik jaio behar da, lurralde gisa dituen errealitatekin eta gaitasunetatik.
- Lehetasunak tokiko gobernuaren eskumenekin eta aurrekontu gaitasunarekin bat etortzea ezinbestekoa da.
- Gastuaren GJHeikiko lerrokatzearen arabera sailkatutako edo egituratutako aurrekontuak izateak gastu programek GJHei egindako ekarpena identifikatzen laguntzen du eta asebate ez diren beharrak eta eskariak antzemateko aukera ematen du. Helburuen arabera egituratutako aurrekontuetarantz edo inpaktuaren arabera aurrekontuetarantz aurrera egiteko lehenengo urratsa da.

2.5. ETENAK ETA ERRONKAK IDENTIFIKATZEA



ZEIN DA HELBURUA?

GJHen eta identifikatutako arazo eta erronken artean eta uneko politika, plan eta programen artean dauden eten eta kontraesan nagusiak identifikatzea. Eten, arazo edo erronka garrantzitsuenak dituzten arloak zeintzuk diren jakiteko hasierako hurbilketa bat da, kontuan hartuta udalerriko errealitatea eta uneko politikak eta jarduketak.



NIRE ERAKUNDETIK EGIN BEHAR DIREN LANAK

1. Lurraldeko errealitateari buruzko hasierako diagnostikoan azaleratutako emaitzak abiapuntu gisa hartzea.
2. Aurreko urratsean (2.4) egindako politiken eta tokiko baliabideen analisia oinarri hartuta, **GJH bakoitzarekiko dauden etenak identifikatzea (behar bezala jorratzen ari ez diren alderdiak edo inola ere jorratzen ari ez direnak).**
3. Lantaldeak izatekotan, analisi hori baliozkotzea. Lantaldeak barnekoak badira, ondorio/analisi hauek ezagutzera ematea **zerikusia duten eragileei zuzendutako alderaketa jardunaldi/lantegi batean.**



KONTUAN IZAN HONAKOEN KASUAN:...



UDALERRI TXIKIENAK ETA LANDA EREMUETAKOAK, BALIABIDE EKONOMIKO ETA TEKNIKO GUTXIKOAK:

uneko egoeraren eta lortu nahi diren GJHen arteko etena oso handia izan daiteke. Hala ere, garrantzitsuen da hausnarketa hori egitea poliki poliki ibili behar den bideko urratsak zehazteko, **uneko gaitasunetara egokituak dauden helburu progresiboak ezarrita.**



UDALERRI TXIKIAK, LANDA EREMUETAKOAK ETA/EDO UHARTEETAKOAK:

eten hauek handiagoak dira tresna digitalik ez dutelako, hartara **eten digitala** ere areagotuta eta gaitasun digitalak indartzeko beharra handiagoa izanda.



ERREMINTA KUTXA

2.5.1 koadroa

KUDEAKETA ILDOA	GHJ	HELMUGA(K)	TOKIKO POLITIKAK	PROGRAMA ETA/EDO EKINTZA	ETENA/ERRONKA
"Poner fin a la pobreza en los barrios vulnerables del municipio"	ODS 1, ODS 10, ODS 11	1.1, 1.3 11.1. (...) 11.2. (...) ...			



HURRENGO URRATSA EMAN AURRETIK GOGORATU...

- **Egiten ari den horren eta hobetu behar den horren ikuspegi errealista** batekin bakarrik egin daiteke aurrera kudeaketa integralago eta efizienteago baterantz, lurraldearen garapen jasangarri eta inklusiboarako lagungarria izango dena.
- Uneko etenen identifikazioaren abiapuntua abian diren politiken eragina eta GJH bat edo gehiago lotzen dituen ikuspegi integral eta sektore anitzekoa izan behar da.

3 FASEA

LOKALIZAZIO PLANAREN DEFINIZIOA

3.1. DIAGNOSTIKO TXOSTENAREN AURKEZPENA



ZEIN DA HELBURUA?

Lurraldeko eta bertako herritarren errealitatea ezagutzen direnean, eta 2030 Agendarekiko dauden etenak eta erronkak egiaztatu direnean, ezaguera horiek guztiak prozesu honetan zerikusia duten eragile guztiekin partekatze ordua izango da. Seguruenik udalerrian dagoeneko politika eta jarduketa ugari ezarri dira GJHein lerrokatuta daudenak, orain arte modu horretan izendatu ez badira ere, baina diagnostikoa lagungarria izango da gainditzeko dauden erronkak identifikatzeko eta atzean gelditzen ari diren kolektiboak zeintzuk diren jakiteko.



TOKIKO GOBERNUTIK EGIN BEHARREKO LANAK

1. Tokiko diagnostikoaren 2. faseko **ondorio nagusiak** sistematizatzea, bai eta lokalizazio plana prestatzeko eta haren ezarpena kudeatzeko ondorioztatutako gomendioak ere.
2. Lantaldeak izatekotan, **txosten hau baliozkotzea**. Lantaldeak barnekoak badira, ondorio/analisi hauek ezagutzera ematea zerikusia duten eragileei zuzendutako alderaketa jardunaldi/lantegi batean.
3. **Txosten honen aurkezpena iragartzea** prentsa ohar batean, gizarte sareetan edo bestelako komunikabideetan.



ZER ESKAINI DEZAKETE BESTE ERAGILE BATZUEK?

Sozietate zibileko foro eta erakundeek, unibertsitateetako behatokiek edo enpresa elkarteek eginkizun garrantzitsua dute udalerriko errealitatea eta 2030 Agendak dakartzan erronkak euren sareetan eta erakundeetan ezagutzera emateko eta ikusgarri egiteko (webguneetan, buletinetan eta abarretan albisteak argitaratzea).



BESTE ESPERIENTZIA BATZUEN IKASKUNTZAK

- Almería 2030.
- Estudio sobre los objetivos de desarrollo sostenible en Fuenlabrada.



HURRENGO URRATSA EMAN AURRETIK GOGORATU...

- **Diagnostiko txostenak sintetikoa eta argia** izan behar du eta GJHen esparruko **lehentasunezko arloak identifikatzeko helburu nagusia** izango du. Datu eta analisi zorrotzetan oinarrituko da, nahikoa desagregazio dutenak, atzean gelditzen ari diren kolektiboak identifikatu ahal izateko.
- Prozesu osoan zehar lidergo eraginkorra ezartzeko, oso gomendagarria da **txostenaren aurkezpena diputazioko presidentek edo udaleko alkateak egitea, ordezkari politiko guztien parte hartzearekin eta langile teknikoei ahotsa emanda**, azken hauek arlo horretan duten konpromisoa eta ezaguera azpimarratuta.
- Txosten hau eragile interesdunen artean sozializatzeak **gardentasun handiagoa** bermatuko du eta **kontuak emateko prozesu emankorragoa** sortuko du, **alderdi guztien parte hartze eta konpromiso handiagoa lortuta**.
- **Eragile guztiak**, fase guztietan, **modu aktiboagoan barne hartzen dituzten plangintza prozesuek** bakarrik dituzte bermatuta **legitimazio, bereganatze eta erantzukidetasun handiagoak** lurraldearen garapen jasangarri eta inklusiborako bidean.

3.2. GJH ETA NAZIOARTEKO HELMUGEN LEHENESPENA



ZEIN DA HELBURUA?

Ahaleginak zein GJH eta nazioarteko helmugetarantz bideratuko diren zehaztea, lurraldeak dituen gaitasunen eta egoeraren arabera. Identifikatu diren etenen/erronken arabera, lehenetasunak ordenatu beharko dira GJHei dagokienez, epe ertainera-luzera gure jarduketan helburu izango diren nazioarteko helmugak barne.

Hala ere, 2.4 urratsean adierazitako moduan, **ezinbestekoa da 2030 Agendaren integralitatea eta helburu eta helmugen arteko harremanak oso argi izatea**, honela bakarrik lortuko baitugu alderdi ekonomikoa, soziala eta ingurumena modu orekatuan jorratzen dituen garapen jasangarri eta inklusiboa.

GJH bakoitzak barne ditu Nazio Batuen 2030 Agendak nazioarteko mailan definitu dituen hainbat helmuga. Lokalizazio prozesuari ekin aurretik, gomendagarria da gure ahaleginak zein GJHetarantz bideratuko diren identifikatzea, bai eta GJH horiekin lotutako nazioarteko helmugak ere (aurrerago tokiko mailara egokituko direnak).



NIRE ERAKUNDETIK EGIN BEHAR DIREN LANAK

1. Lantaldeari edo prozesuan parte hartzen duten sail/departamentu/foku puntu guztiei (barne hartuta zeharkako alderdien arduradunak eta estatistika eta monitorizazio unitateak) **deialdia egitea.**

Zeharkako alderdien ardura duten sailen/departamentuen/foku puntuen eta estatistika eta aurrekontu plangintzarako unitateen parte hartze aktiboa lortzea.

2. Ordezkeri politiko-instituzionalak ez badaude lantaldearen barruan, **ezinbestekoa** da lehenetsiko diren GJHen eta helmugen inguruko **analisiak eta erabakiak hartzeko prozesuan parte har dezaten**, modu horretan helmuga horien planteamendu integrala eta alderdi anitzekoa bermatuta.

3. Diagnostiko txostena berreskuratzea (3.1 urratsa) **tokiko kudeaketa ildo** bakoitzaren **eta GJH** baten edo gehiagoren eta horien **helmugen arteko loturari** dagokionez.

Lehenespena tokiko erronka nagusien arabera egin behar da. Ildo bakoitza GJH bati edo gehiagori lotuta egon daiteke. Lehenetasunen eta gaitasunen analisiaren arabera, GJH eta/edo helmugetako bat doitzeko aukera dago.



KONTUAN IZAN HONAKOEN KASUAN:...



UDALERRI TXIKIENAK ETA/EDO LANDA EREMUETAKOAK

■ Gaitasun tekniko eta ekonomikoak mugatuagoak izan daitezke, beraz, hasierako ahaleginak **GJH eta nazioarteko helmuga kopuru mugatu batean jar daitezke, betiere 2030 Agendaren integralitatea eta** tokiko esparrurako garrantzitsuak diren **helmugak kontuan hartuta eta, ahal den neurrian, horiek ere landuta.**

■ **Antzeko udalerriekin ezartzen diren koordinazioa eta sinergiak** tresna oso interesgarria izan daitezke jardunbide egokiak eta esperientziak partekatzeko, eta baita aliantzak sortzeko ere, esaterako, lokalizazio prozesuari eskualde mailatik helduta.



ZER ESKAINI DEZAKETE BESTE ERAGILE BATZUEK?

Lantaldean ez badago gobernuz kanpoko eragilerik (sozietate zibila, sektore pribatua eta akademia), ezinbestekoa da eragile horiekin baliozkotze lantegi bat antolatzea, izan ere, lehenespena, legitimoa izateko, gizarteko, gobernuko eta gobernuz kanpoko eragileen adostasunetik jaio behar da.

Zein eragile dira estrategikoak plangintzarako eta hobekuntzak egikaritzeko? Hasieratik parte hartzen dute modu aktiboan prozesu honetan? Nola sortu edo indartu daiteke haiekiko aliantza?



ERREMINTA KUTXA

■ Euskal Autonomia Erkidegoko “Tokiko 2030 Agenda. Nola heldu Garapen Jasangarriaren Helburuei tokiko eremutik” gida praktikoaren III. eranskinean GJHekiko hurbilpen interesgarria aurki daiteke, tokiko ikuspuntutik, euskal udalerrien errealitatea abiapuntu hartzen duena.

■ Flandriako (Belgika) udalerrri eta hirien elkarteak (Association of Flemish Cities and Municipalities - VVSG) **GJHak politiken plangintza txertatzeko gida** bat garatu du: - GJHak helburu eta ekintzak garatzeko gida gisa, - GJHen lehentasunaren analisia, - GJHen tokiko adierazleak, beste alderdi batzuen artean.

■ **Garapen Jasangarriko Helburuen mandala**, GJHen erronken aurreko ekintzak eta politikak “lasaitasunez” aztertzeo tresna. Dokumentu honetan aurki daitezke GJHen helburuak eta jarraibideak xehatzen dituzten datu orriak, lankidetzat lantegietan erabiltzeko.



BESTE ESPERIENTZIA BATZUEN IKASKUNTZAK

■ **Participamos DipuCórdoba 2030**



HURRENGO URRATSA EMAN AURRETIK GOGORATU...

■ Lehenespenak kontuan hartu behar ditu **emakumeei eta kolektibo zaugarrienei** (haurrak, migratzaileak, desgaitasuna duten pertsonak) eragiten dieten arazo bereziak, inor atzean gera ez dadin.

■ GJHak lehenesteko ariketa eragile guztiek **premiazkotzat** jotzen dituzten **tokiko garapenaren alderdietan** oinarritu behar da, baina **epe ertain eta luzerako ikuspegia ahaztu gabe.**

■ GJHen lehenespen horrek **modu orekatuan jorratu** behar ditu **garapen jasangarriaren hiru oinarri nagusiak: ekonomia, gizartea eta ingurumena**, hauen arteko **elkarrekintzekin** batera.

3.3. TOKIKO HELMUGAK ETA JARRAIPEN ADIERAZLEAK ZEHAZTEA



ZEIN DA HELBURUA?

GJHeK eta hauen helmugak nazioarteko izaera dutela kontuan hartuta, eta lurralde bakoitza bere garapenaren arduraduna dela ahaztu gabe, **lurralde bakoitzeko beharretara, eskumenetara eta testuingurura egokitutako tokiko helmugak** ezarri behar dira.

Adierazleen sistema egoki bat definitzea funtsezkoa da, izan ere, oso **tresna beharrezkoa eta baliagarria** da plangintza eta kudeaketa publikoarekin lotutako erabakiak hartzeko prozesuetan, eta baita jarraipena eta ebaluazioa egiteko ere.



TAREAS A REALIZAR DESDE VUESTRA INSTITUCIÓN

1. Aurreko urratsetan bezala, **lantaldeari eta prozesuan parte hartzen duten sail/departamentu/foku puntu guztiei** (barne hartuta zeharkako alderdien arduradunak eta estatistika eta monitorizazio unitateak) **deialdia egitea**.
2. **Lehenetsitako GJHen eta horien nazioarteko helmugen arabera, tokiko mailan** GJHei egindako ekarpena modu errealistan ezagutzea ahalbidetzen duten **helmugak identifikatzea**.
3. Identifikatu diren **tokiko helmugak zehatzak, neurgarriak eta anbizio handikoak** direla egiaztatzea, planteamendu integral batean lehenetsitako GJHen helburuetarako. Gainera, helmugek egingarriak izan behar dute, udal/tokiko eskumenen arabera.

GJH Agendako helmugen epemuga 2030. urtea da, baina lau urteko agintaldi baterako, bitarteko tokiko helmugak ezar litezke, kudeaketa balantze moduan.

4. Hautatutako helmugen multzoak **garapen jasangarriaren hiru alorrak** (ingurumena, ekonomia eta gizartea) **jorratzen dituela** egiaztatzea, **giza eskubideak, generoa, haurtzaroa eta ekitatea kontuan hartuta, inor atzean ez uzteko**.
5. Adierazleak izango dira **kuantitatiboak** (zenbakizkoak) eta **kualitatiboak** (esaterako, administrazioaren barneko berrikuntza maila, herritarrekin eta udalerriko elkarteekin dagoen lankidetzatza maila, bidezko merkataritzari eta kontsumo arduratsuari buruzko sentsibilizazio ahaleginak, herritarren aldetiko udal erabakien gardentasunaren pertzepzioa, etab.).

Adierazle kualitatiboek istorioak kontatzen dituzte eta "neurtu" daitezke, adibidez, langile publikoekin, ordezkarri politikoekin eta/edo tokiko beste eragile batzuekin antolatutako lan saio batean zehar.

6. Helmugak gutxienez ere **sexuaren, adinaren eta desgaitasunaren arabera desagregatuta** daudela bermatzea, eta tokiko testuinguruan garrantzitsuak diren gainerako ezaugarrien arabera ere, adibidez, migrazio egoera (17.18 GJH).
7. Dagokien departamentu/sailekin batera, helmuga hauek lortzeko **behar diren giza eta finantza baliabideak** badirela egiaztatzea.
8. Betetze maila neurtzeko identifikatutako **informazio iturriak erabilgarri** daudela egiaztatzea.
9. Diagnostiko fasean bildutako informazio kuantitatiboari eta hautatutako helmuga eta adierazleei dagokienez, **oinarri lerro** bat ezartzea. Adierazleak zeroan jartze hori lagungarria izango da egindako aurrerapenak neurtzeko eta kudeaketa hobetzeko behar diren erabakiak hartzeko.

Jarraian ikus daitezke helmuga eta adierazleen lokalizaziorako adibide posible bat.



7 Energia irigarria eta ez kutsagarria

Nazioarteko xede moldagarriak	2019 oinarri lerroa	2024 xedea	2030 xedea	Adierazle egokitua	Unitatea	Iturria	Datuaren data	Alderaketa balorazioa	2019-2030 etena
7. helburua. Energia eskuragarria, fidagarria, jasagarria eta modernoa bermatzea guztiontzat									
7.2. Hemendik 2030 era, energia berriztagarriaren proportzioa nabarmen areagotzea energia iturrien multzoan.	51,57	65	85	Energia berriztagarriaren kontsumoaren proportzioa guztizko energia kontsumoarekiko, Fuenlabradan.	%	REDS prestaketa, Energia Berriztagarrien eta Azterlanen Zuzendariordetza Nagusiaren PRETOR sistemako datuekin.	2016	Ona (62,86 eta 25,97 artean, 100 probintziaren batezbestekoa)	33,43

Iturria: Estudio sobre los ODS en Fuenlabrada. Social Gob.

KONTUAN IZAN HONAKOEN KASUAN:...



UDALERRI TXIKIENAK ETA/EDO LANDA EREMUETAKOAK: estatistikan adituak diren langileak eta datuen biketa sistematikoa ahalbidetzen duten sistema informatikoak ez badaude, baliteke adierazle kualitatiboek hobe islatzea nola laguntzen ari diren gauzatutako programek eta jarduketek lurraldeko pertsonen biritza hobetzen.



UHARTEETAKO LURRALDEAK: baliteke beharrezkoa izatea adierazle gehigarriak sartzea lurralde hauetako inguruabar eta behar espezifikoak hobe islatzeko eta gainbegiratzeko (adib. biodibertsitatea, jarduera turistikoa espazio natural babestuetan, turismo jasagarria, etab.).



ZER ESKAINI DEZAKETE BESTE ERAGILE BATZUEK?

■ Unibertsitateek, ikerketa zentroek eta GKEek eta sektore pribatuak ere laguntza eman dezakete datuak bildu, monitorizatu eta aztertze lanetan. Eragile horietako askok, esaterako, sektore pribatuak, badituzte ere euren GJHen adierazle sektorialak.

■ GJHen **jarraipenerako behatokiak** topaketarako, trukerako eta analisi objektibo, zabal, anitz eta gardenak egiteko espazioak dira, tokiko gobernuei sostengua emanda GJHen ezarpenean.



ERREMINTA KUTXA

- Garapen Jasangarriko Helburuetarako munduko adierazleen esparrua eta 2030 Agendaren garapen jasangarrirako helmugak.
- Estatistika Institutu Nazionala (INE) - Garapen jasangarrirako 2030 Agendaren adierazleen programa : INEren zein beste iturri ofizial batzuen informazioa barne du, pixkanaka bilduz joan dena.
- *SDG Localization and Implementation*.
- UNCTAD eta PNUMAK 12.6.1 GJHrako definitutako taxonomia, *SDG Core Indicators*, enpresek GJHen inguruko jarduera jakinarazteko.
- *"El sector privado ante los ODS. Guía práctica para la acción"* gidak hainbat adierazle eskaintzen ditu enpresa munduarentzat garrantzitsuak diren GJHetarako.
- *"Ciudades del Aprendizaje y los ODS: una Guía de Acción"* gidan hainbat adibide daude Ikaskuntzaren Hirien Funtsezko Ezaugarrien helmuga eta adierazleen eta GJHen adierazleen artean dauden lotura ugariak agertzen dituztenak.
- *CGLU txostena*, GJHen helburu eta adierazleen lokalizazioak duen garrantziari buruzkoa. Barne ditu lokalizatorako proposamenak. Halaber, PNUD momentu honetan definitzen ari da lokalizatorako metodologia bat ere.



BESTE ESPERIENTZIA BATZUEN IKASKUNTZAK

- Espainiako Hiri Agendak helburu bakoitzari lotutako hainbat jarraipen eta ebaluazio adierazle jasotzen ditu eta batera-garritasun eta koordinazio handienak bilatzen ditu toki erakundeen abian dituzten estrategia eta proiektuetan erabilitako adierazleekin. Adierazle hauek 11. GJHaren adierazleetara egokituta eta lotuta daude.
- *"Tokiko 2030 Agenda. Nola heldu garapen jasangarriaren helburuei tokiko eremutik"* gidaren II. eranskinean **euskal udalerrietarako 80 erreferentziako helmuga** aurki daitezke.
- **Flandriako (Belgika) Hiri eta Udalerrien Elkarteak** (VVSG) *"Local indicators for the 2030 Agenda (Sustainable Development Goals)"* gida prestatu du 2030 tokiko planen esparru barruan adierazleak identifikatzen laguntzeko.



HURRENGO URRATSA EMAN AURRETIK GOGORATU...

- Funtsezkoa da **lurraldeari buruzko informazio eta datuen bilketa sistematikoa indartzea** adierazle sistema fidagarri eta sendo bat garatu ahal izateko.
- Adierazleak urtero eguneratzeko gaitasun handiagoa duten udalerriek **urteko helmugak** ezar ditzakete, proposatutako helburuak epe laburragoan egiaztatu ahal izateko. Kasu horretan, helmuga lortzeko bidean beharrezkoak diren zuzenketak egiteko aukera izango dute.
- Ezinbestekoa da, ahal den neurrian, tokiko helmugak herritarrentzat ulergarriak izatea, hartara **kontuak emateko prozesua erraztuta eta hezkuntza eginkizuna beteta**, eginkizun hori beharrezkoa baita jasangarritasunerako aldaketa kulturala lortzeko eta pobreziaren, berdintasunik ezaren eta bereizkeriaren jatorriak eraldatzeko.

3.4. POLITIKA OSAGARRIEN ETA EKINTZEN DEFINIZIOA PROPOSATUTAKO TOKIKO HELMUGAK BETETZEKO



ZEIN DA HELBURUA?

GJHen eta aurreko urratsetan lehenetsitako tokiko helmuguen arabera, jorratu beharreko politikak, gauzatuko diren ekintzak eta horietarako behar diren bitartekoak identifikatzeko ordua heldu da.

Zer egin? Zer eta nortzuk geratzen ari dira atzean? Zein arlo garrantzitsu ez dira jorratu udal kudeaketan? Nola eta noiz jorratu horiek? Nortzuk izango dira sail/pertsona arduradunak?

Nola koordinatu gainerako sailekin eta zerikusia duten gainerako tokiko eragileekin? Eta zenbat bitarteko behar dira?

Lokalizazio planak lehendik dauden politikak har ditzake abiapuntu, betiere 2030 Agendarekin behar bezala lerrokatuta badaude. Hala ere, abian diren politikak lerrokatzeko horien norabidea aldatu behar izatea gerta liteke eta politika/jarduketa berriak definitu behar izatea ere gerta liteke, orain arte jorratu ez diren edo behar bezala jorratu ez diren erronka edo lehen-tasunei erantzuteko, barne hartuta "zaurgarritasun eta bazterkeria arrisku handiagoa duten" pertsonen zuzendutako arreta.



NIRE ERAKUNDETIK EGIN BEHAR DIREN LANAK

1. Lantaldeari edo prozesuan parte hartzen dute sail/departamentu/foku puntu guztiei deialdia egitea.

Zeharkako alderdien ardura duten sail/departamentu/foku puntuen parte hartze aktiboa lortzea.

2. Ordezkarri politiko/instituzionalak ez badaude lantaldearen barruan, **ezinbestekoa da** ezarriko diren politika eta ekintzen inguruko **analisiari eta erabakietan parte har dezaten.**

3. Diagnostiko txostena berreskuratzea (3.1 urratsa), bereziki **etenen/erronken identifikazioari** eta gaitasunen analisiari dagokienez.

4. Diagnostikoa abiapuntu hartuta, dagoeneko egikaritzen ari diren planak eta proiektuak identifikatzea, egindako guztia GJHen ikuspegitik berrikusteko eta beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko.

5. Ezarritako tokiko helmugak lortzeko eta identifikatutako etenak edo erronkak gainditzeko behar diren politika, programa edo ekintza osagarriak identifikatu eta definitzea.

6. Ekintza hauek ezartzeko gaikuntza programa espezifiko bat behar den eta/edo **behar adina giza baliabide eta aurrekontu baliabide** dauden egiaztatzea.

7. Zeharkako gaien sail/departamentu/foku puntuekin koordinatzea hauek bermatzeko:

- Ekintzak lerrokatuta daude giza eskubideen, genero berdintasunaren, desgaitasunaren, haurren eskubideen, ingurumenaren eta abarren inguruko tokiko/eskualdeko politikekin.
- Helburuek eta jarduerak, eta baita ekintza bakoitzeko adierazleek ere, eskubideen, generoaren, haurtzaroren, ekitatearen eta jasangarritasunaren planteamenduak barne dituzte.

8. Sinergiak ezartzeko egokiak diren eskualde eta/edo estatu mailako politika eta/edo programak identifikatzea eta, egoia bada, probintzia eta estatuko gobernuekin akordioetara iristea bitarteko partekatuekin jarduketak garatu ahal izateko.

KONTUAN IZAN HONAKOEN KASUAN:...

UDALERRI TXIKIENAK ETA/EDO LANDA EREMUETAKOAK:

- Gaitasun teknikoak eta ekonomikoak mugatuagoak izan daitezke, beraz, ezinbestekoa da dagoeneko abian dagoen guztia abiapuntu gisa hartzea..
- Beste udalerrri batzuekin koordinatzea eta sinergiak ezartzea ezinbestekoa da programak batera garatu ahal izateko.
- Sareetako parte hartzearekin gaitasun propioak indartu egiten dira, esperientzien eta ezagueren trukeari esker.

ZER ESKAINI DEZAKETE BESTE ERAGILE BATZUEK?

- Ekintzen identifikazioan eta definizioan laguntzea eta parte hartzea, ikuspegia, ezaguerak eta dedikazioa eskainita. **Giza baliabideen, genero berdintasunaren edo kolektibo zaurgarrien** (adib. migratzaileak, haurrak, desgaitasuna duten pertsonak...) **moduko arloekin lotutako tokiko erakundeak** ekintzen ezarpenaren alderdi guztien diseinuan **parte hartzen dutela** bermatzea.
- GJHetan inpaktua duten **aliantza** ekimen eta proiektu zehatzak aztertzea.

ERREMINTA KUTXA

3.5.1 koadroa ekintzak definitzeko:

GJH LEHENETSIA(K)	TOKIKO HELMUGA	EKINTZA(K)	ARDURADUNA	BALGIZA		EGIKARIT ZE EPEA
				EKONOMIKOAK	BALIABIDEAK	

- Euskal Autonomia Erkidegoko "Tokiko 2030 Agenda. Nola heldu Garapen Jasangarriaren Helburuei tokiko eremutik" gidan oso ariketa interesgarria proposatzen da ildo estrategikoak, jarduketa programak eta ekintzak idazteko. Halaber, gida horren III. eranskinean, GJH bakoitzaren fitxa ageri da, GJH bakoitzari laguntzen dioten ekintzen zerrenda batekin, tokiko gobernuen eskumen sektorialen arabera.

BESTE ESPERIENTZIA BATZUEN IKASKUNTZAK

- Menorca, uharte pilotua Hiri Agendarekiko lerrokaduran.

HURRENGO URRATSA EMAN AURRETIK GOGORATU...

- Ezinbestekoa da lurraldeko eragile guztiek parte har dezaten **proposamen eta irtenbideen definizioan, hauen inplikazioa eta konpromisoa bilatuta**.

3.5. ZEHARKAKO ALDERDIEN TXERTAKETAREN BERRIKUSKETA



ZEIN DA HELBURUA?

2030 Agenda pertsoneri, planetari eta oparotasunari aukerak eskaintzen dizkien agenda bat da. Baina, horretarako, berdintasunik ezak desagerraraztea, genero berdintasuna, gure baliabide naturalen babesa eta garapen ekonomiko inklusiboagoa eta ingurumenarekiko arduratsuagoa txertatu egin behar dira tokiko gobernuek sozietate zibilarekin, hezkuntza zentro eta unibertsitateekin edo enprekin batera gauzatzen eta sustatzen dituzten jarduketara guztietan.

Begirada integral hori ez da bakarrik zeharkako atal bat lokalizazio plana prestatzeko, GJHak uneko lokalizazio tresnekin eguneratzeko edo programa berriak diseinatzeko. Zeharkako alderdien txertaketa **urrunago doa**. Genero ikuspegia, giza eskubideak, irisgarritasuna, desberdinkeriaaren murrizketa edo ingurumenaren babesa **GJH guztietara iritsi behar dira** eta GJHak lokalizatu eta ezartzeko prozesuan zein hauen jarraipenean egiten diren **hausnarketa, eztabaida eta urrats guztietan kontuan hartu beharko dira. Honela bakarrik lortuko da inor atzean ez uztea.**

Jarriko ditugu betaurrekoak?



NIRE ERAKUNDETIK EGIN BEHAR DIREN LANAK

- 1. Zeharkako gaien ardura duten departamentuek/sailek/pertsonek lokalizazio prozesuan parte hartze aktiboa izan dezaten bermatzea.** Hauen ekarpena eta begirada ezinbestekoak dira tokiko diagnostikoaren hasieratik bertatik.
- 2. Genero berdintasunaren, desgaitasunaren, migrazioaren, haurtzaroaren edo ingurumenaren ardura duen sailaren erantzukizun eskusiboa ez denez, garrantzitsua da langile guztien sentsibilizazioa eta prestakuntza** lortzea zeharkako planteamendu horiek sail bakoitzeko eguneroko lanetan txertatzeko (prestatuntza planean txertatzea prestatuntza ekintza espezifikoaren bidez eta bestelako ikastaro eta lantegietan zeharkako moduan txertatzea).
- 3. Emandako urrats eta prestatutako dokumentu bakoitzean** zeharkako alderdiak behar bezala txertatu direla modu sistematikoan **egiaztatzea.**



ZER ESKAINI DEZAKETE BESTE ERAGILE BATZUEK?

Laguntza eta aholkularitza aditua sozietate zibileko eta mundu akademikoko erakundeen aldetik, ezaguera sakona baitute zeharkako alderdien inguruko planteamenduen, tresnen eta estrategien arloan.



ERREMINTA KUTXA

Prozesu osoan zehar kontuan hartu behar diren gaiak/hausnarketak

- Zeharkako sailak/departamentuak/foku puntuak (genero berdintasuna, desgaitasuna, haurtzaroa, migrazioaileen arreta, giza baliabideak, ingurumena, jasagarritasuna...) eratutako lantaldeen barne daude?

- Giza baliabideetan eta zeharkako alderdietan adituak diren sozietate zibileko erakundeek inplikazio aktiboa dute urratsetako bakoitzean?
- Tokiko gobernuetako langileek sentsibilizazio eta prestakuntza egokiak dituzte?
- Diagnostikoan barne hartu al da lurraldeko gizon eta emakumeen arazoan, interesen eta beharren analisi berezia? Sexuaren eta adinaren arabera desagregatutako daturik bada? Behar bezala aztertu dira desgaitasuna duten pertsonen, migrazioen eta abarren egoera eta beharrak? Identifikatu al dira haurren eskubideen urraketa eta haurren behar nagusiak?
- Lehenetsitako GJHei dagokienez aurreikusi diren politikek eta jarduketek behar bezala txertatuta dituzte zeharkako alderdi hauek?
- Lehenetsitako adierazleen artean ba al da genero adierazlerik eta sexuaren, adinaren, desgaitasunaren edo jatorriaren arabera desagregatutako adierazlerik?
- Genero berdintasuna kontuan hartzen duen aurrekontu prozesu bat gauzatu da?
- Sentsibilizazio eta heziketa kanpainak abian al daude gai hauek espezifikoki lantzeko? Gainerako kanpaina eta jardueretan, irudiak eta hizkera inklusiboak eta generoarekiko kontzienteak dira?
- Tokiko gobernuak kontuan hartzen ditu ingurumen jasangarritasunaren alderdiak eguneroko kudeaketan (energia efizientzia, bidezko eta hurbileko merkataritza, gaikako bilketa eta birziklatzea, etab.)?
- Toki erakundeak berdintasun politikarik ba al du? Bizitza pertsonalaren eta lanaren arteko bateragarritasuna sustatzen da?
- Zerbitzuak eta produktuak kontratatzeko prozesuek kontuan hartzen dituzte ingurumen jasangarritasunari eta gizarte inpaktuari buruzko irizpideak?



HURRENGO URRATSA EMAN AURRETIK GOGORATU...

- Ezin da garapen jasangarri eta inklusibo bat lortu gai hauek ez badira sistematikoki kontuan hartzen urratsetako bakoitzean.
- Funtsezkoa da zeharkako planteamendu hauei ikusgarritasuna ematea diskurtsoetan, dokumentuetan eta materialetan.

2030 Agendari buruzko gako hitz batzuk...

- | | | |
|--------------------------------------|--------------------------|---|
| ✓ Palanka politikak. | ✓ Balantze hirukoitza. | ✓ Desberdinkerien eta bereizkerien aurkako borroka. |
| ✓ Inklusiboa. | ✓ Gizarte baketsua. | ✓ Aliantzak. |
| ✓ Erresilientea. | ✓ Bizimodu osasuntsua. | ✓ Giza baliabideak. |
| ✓ Kontsumo eta ekoizpen arduratsuak. | ✓ Zaugarritasuna. | ✓ Pertsonak. |
| ✓ Genero berdintasuna. | ✓ Lurreko ekosistemak. | ✓ Politiken koherentzia. |
| ✓ Energia eskuragarria. | ✓ Elikadura jasangarria. | ✓ Finantziarioa. |
| ✓ Inpaktu handiko berrikuntza. | ✓ Partaidetza. | |

3.6. TOKIKO GARAPENERAKO LANKIDETZA

17. GJHak gogorarazten digu 2030 Agenda errealitate bihurtzeko nazioarteko elkartasunarekiko eta lankidetzarekiko konpromiso irmoa behar dela. Horretarako, laguntza eman behar zaie baliabide ekonomiko eta gaitasun tekniko gutxiago dituzten herrialdeei, hartara **persona guztientzat bidezkoa den aurrerapena** sortuta, edonon bizi direla ere.

Tokiko garapenerako lankidetzak, **nazioarteko erantzukizun eta elkartasun adierazpena izateaz gain, tresna garrantzitsua da 2030 Agenda beste herrialde batzuetara eramateko**, hauen bitartez, hain zuzen ere:

- Baliabideen, ezagueren, jardunbide egokien, baliabide teknologikoen eta berrikuntzaren truke horizontala, herrialde horietako tokiko gobernuen eta eskualdeen **gaitasun instituzionalak eta operatiboak indartzeko** elkar ikaskuntza sortuta.
- Deszentralizazio politikoko prozesuetan laguntza eta sostengua ematea, **partaidetzarako espazioak sortuta**, lurraldeko eragile guztiak eta gobernu maila guztiak bateratzeko⁹. Zehazki udal garapenerako lankidetzak dakar beste herrialde batzuetako tokiko eta eskualdeko gobernuarekin batera lan egitea, bai eta gizarte erakundeekin, erakunde filantropikoekin eta sektore pribatuarekin ere, besteak beste.
- Herritarrekiko duen hurbiltasunagatik, nazioarteko erroka eta arazoak eta horiek testuinguru jakinetan dituzten ondorioen inguruko **sentsibilizazioa eta kontzientziaketa**, "hemengo" eta "hango" tokiko errealitatearekiko enpatia sortuta.

Lankidetzak funtsak tokiko gobernuen eta bestelako erakundearen koordinazio eta aliantzarako funtsezko espazioak dira eta ezaguerak, esperientziak eta nazioarteko lankidetzara bideratutako baliabide tekniko eta ekonomikoak koordinatzeko eta partekatzeak aukera ematen dute, tokiko garapena ahalbidetzeko helburuarekin. Garapen jasangarrirako laguntza ofizialaren barruko tokiko garapenerako lankidetzaren zati nagusia elkarrekin ehunari zuzendutako **dirulaguntzen deialdien** bidez bideratzen bada ere, **bestelako lankidetzak** ere potentzial handia dute, hala nola **zuzeneko lankidetzak, hegoalde-hegoalde lankidetzak eta lankidetzak triangularrak**.

⁹ 2012an, lan duinaren agendaren lokalizazioaren esparruan, LANEK, CGLUK eta Maputoko hiriak ezaguera truke bat antolatu zuten ekonomia informalearen inguruan, bereziki saltzaile ibiltarien baldintzen inguruan. Gonbidatu nagusiak izan ziren Durban, Belo Horizonte eta Porto Alegreko hiriak, Mozambikeko beste hiri batzuk, nazioarteko erakundeak, GKEak eta sektore pribatua. Ezaguera truke horren ildotik ibilbide orri bat ezarri zen tokiko gobernuen arteko hegoalde-hegoalde lankidetzarako eta lankidetzak triangularrerako, eta ibilbide orriaren inguruko hainbat bisita tekniko eta gaikuntza saio antolatu ziren 2013an. Durban hiriak bere esperientzia helarazi zien saltzaile informalei eta udaleko funtzionarioei. Aldiz, Belo Horizontek tokiko ekonomiari eta hirigintzari zuzendutako laguntzan zuen esperientzia partekatu zuen. Harez geroztik, parekoen arteko beste ikaskuntza proiektu batzuk garatu dira Bartzelonan, Lleidan, Chefchauenen, Paston eta Borgoun (GJHak lokalizatze gida: ezarpena eta monitorizazioa, Global Task Force).

LOKALIZAZIOAN ETA EZARPENEAN LAGUNTZEN DUTEN PROZESUAK ETA MEKANISMOAK

Halaber, hainbat mekanismo eta prozesu integratzen dira, fase bakoitza zeharkako moduan indartzeko eta lokalizazio prozesua bera ikaskuntzarako, gaitasunak sortzeko eta publikoak ez diren tokiko eragileekin (esaterako, sozietate zibila, sektore pribatua eta/edo esparru akademikoa) aliantzak ezartzeko aukera izan dadin.

PROZESUAK



P.1. PARTAIDETZA, ELKARRIZKETA ETA ALIANTZA PROZESUA

“Ez utzi inor atzean”-leloarekin batera “Ez utzi toki bakar bat ere atzean” leloa ere gogoratu behar da. Azken honek planetako azken bazterrean iristeko nazioarteko konpromisoa adierazten du. Hori bakarrik lor daiteke eragile guztiek politika publikoen lehentasunak eta baliabide esleipenak definitzeko prozesuan ahots propioarekin jarduteko bideak badituzte. (A. Ayuso, CIDOB 2017).

Gida honen hasieran ikusitako moduan, 2030 Agenda definitu eta ezartzeko prozesuaren ezaugarri nagusienetako bat da **“behetik gora”** eraiki zela, Milurtekoko Garapen Helburuenak baino askoz ere partaidetza eta inklusio maila handiagoak izan zituen kontsulta prozesu baten bidez hain zuzen ere.

Partaidetzaren eta bereganatze demokratikoaren printzipioa funtsezkoa da GJHak lokalizatu eta tokiko mailan ezartzeko prozesuan, **tokiko esparruan edo komunitatean dauden beharrak, interesak eta lehentasunak identifikatzeko** aukera ematen baitu. Bestalde, **tokiko gobernuak**, herritarrengandik hurbil egonda, leku hobean daude **modu aktiboan entzuteko** eta GJHen politiken inguruko lehentasunei buruzko **adostasunak sortzeko**, hartara benetan eraldatzaileak diren narratiba berriak eta aldaketa prozesuak kolektiboki eraikiz, eta herritarren politika eta planekiko atxikipena indartuz.

10. Kontsultak antolatu ziren estatu eta eskualde mailan, hainbat gairen inguruan, eta baita lineako eztabaidak ere, hainbat jatorri desberdinetako interesdunen ekarpenekin, hala nola gobernuak, sozietate zibila, sektore pribatua, akademia, think tank taldeak eta mundu osoko komunikabideak. Kontsulta prozesu horren barne sortu zen ere mundu osoko sare birtual interaktibo bat: The World We Want (<http://www.worldwewant2030.org/>).

Eragile anitzen arteko aliantzak oso egokiak dira arazo ekonomiko, sozial eta ingurumen arazo jakinei aurre egiteko, baliabideak, ezaguerak eta trebeziak konbinatzeko aukera ematen baitute. Zenbaitetan, lan egiteko modu hau ezezaguna izaten da, askotariko eragileen arteko lankidetzaz ezartzea dakarrelako, baina espazio hauek oso potentzial handia dute ikaskuntzarako eta sinergia positiboak sortzeko.

Tokiko agenda honen "behetik gorako" eraikuntzan eta finkapenean aurrera egiteak ez du esan nahi indarrean dauden agendak alde batera utziko direnik (21 Agenda, Hiri Agenda, etab.), baizik eta horien **jarraipen eraldatzailea eta osagarria** sustatuko dela.

Noiz behar da partaidetza lokalizazio prozesuan?

Hasieratik etengabeko prozesua izan behar da eta ez herritar guztiei eta/edo herritarren ordezkari diren sozietate zibileko eta sektore pribatuko erakundeei zuzendutako aldi behingo kontsultak eta bilerak, gorago azalduko zenbait urratsetan. Herritarrek plan edo proiektu baten plangintza fasean parte hartzen dutenean, prozesuaren bereganatze handiagoa gertatzen da eta horrek ondorio positiboak ditu ezarpen eta jarraipen faseetan parte hartzeko interesean.

Parte hartzea **behar bezala aurreikusi eta dokumentatu** behar da (informazioaren eta proposamenen sozializazioa bileraren aurretik), lokalizazio prozesuaren alderdi zehatzak eta jarduketak eta espezializazio arloarekin eta eragile bakoitzaren balio erantsiarekin zerikusia duten gai espezifikoak jorratzen dituzten agendekin.

Aberastasun handiagoa eta eragile bakoitzaren diskurtso eta ideia berriekiko irekitasuna sustatzeko helburuarekin, gomendagarria izan daiteke **partaidetza prozesuen kudeaketan aditua den kanpoko laguntza** bat izatea, trukea eta adostasunen sorrera modu konstruktiboan bultzatzeko.

Oso garrantzitsua da **egitura instituzional iraunkorrak izatea**, ahal bada izaera misto **publiko-pribatukoak** (adib. lantaldeak, batzorde mistoak, elkarrizketa mahaiak, etab.) denborarekin lurraldeko eragile guztien gaitasunak indartzen eta konfiantzan, sostenguan eta lankidetzan oinarritutako harreman sendoak ezartzen laguntzeko.

Hala ere, zenbaitetan, egokia izan liteke eragile bakoitzarekin aurretiazko banakako bilera egitea eta, ondoren, eragile guztiekin bilera/lantegi bat antolatzea, modu horretan truke handiagoa eta adostasun sorrera oparagoa sustatuta.

Zehazki, kontsulta eta partaidetza espazioen antolamenduak **persona guztien kalitateko partaidetza inklusibo ahalbidetu** behar du, arreta berezia jarrita emakumeei (adib. bizitza pertsonala eta lana bateragarri egiten dituzten ordutegiak, haurtzaindegi zerbitzua, etab.), desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasunari (zeinu hizkuntza, braillea, oztopo arkitektonikoak, etab.) edo lurraldea dauden kulturen aniztasunari.

Aipagarriak dira ere antolatuta ez dagoen sozietate zibila tartean sartzeko ekimenak, Consell de Menorcaren modukoak, non sarrera eman zaien antolatuta ez dauden herritarrei zozketa zibikoaren mekanismoari esker.

Zeintzuk dira partaidetza mekanismoak?

Prozesuko kontsulta puntualaz haratago, partaidetzak inklusiboa eta kalitatekoa izan behar du hasieratik, etengabeko prozesu moduan. Lokalizazio planaren fasearen arabera, hainbat eragile anitzeko partaidetza mekanismo aukera daitezke (espazio berriak sortuta edo daudenak indartuta), bai aurrez aurrekoak zein birtualak ere, teknologia berriei esker:

1. FASEA OINARRIAK EZARTZEA

- Hasierako sentsibilizatorako mintegi lantegia GJHen garrantziaren inguruan, hiriko/herriko hainbat auzotan garatuko dena.
- Elkarrizketak eragile ekonomiko eta sozial garrantzitsuekin (zehazki, sozietate zibileko erakundeak, unibertsitateetako eta ikastetxeetako ordezkariak, enpresa elkarteak eta sindikatuak).
- Topaketa espezifikokoak alderdi eta buruzagi politikoekin (begirada politikoa).
- "Ideia jasa" hainbat arlotako teknikari eta espezialistekin (begirada teknikoa alor sektorialetik eta zeharkako politikek ikuspuntutik).
- Gai kritikoak eta herritarren interesak identifikatzeko lantegi irekiak.
- Herritarren ordezkartzarako organo bat sortzea planaren egitura iraunkorraren barruan, herritarrek euren kezka eta proposamenak etengabe helarazteko aukera ematen duten kanalekin (adib. linea berdea aplikazioa).
- Eragile guztiei zuzendutako jardunaldia/lantegia, lehen informazio urrats moduan, baina prozesuaren gardentasuna areagotzeko ere, eta herritarrek kontuak modu konstruktibo eta egokiagoan emateko lehen **urrats moduan**.

2. FASEA TOKIKO DIAGNOSTIKOA

- Langile tekniko espezialistei zuzendutako deialdia, lehenetsuna emanda tokiko ekarpen eta giza baliabideei eta eskualdeko unibertsitateei/talde tekniko espezializatuari, kanpoko analisia egiteko.
- Eztabaida taldeak antolatzea aldagaiak eta lehenetsunak aztertzeko.
- Inkesta espezifikokoak abiaraztea (baita webgune instituzionalaren edo aplikazioen bidez ere, besteak beste).
- Diagnostikoa aurkezteko eta baliozkotzeko lantegi irekia.

3. FASEA LOKALIZAZIO PLANAREN DEFINIZIOA

- Kontsulta sektorialak.
- Ildo estrategikoak, helburuak eta proiektuak aurkezteko topaketa irekia eta leheneste jarduerari buruzko eztabaida.
- Tokiko komunitateko erakundeak eta kideak partaidetza aurrekontuaren eztabaidarako batzordeetan edo tokiko kudeaketarako mahaietan sartzea partaidetzako eta adostutako proposamenak sustatzeko (adib. enplegu inklusiboa, hondakinen eta lurraldeko baliabide naturalen kudeaketa, etab.).

4. FASEA EZARPENA ETA MONITORIZAZIOA

- Sektore arteko batzordeak plana eta lehenetsitako jarduketak egikaritzeko eta jarraitzeko.
- Partaidetzako topaketak eta topaketa sektorialak aurrerapenak, ebaluazioak eta berrikusketak aurkezteko, lurraldeko eragile guztien partaidetzarekin.

Ekimen berritzaileago batzuk

2030 AGENDA KO GJH-AK GARATZEKO TOKI ERAKUNDEEN SAREA

FEMP, 2030 Agendari bultzada emateko funtsezko palanka erakundea den heinean, tokiko gobernuen arteko jarduketak koordinatzeko espazio garrantzitsu honen buru da, 2030 Agendaren ezarpenean emaitza hobekak lortzeko helburuarekin, horretarako GJHak tokiko mailan egokituta eta garatuta. Zehazki, hauek dira Sarearen helburuak:

- 2030 Agendako GJHen inguruko ezaguera, sentsibilizazioa eta ezarpena sustatzea Espainiako toki erakundeetan, instituzioen indartzeari eta tokiko eragileen inplikazioari esker.
- Tokiko agintariak Espainiako 2030 Agendaren garapenean duten eginkizun estrategikoa indartu eta legitimatzea, eragin politiko handiena lortze aldera, horretarako sareko lana eta kohesio politikak tokiko mailan bultzatzen dituzten aliantzen bilaketa sustatuta, maila eta eragile anitzeko egitura bermatzeaz gain, 2030 Agenda udal esparruan eraiki eta ezarri ahal izateko.
- Sareko kide diren tokiko gobernuen artean esperientziak trukatzeko foro gisa jardutea.
- Kideei aholkularitza eta laguntza zerbitzuak eskaintzea, teknikarien prestakuntzarekin eta toki erakundeetako agintarien arteko lankidetzarekin batera, 2030 Agendako GJHak Espainian lokalizatzeko ahaleginean.
- Tokiko gobernuekin batera lan egitea COVID-19aren krisiaren ondorengo jarduketa ildo zehatzetan, lurraldean 2030 Agendarekin lerrokatutako erantzuna emateko helburuarekin. Zehazki, 2030 Agenda GJH Batzordetik GJHen lokalizazioa egiten ari dira COVID-19aren osasun krisi eta krisi sozial eta ekonomikoari erantzuteko FEMPko lan batzorde guztiek onartu dituzten ezohiko neurrietan.

Sarearekin nola bat egiten jakiteko eta funtzionamendua ezagutzeko:

<http://www.femp.es/comunicacion/noticias/ods-de-la-agenda-2030-sin-los-municipios-no-sera-posible>

Partaidetzako aurrekontuak

Partaidetzarako eta sozietate zibilaren eta toki erakundearen arteko baterako kudeaketarako tresna bat dira. Partaidetzako aurrekontuen bidez oso espazio aberasgarria sortzen da eragile guztiekin eta horrek tokiko agenda erkide eta adostu bat eraiki eta ezatzeko aukera ematen du. Topaketa eta elkarrizketarako espazio honek erabaki publikoak hartzeko prozesuan eragiteko eta parte hartzeko aukera eskaintzen du, funts publikoen aplikazioari buruzko iritzia emateko eta horien erabileraren inguruko kontu ematea kontrolatzeko.

Lugoko Diputazioa izan zen 2015. urtean aurrekontuak partaidetzako aurrekontu moduan prestatu zituen Espainiako lehen administrazio probintziala. Haren atzetik etorri ziren, adibide helburuetarako eta zerrenda zehatza egiteko asmorik gabe, beste asko Andaluzian (Sevilla, Malaga o Cordoba), Katalunian (Bartzelona, Santa Cristina de Aro, Figaró-Montmany, Rubí, Castellar del Vallès, Sabadell, Sant Boi de Llobregat edo Vilafranca del Penedés), Euskal Autonomia Erkidegoan (Donostia, Gasteiz, Astigarriaga...) Balear uharteetan (Colonia de San Pedro, Artá udalerrian), Murtzian (Cartagena) edo Valentiako Erkidegoan (Valentzia).

Esaterako, Consell Insular de Menorca erakundearen kasuan, 2018ko aurrekontuaren zati bat erreserbatu da uhartee-tako lehenengo partaidetzako aurrekontuak abian jartzeko helburuarekin. **Prozesu honi buruz gehiago jakin nahi duzu?**

E-demokrazia

Teknologia berriei esker, herritarren eta politika publikoak diseinatu eta kudeatzearen ardura duten pertsonen arteko elkarrizketa eta trukea areagotzen dira.

Esaterako, 2015. urtean, Madrilako Udalak kode irekiko plataforma digital bat jarri zuen abian, “Decide Madrid” , munduko beste hiriburu, hiri eta eskualde nagusietan erabilitako Consul plataformaren esperientzia abiapuntu hartuta. Plataforma honen bidez herritarrek proposamenak partekatzen dituzte, eztabaidetan parte hartzen dute eta tokiko politiken prestaketan laguntzen dute.

Halaber, plataformaren eginkizunen esparruan, aurrekontuen partaidetza ahalbidetzeko pentsatu den atal bat ere bada, herritarrei proposamen zehatzak eztabaidatzeko, bozkatzeko eta finantzatzeko aukera ematen diena.

Inklusio digitala eta herritarren plataforma hauen bidezko esku hartzea dira oraindik ere e-demokraziako proiektuen erronka nagusia. Gainera, prozesua baliozkotzeko behar den partaidetza indizearen gaia ere garrantzitsua da. Hala ere, gobernuak hainbat bide dituzte herritarrek honelako ekimenetan parte har dezaten lortzeko. Esaterako, zenbait toki erakundetan plataformen erabilera gaiari buruzko sentsibilizazioa areagotzeko bestelako komunikazio kanalekin konbinatzen ari dira (gizarte sareak, komunikabideak). Honela, pertsona guztiek dute prozesuaren berri eta parte hartzeko aukera.

P.2. LOKALIZAZIO PROZESUA AZPIMARRATZEKO KOMUNIKAZIOA

Komunikazio prozesuak berebiziko garrantzia dauka **eragileei eta herritarrei aurrerapenen berri emateko eta hauen inplikazioa eta parte hartzea lortzeko**. 2030 Agenda ezagutzera emateaz gain, etengabeko komunikazio prozesuak herritarrak jakinaren gainean mantendu behar ditu eta eraikuntza kolektiboko prozesuan parte hartzea ahalbidetu behar du. Bestalde, komunikazioak eginkizun garrantzitsua du ere GJHen eta eguneroko errealitatearen arteko konexioa ezagutzera emateko. Honela, komunikazio estrategia egoki bat izatea ezinbestekoa da lokalizazio prozesuan zehar **inklusioa, gardentasuna, kontzientziarazioa eta gizarte osoaren inplikazio aktiboagoa** bermatzeko.

Herritarrei egindako programen eta jarduketan, lortutako emaitza progresiboen, prozesuko ikaskuntzen edo erabilitako giza baliabide eta baliabide teknikoaren berri emateko modua zehatza, argia eta egokia izan beharko da, kolektibo hartzaileen arabera.

“Guía para la implementación de los ODS en el ámbito local de Andalucía” gidan azaltzen den moduan, **komunikazio planak** alderdi hauek jorratu ditzake:

1. Lortu beharreko helburuak.
2. Hartzaileak.
3. Informazio eta publizitate neurriak eta kanalak.
4. Planaren aplikazioaren organo arduradunak.
5. Jarraipen eta ebaluazio sistema.
6. Jarduketan kronograma.
7. Aurrekontua.
8. Material grafikoa eta aplikazio adibideak euskarri eta neurrietan.

Tokiko gobernuaren baitako inplikazioari dagokionez, **arduradun politikoak eta bere kabinetek** zuzendu behar dute **komunikazio politikaren koordinazioa** eta foku puntuak/sailak izango du politika horren ezarpenaren ardura lokalizazio prozesu osoan zehar. Gorago azaldu diren urratsetan bezala, **zerikusia duten departamentu/sail guztien koordinazioa eta inplikazioa** ezinbestekoa da.

Komunikazioari **arreta jarri behar zaio lokalizazio prozesu osoan zehar, eragile guztiengana iristeko askotariko estrategiak erabilia**. Printzipioz komunikazio ekintzak herritar guztiei zuzendutakoak badira ere, funtsezkoa da komunikazio estrategia desberdinak garatzea hartzaileen arabera. Oso garrantzitsua da komunikabideekiko aliantzak sendotzea eta kazetariei zuzendutako jarduerak antolatzea.

KOMUNIKAZIO EKINTZAK	HARTZAILEAK
GJHeh herritarren eguneroko bizitzarekin duten lotura azaltzen duen eta egiten ari diren jarduketei ikusgarritasuna ematen dien kanpaina orokorra ¹¹ .	Ciudadanía Herritarrak oro har
GJHen inguruko sentsibilizaziorako zabalkunde lantegiak.	Eskolak, auzokoien elkarteak edo antzekoak
Webguneetan 2030 Agendari egindako ekarpenak, lokalizazio prozesuaren aurrerapenak eta informazioa eta jardunbide egokiak trukatzeko espazio bat ezagutzera ematea (adib. Bartzelonako Diputazioa edo Almería 2030)	Eskualdeko eta tokiko gobernuak
Prestakuntza programen diseinua eta ekoizpena zabalkunde materialekin, webinarioekin edo lineako mintegiekin.	Aldaketaren eragileak (unibertsitateko biztanleria, GKEetako boluntarioak, irakasleak, etab.)
Gizarte sareetako (Twitter, Instagram, Facebook...) eta tokiko, eskualdeko eta estatuko komunikabideetako argitalpenak, prentsa ohar instituzionalak, neurri edo jarduketa bakoitzak zein GJHehin lotura duen adierazita ¹² .	Herritarrak oro har
Youtubeko kanala GJHen eta lokalizazio jarduketan inguruko prestakuntza bideoekin (adib. Euskal Autonomia Erkidegoa - Euskal Autonomia Erkidegoko Unesco Zentroa)	Gazteak
Herritarren ekintzak argitaratu eta koordinatzeko mugikorreko aplikazioa	Herritarrak oro har
Buletinak, aldian behingo argitalpenak (adib. FEMPren tokiko gutuna), jardueren urteko txostena, etab.	Herritarrak oro har
Prestakuntza lantegiak eta jardunbide egokien hedapena	Herritar helduak
GJHei buruzko ikusizko komunikazioa ¹³ (logotipoa, pina, bannerrak osoko bilkuren artoan, prentsaurrekoak, etab.).	Eragile guztiak
GJHen eta lokalizazio jarduketan inguruko mahai inguruak.	Lurraldeko eragileak
"Champions"-ak izendatzea GJHen inplikazioaren eta zabalkundearen erreferente gisa. ¹⁴	Tokiko gobernuak
Kontzertuak, bizikleta itzuliak, kanpaina autobusak, azokak, kasu arrakastatsuek azaltzeko ekitaldiak, sari banaketak eta lankidetzaren pertsonaia ezagunekin (adib. aktoreak, kirolariak, idazleak edo argazkilarik, besteak beste).	Herritarrak oro har edo gazteen kolektibo jakinak

Iturria: "Guía para la implementación de los ODS en el ámbito local de Andalucía" gidatik egokitua.

11. Kanpaina ugari garatzen ari dira Espainiako hiri eta udalerrri guztietan, baita txikienetan ere, esaterako, Menorcako Sant Lluís herrian, duela gutxi abian jarri dute "Som Sant Lluís. Som Sostenibles" kanpaina: <http://www.ajsantlluis.org/Contingut.aspx?idpub=26888>.

12. Adibidez: Albaceteko Diputazioa (<http://www.dipualba.es/Main/noticia.aspx?id=5691>) edo Cordobako Diputazioa <https://www.dipucordoba.es/teinteresaparticipacion/contenidos/64773/la-diputacion-dedicara-130000-euros-a-la-adquisicion-de-equipos-para-las-agrupaciones-municipales-de-voluntarios-de-proteccion-civil?tab=>.

13. Ikus Nazio Batuen zuzentzarau eta logotipo ofizialen ereduak: <https://www.un.org/sustainabledevelopment/news/communications-material/>

14. Adibide moduan, Nazio Batuetako Idazkari Nagusiak, Ban Ki-Moonek, pertsonaia ezagunak izendatu zituen GJHak 2030. urterako lortzeko laguntza emateko eta konpromisoa sortzeko. 17 txapeldunen artean baziren estatu eta gobernu buruak, enpresa munduko eta politikaren arloko liderrak, akademikoak eta baita beren arloan aparteko lidergoa agertu duten artistak eta kirolariak ere. Ekimenari buruzko informazio gehiago: <https://www.unsdgadvocates.org/>.

Inpaktu positiboa duen eta herritarren artean GJHekiko interesa pizteko gai den komunikazio ekintza bat gauzatzeko zenbait baldintza:

- Mezu argi, irisgarri (zeinu hizkuntzara eta brailera egokitua) eta komunikatzeko erraza helaraztea.
- Partaidetza, hausnarketa eta elkarrizketa sustatzea.
- Herritarren plataformak eta eztabaida foroak bultzatzea, tokiko eta eskualdeko gobernuen sareekin batera¹⁵.
- Tokiko kulturaren botereari onura ateratzea.
- Komunikabideak eta gizarte sareak tartean sartzea, eragin biderkatzailea baitute.
- Milurtekoko Garapen Helburuen prozesuan, 21 Agendan edo **Alkateen Ituna** moduko ekimenetan parte hartu zuten sare eta erakundeek ikaskuntza eta kontaktuei onura ateratzea.
- Genero ikuspegiaren eta dibertsitatearen sarrera bermatzea.

Tokiko gobernuentzat komunikatzeko orduan, oso garrantzitsua da ere **euren ekintza propioak ezagutzera ematea eta informazioa eskaintzea** erakundeak garatutako lokalizazio estrategia errepikatzeke edo harengandik ikasteko interesa duten pertsona edo erakunde guztiei. 16. GJHaren arabera, informazioa eskuragarri izate horrek gardentasun handiagoa bermatzen du, gizartearen bereganatzea eta inplikazio aktiboa ahalbidetzen ditu eta herritarrak eta erakundeak ahalduz dituen eta jakinaren gainean mantentzen dituen kontuak emateko prozesu bat lortzen du.

GARDENTASUNA BERMATZEKO JARDUNBIDE EGOKIEN GOMENDIOAK

1. Informazio eskuragarri eta argia eskaintzen duten atari irekietan lan egitea.
2. GJHen inguruan egiten diren jarduketak erakundearen webgunean argitaratzea eta informazio hori eguneratuta mantentzea.
3. Datuak informazio bilakatzea eta jarraipen eta ebaluazio txostenak ere ezagutzera ematea.
4. Gardentasunaren kultura sustatzen duten jarduerak antolatu eta honelako jardueretan parte hartzea.
5. Informazio kanal dinamikoak ezartzea informazio eskaerei erantzuteko eta informaziorako sarbidea sustatzen duten mekanismoak sortzeko.
6. Langile publikoen eta kanpoko pertsonen artean inkestak egitea gabeziak antzemateko eta zerbitzuak hobetzeko.
7. Ezaguera beste erakunde batzuekin partekatzea eta beren ekintzen azterketa erraztea kontuak emateko orduan.

Iturria: "Guía para la implementación de los ODS en el ámbito local de Andalucía" gidatik hartuta.

Administrazio mailan, Udalen Gardentasun Indizeak eta Diputazioen Gardentasun Indizeak pixkanakako hobekuntza agertzen du azken urteotan.

¹⁵.ELGAK Hirietako Hazkunde Inklusiborako Kanpaina antolatu zuen. Plataforma honi esker, eztabaida globala ahalbidetu da eta iritzi eta ikuspuntu guztiak gobernu nazionalekin eta bestelako bazkide garrantzitsuekin partekatu ahal izan dira. Alkateei irtenbide zehatzak partekatzeko aukera ere eman die, berdintasunik ezari aurre egiteko eta tokiko gobernuak ahalduz dituzten kontuak emateko prozesuaren lider diren heinean.

P.3. GAITASUNEN SORRERA PROZESUA TOKIKO ERAGILE GUZTIENGAN, PUBLIKOAK ZEIN PRIBATUAK.

Tokiko eragile publiko zein pribatuen gaitasunak sortzea oso garrantzitsua da. Jarraian azaldu dira **hainbat arlo jorratzeko zenbait estrategia eta eragile anitzeko eta diziplina arteko lankidetzarako errespetatu behar diren berezitasunak**, lankidetzaz hori ezinbestekoa baita epe luzerako ibilbide orri erkideak ezartzeko, aldaketa elementu erabakigarriak barne dituztenak, hala nola lurraldean GJHak lortzeko berrikuntza eta teknologia egokiak.

GAITASUNAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

Garapen emaitzetarantz zuzendutako tokiko politika publikoen kudeaketarako metodologiaren arloko gaitasunak.

- Lurralde bakoitzean GJHen egoera, GJH bakoitzaren etenak eta inpakturako aukerak eta GJHen arteko elkarrekintzak aztertze helburuarekin hainbat eragilerek inguruko diagnostiko integralak garatzeko gaitasunak.
- Diziplina anitzeko planteamenduetan oinarritutako eta epe luzerako (10-15 urte) esparruetara egokitzeko moduko metodologiak aplikatzeko gaitasunak.
- Aurreikusitako garapen emaitzak denboran zehar jarraitu eta aztertze eta politika eta proiektuen ebaluaziorako tokiko adierazleak eraikitze gaitasunak: datu bulegoak. Teknologien (data mining, machine learning, blockchain) eta iturri publiko eta pribatuetako eta beste eragile batzuek eskuratutako GJHen inguruko metadatuaren erabilera datu esparruak eta proiektioak indartze aldera.
- Lorpenak eta aurrerapenak ezagutzera emateko balio duten tokiko txosten boluntarioak definitu eta eraikitze gaitasunak.

Eragile anitzeko eta eraikuntza kolektiboko partaidetza prozesuak batera diseinatzeko eta aplikatzeko gaitasunak.

Lizentziazio agiri eta prozeduretan eta toki administrazioen inbertsio publikoko prozeduretan GJHak txertatzeko gaitasunak.

Eragile anitzeko politiken elkarriketa ahalbidetzeko gaitasun eta mekanismo instituzionalak.

Toki administrazioari lotutako garapen jasagarriaren eta GJHen inguruko kontseiluak, tokiko edo eskualdeko administrazioaren politika espezifikoei lotutako elkarriketa mahaia, gobernuaren politika eta/edo politika sektorial espezifikoak elikatu eta laguntzeko diziplina anitzeko batzordeak, etab.

Administrazio publikoaren, enpresa sektorearen, eragile misto publiko-privatuen, unibertsitateen, laugarren sektorearen eta bestelako eragileen artean GJHen inguruko ekintzaitza eta berrikuntza ekosistemak sustatzeko gaitasunak.

Toki administrazioen eskumen esparrurako gaitasun juridiko-administratiboak.

- GJHak jorratzeko diziplina eta eragile anitzeko planteamendua.
- Lankidetzaz erkidegoetako gobernuekin - Elkarriketa mekanismoak tokiko testuinguruetan udal ordenantzak zehazteko.
- Toki administrazioaren eskumen esparrua aztertu eta GJHen Agendak eskatzen dituen politika publikoen eraginkortasun eta koherentzia beharretara egokitzea.
- Eskumen esparrua gobernu maila bakoitzak (nazionala, eskualdekoa, tokikoa) behar duen maila anitzeko koherentziara egokitzea, maila horietako bakoitzak GJHei modu koherente eta eraginkorrean heltzeko eta horien arteko osagarritasunak eta sinergiak optimizatze.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN (jarraipena)

CapFinantzaketa publiko-privatua erakar dezaketen GJHetara zuzendutako proiektuak sustatzeko gaitasunak.

Proiektuak prestatzeko, Europako finantzaketa lortzeko eta abarretarako gaitasunak.

Kudeaketa administratiboko tresnen arloko gaitasunak.

Kontratu formuletatik hasi eta sinergia eta aliantza potentzialak bultzatzeko formula administratiboetara.

Gizarte ekonomia jasangarria sustatzeko gaitasunak.

Negozio eredu inpaktuak, gizarte ekonomiaren ekarpenak eta ekonomia berriak ezagutzeko gaitasunak.

GAITASUNAK SEKTORE PRIBATUAN (arreta jarrita enpresa ehunean eta lurraldean errotutako gizarte ekonomian)

Negozio ereduak eredu horien baitako eraldaketak jorratzeko gaitasunak, helburu hauetarako:

- Enpresak GJH bakoitzean sortzen dituen inpaktu positibo zein negatiboak ezagutzea, negozio ziklo osoko erabakiek eragindakoak (hornidura katea, ekoizpen prozesua, kate logistikoa, ikerketa, garapen eta berrikuntza departamentua, giza baliabideak, komunikazioa, etab.).
- GJH jasangarritasun adierazleak identifikatu eta kudeaketa adierazle moduan erabiltzea, negozio eredu osoan zehar erabakiak hartzeko prozesuetan pizgarriak sortzeko helburuarekin eta negozio estrategiak GJHekin lerrokatzeko helburuarekin.
- Balio harremana GJHen arloko interes eta inpaktu taldeekin: inbertitzaileak, administrazio publikoa, langileak, kontsumitzaileak, sozietate zibila eta herritarrok oro har.

GAITASUNAK AKADEMIAN ETA UNIBERTSITATE ESPARRUAN

GJHak hainbat prestakuntza eta ezaguera arlotako curriculumean txertatzea.

Unibertsitateetako sailetan sortutako ikerketa GJHen ezarpen prozesuetara aplikatzea.

GAITASUNAK SOZINETATE ZIBILEKO ERAKUNDEETAN

2030 Agendarekin lerrokatutako inpaktu eskalagarriak dituzten ekimen berritzaileak garatzeko gaitasunak.

Hartutako erabakiak tokiko mailan ezagutzera emateko gaitasunak, proposamenak jendaurrean agertuta, gizarte eta ingurumen arazo nagusiak hurbiletik ezagutzeari esker.

MEKANISMOAK



GOBERNANTZA MEKANISMOA

BALIABIDEAK MOBILIZATZEKO MEKANISMOA

EROSKETA PUBLIKO JASANGARRIRAKO MEKANISMOA

M.1. GOBERNANTZA MEKANISMOA

Zer da gobernantza mekanismoa?

Gobernantza mekanismo esaten zaio lurraldean 2030 Agendaren garapen prozesuari sostengu politiko eta tekniko emateko definitu eta sortu diren egituren multzoari. Egitura hauek GJHen bultzada egokia bermatu behar dute tokiko gobernuaren barruan, baina lurraldeko eragile **publiko zein pribatu** nagusien (instituzioak, enpresak, sozietate zibila, sindikatuak, akademia, berrikuntza zentroak, etab.) ordezkariak ere integratu behar dituzte, erabakiak hartzeko prozesuan lagundu eta parte har dezaten, eta baterako ekintzak definitu eta gauzatzeko ere.

Tokiko gobernu bakoitzeko gobernantza mekanismoak baldintza hauek bete behar ditu:

- Erakunde publikoaren **gobernu egiturari ainguratuta** egotea.
- Politika guztien ardura duten **gobernu sail guztien arteko koordinazioa eta koherentzia bermatzeko gaitasuna izatea**, hartara lurraldean lehenetsitako GJHen inguruko lankidetzak, sinergiak eta zeharkakotasuna lortuta.
- **Kontsulta izaerako espazio instituzional** bat definitzea eragile anitzeko politiken elkarrizketa, lankidetzak eta diziplina barruko zein diziplina arteko partaidetzak prozesuak ahalbidetzeko, betiere enpresen, ekonomia sozialeko ordezkarien, gizarte eragileen, sozietate zibilaren, akademiaren eta berrikuntza zentroyen ordezkariak bermatuta, besteak beste.

Politika jakinen ardura duen gobernu sail bakoitzak, halaber, eragile anitzeko lan azpitalde bat sortuko du elkarrizketa, lankidetzak eta proposamenen baterako sorkuntza errazteko. Azpitalde hauen helburuak izango dira GJHekiko politika espezifiko bakoitza diseinatzea, estrategia publiko eta pribatuak lerrokatzea, eta elkarrizketa horietatik erator litezkeen politika eta proiektuetan berrikuntza, teknologiak, gaitasunak eta datuak integratzea.

Azkenik, gobernantza mekanismo hau Foku Puntuaren barne egongo da eta Tokiko Txosten Boluntarioa prestatzeko eta antzeko lurraldeekiko konexio lanak gauzatzeko mandatua izango du, administrazioko beste maila batzuekiko maila anitzeko koherentzia laguntzeaz gain. Halaber, ekarpenak egin ahalko dizkie maila bakoitzeko (probintziala, eskualdekoa, nazioanala eta nazioarteko) GJHen aurrerapen txosten boluntarioei.

Hona hemen tokiko gobernantza mekanismo baten zenbait egitura adibide¹⁶:

- Agendaren aurrerapenerako batzorde teknikoa: zinegotzigo guztien teknikari ordezkariak osatua. Batzorde honen eginkizunak dira jarduerak aurrera eramatea eta zinegotzi eta delegazio guztien arteko koordinazioa.
- 2030 Agendako goi mailako taldea, alkateak eta zinegotziek osatutako batzorde gisa. Talde honen eginkizuna da Agenda arlo politikoan aurrera eramatea, agertzen diren arazoak konpontzeko erabakiak hartuta.
- Hiriko gizarte kontseilua, Agendaren jarraipena ere barne izan dezakeena. Partaidetza prozesuko ekarpenen eta udalaren arteko kanalada. Gomendagarria izan daiteke, funtzionamendua azkartze aldera, kontseiluan batzorde edo lantalde bat sortzea Agendaren jarraipenaz arduratzeko. Batzorde edo lantalde horrek Kontseiluari jakinaraziko dio zuzenki egindako lana.

GJHen moduko helburu partekatuen aldeko lankidetzak espazio hauek berezita baina behar bezala konektatuta egongo dira negoziatio espazioekin eta eragile sozialen ordezkariak espazioekin, hauen arteko sinergia potentzialak bilatu ahal izateko.

Gobernantza mekanismoaren eginkizunak:

- Lurraldean GJHak definitzeko epe ertainerako eta luzerako ibilbide orriak, politikak eta planak diseinatzeko behar diren adostasun, elkarrizketa, lankidetzak eta baterako sorrera espazioak ahalbidetzea, horretarako estrategia publiko eta pribatuak lortzeko.
- **Politikak** lurralderako definitu diren GJHein **koherenteak direla bermatzea**, gobernu saileko gainerakoei eragile anitzeko elkarrizketa espazioetan izandako lorpenak jakinarazita.
- Lurraldeko legegintza espazioei, udaleko osoko bilkurei, gorte probintzial eta erkidegoko gorteei araudi esparruen GJHein koherentziaren **berri ematea eta** horren inguruko **informazioa** espazio hauengandik **jasotzea**.

Testuinguru honetan, definitutako eta adostutako GJHak eta helmugak lortzeko epe ertainerako eta luzerako ibilbide orriak, planak eta politikak diseinatzeaz gain, estrategia publiko eta pribatuen lortzeko ere sortuko da. Halaber, eragileen arteko **lankidetzak dinamikak** sustatuko dira, proiektu ikuspegi batekin, epe laburreko lankidetzak eta inpaktuak lortze aldera.

Epe ertaineko eta luzeko lortzeko prozesu estrategikoagotik eratorritzen diren eta,aldi berean, prozesu horren helburu eta helmugetarako lagungarriak diren **berehalako aliantza lankidetzako proiektu publiko-pribatuak** garatzeko aukera lokalizazioak eskaintzen dituen abantaila garrantzitsuenetako bat da. Planteamendu horri esker ibilbide orriekin lortzeko ez dauden proiektuen sakabanaketa saihestuko da, eta GJHak lortzeko eta lurraldea eraldatzeko egiten diren ekintzen koherentzia bermatuko da.

Ekintza zehatzetarako lankidetzako aliantza dinamika hauek, bestalde, **balio erantsia** izango dute, hainbat eragile eskaintako **berrikuntza, teknologiak, gaitasunak eta bitartekoak irtenbide zehatzetan** integratzeko aukera ematen baitute, **epe luzerako helburuetan inpaktua sortzeko**. Elkarrizketa, lankidetzak eta baterako sorrera prozesua ere sustatu egingo da **lokalizazio prozesuko gobernantza mekanismoen eta lurraldeko edo antzeko lurraldeetako gizarte berrikuntzako ekosistemen arteko harreman estrategikoari** esker, ondoren eragile publiko eta pribatuetara iritsiko diren proiektuak eta proposamenak diseinatzeko gaitasuna baitute, berrikuntza laborategi moduan. GJHen lokalizazio prozesuaren ezarpenak inpaktu ikusgarria duten emaitza azkarrak lortzea ahalbidetuko du, eta horrek herritarrek duten emaitza zehatzen pertzepzioa hobetuko du eta epe luzerako prozesu estrategikoen bereganatzea sustatuko du.

16. "Estudio sobre los objetivos de desarrollo sostenible en Fuenlabrada" (SOCIAL GOB - <https://socialgob.org/publicaciones/>) azterlanetik hartuta.

M.2. BALIABIDEAK MOBILIZATZEKO MEKANISMOAK

GJHen lokalizazioari lotutako lurralde garapenerako prozesuak baldintza egokiak eskaintzen ditu **lurraldean adostutako GJHen inguruko ibilbide orri, plan eta proiektuetarako inbertsio publiko eta pribatua erakartzeko**. Zalantzarik gabe 2030 Agendaren lokalizazioarekin lotutako baliabideen mobilizazioa estuki lotuta egon beharko da ekoizpen ereduaren berrantolatzearekin eta sektore publikoaren lidergo sendoarekin. Funtsezkoa da inbertsio pribatuak guztion ongizatea babestea eta Estatu ekintzailea deritzona bultzatzea, betiere politika publikoen planteamendutik.

■ Epe luzerako proiektu baten inguruko **herritarren bereganatze demokratikoa sortzen** bada, proiektuak aldakortasun txikiagoa eta egonkortasun handiagoa izango ditu eta proiektua epe ertainera eta luzera aurreikusteko behar diren estimulak sortuko dira.

■ **Eragileengan** 2030 Agenda jorratzeko **gaitasunak sortzeak** lurraldeko administrazio, ekonomia eta enpresa jardueraren eraginkortasuna, efizientzia eta inpaktua areagotzen ditu.

■ Adostutako eta batera sortutako ibilbide orri baten inguruko **epe ertainerako eta luzerako estrategien lerrotzatze** prozesuek sinesgarritasuna eta konfiantza ematen diote eper ertain eta luzera inbertsioa erakartzeko proposamenari.

■ Horrez gain gako elementuak integratzen badira, hala nola berrikuntza, teknologiak, diziplinaz gaindiko gaitasunak eta, batez ere, etorkizuneko emaitzak eta inpaktuak modelatzeko, proiektatzeko eta simulatzeko **behar diren datuak**, inbertsio publikoa zein pribatua oso modu eraginkorrean erakartzeko baldintza egokiak egongo dira, ibilbide orri horietarantz eta horietatik lurraldean eratortzen dituen plan, politika eta proiektuetarantz.

Funtsak erakartzeko aukerak

Gaur egun, toki erakundeek finantzaketa iturri tradizionalak gain, Europako finantzaketaren zabalitzeak aukera berriak ireki ditu proiektuak finantzatzeko. Aldi berean inbertsio funts jasangarri eta inpaktu handiko inbertsio funtsetara lotutako finantza baliabideak erakartzeko beste modu batzuk sortzen ari dira, funts horiek ere nabarmen hazten ari baitira. Bai alor publikoan zein pribatuan ere, **garapen jasangarrirako eta lurralderako inbertsio baliabide eta mekanismoak** ugaritzen ari dira, beraz, epe luzerako garapena eta inpaktu handiko inbertsio produktiboa lotzeko aukera ona da.

EUROPAKO FUNTSAK

Europako funtsek barne dituzte Europar Batasuneko Epe Luzeko Aurrekontu Esparruak definitutako funts estrukturalak eta kohezio funtsak eta Next Generation Europe ekimena, koronabirusaren pandemiak sortutako egoerari erantzuteko sortu zena. Funtsen tamaina kontuan hartuta, Next Generation Europe ekimen hau aipatu dugu lehenik. Ekimenak barne ditu **Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa**.

(672.500 milioi euro) eta **REACT programa** (55.000 milioi euro, kohesio funtsei batzen zaizkienak). Trantsizio ekologiko eta digitalean laguntzeko funts gehigarriak dira. Funts hauek estatuko gobernuaren aurrekontu ziklo orokorrean sartu dira eta inpaktu handiko proiektuak behar dituzte betearazteko.



■ **Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa** (arreta trantsizio ekologiko eta digitalean jartzen duena):

1. Aktibazioa: teknologia garbiak eta garapenaren azelerazioa eta energia berriztagarrien erabilera.
2. Berritzea: eraikinen energia efizientziaren hobekuntza.
3. Karga eta erregaiak: garraio jasangarri, irisgarri eta adimentsua lortzeko teknologia berrien sustapena.
4. Konexioa: banda zabal azkarra eskualde eta etxebizitza guztietan, zuntz eta 5G sareak barne.
5. Modernizazioa: administrazioaren eta zerbitzu publikoen digitalizazioa.
6. Zabaltzea: gaitasun industrialen areagotzea hodeiko datuei eta azken belaunaldiko prozesadore jasangarrien garapenari dagokienez.
7. Profesionalen birziklatzea eta prestakuntza: gaitasun digitaletan laguntzeko hezkuntza sistemak eta lanbide hezkuntza eta prestakuntza adin guztietara egokitzea.

■ **REACT-EU programa:** programa: autonomia erkidego bakoitzean kohesio funtsen bitartez (FEDER, FSE eta FE- AD) bideratzen den finantziazio berria.

■ **Europako Funts Estrukturalak eta Kohesio Funtsak** (FEDER, FSE+, FEADER, FEAD). 2021-2027 aldirako Europar Batasunaren kohesio politikak lehiakortasun ekonomikoan jartzen du arreta, ikerketa eta berrikuntzaren bidez, trantsizio digitalaren bidez, Europako Itun berdearen bidez eta gizarte eskubideen Europako zutabearen sustapenaren bidez. Hauek dira baliatzen dituen tresna nagusiak:

- **Eskualde Garapenerako Europako Funtsa (EGEF):** Europar Batasuneko eskualdeen arteko garapen orekatua sustatzen du, ingurumen eraldaketa, eraldaketa digitala eta eraldaketa soziala oinarri hartuta.
- **Europako Gizarte Funtsa + (EGF+):** enpleguarekin lotutako proiektuei sostengua ematen die Europa osoan zehar eta Europako giza kapitalean inbertitzen du (langileak, gazteak, enplegu eskatzaileak, haurren pobrezia).
- **Pertsona ahulentzako Europako Laguntza Funtsak (FEAD).**

■ **Beste programa batzuk:**

- **Horizonte Europa:** 5.000 M€ berrikuntza programetarako.
- **InvestEU:** 5.600 M€, aurreko FEIE eta COSME barne izanda, Europar Batasuneko inbertsio estrategikoaren finantzaketan (azpiegitura jasangarriak, ikerketa, berrikuntza eta digitalizazioa, ETEak, gizarte inbertsioa eta prestakuntza).
- **Landa garapena:** 7.500 M€ hiri-landa eremuen lankidetzarako.
- **Bidezko Trantsiziorako Funtsa:** 10.000 M€ Green Deal itunarekin lerrokatutako proiektuetarako.
- **rescEU:** 1.900 M€ hondamendi naturalen eta humanitarioen aurrean erantzuteko.

INBERTSIO FUNTS JASANGARRIAK

Finantza jasangarrien hazkundeari lotuta dauden aukera berriak dira (esaterako, Bonu Berdeak edo GJH Bonuak): kapital naturalari eta zerbitzu ekosistemikoen kudeaketari lotutako inbertsio proiektuak, hiri-landa eremuen harreman berria erronka demografikoei aurre egiteko, hurbileko balio kateekin lotutako azpiegitura jasangarri berriak, ekonomien zirkulartasuna, etab. Honelako proiektuek garapen jasangarriarekin lerrokatutako inbertsioa erakar dezakete, betiere 2030 Agendaren ibilbide orri sendoetan integratzen badira eta harekiko koherenteak badira.

M.3. EROSKETA PUBLIKO JASANGARRIRAKO MEKANISMOA

Erosketa publiko jasangarriaren bitartez integratzen dira alderdi sozialak, etikoak eta ingurumen alderdiak zerbitzuak kontratatzeke eta ondasunak erosteko prozesu eta faseetan.

Garapen jasangarri eta inklusibo baterantz aurrera egitea eta gizarte aurrerapena sustatzen duen eta ingurumena babesten duen hazkunde ekonomikoko eredu bat finkatzea, neurri handi batean, gure gizartearen ekoizpen eta kontsumo joeren mende dago.

Erosketa publikoek merkatuan gertatzen diren erosketa guztien zati handi bat hartzen dute. Irizpide sozial, etiko eta ingurumen irizpideak erosketa publikoetan sartzek zuzeneko inpaktua du ekonomiaren eraldaketan, eta gainerako merkaturako eragin eredugarria ere.

Zein da toki administrazio publikoaren eginkizuna?

Kontratazio publikoari buruzko legeria nazional berriak atea ireki dio gizarte eta ingurumen klausulak sartzeko aukerari, baina borondate instituzionala behar da horretarako. Beraz, esparru juridikoak baimendu egiten du, baina ireki den espazio horri onura atera behar zaio.

Administrazio publikoa den heinean, toki administrazioak eredugarri izateko potentzial handia du eta ekarpen aktiboa egin dezake, ingurumenaren eta gizartearen aldetik arduratsukoak diren produktu eta zerbitzuak lehenesten dituzten erosketa publikoko politiken bidez, ekoizpen sistema jasangarriago bihurtzeko, bai eta herritarren kontzientzia areagotzeko ere.

Zein abantaila ditu toki administrazio publikoarentzat?

Balio erantsia ematen dio kontratazio publikoari eta, behar bati erantzuteko aurrekontua modu efizientean kudeatzeaz gain, interes orokorraren onerako da, erosketa etiko, erosketa berde edo erosketa sozialari esker, aldi berean lurraldeko ekoizpen ehuna indartuta.

Zein aukera eskaintzen dizkio enpresen sektoreari?

Enpresen posizionamendua hobetzen du, ETEak barne, une honetan ingurumen eta gizarte betekizun zorrotzagoak dituzten merkatu berrietara baldintza hobeetan sartzeko eta etorkizunari hobe aurre egiteko, hemendik aurrera ingurumen eta gizarte betekizunak geroz eta zorrotzagoak izango baitira.

Erosketa berdea sustatzeak teknologia eta produktu "berdeak" garatzeko pizgarri gisa jarduten du industriarentzat eta teknologia eta produktu horiek merkatuan igoarazi egiten ditu. Zehazki, enpresa txiki eta ertainek onura atera diezaiokete mota honetako erosketari, izan ere, beren soluzio eta produktu berritzaileetarako merkatuak aurkitzeko aukera ematen die.

SPKLaren 1.3 artikuluan xedatzen da, enpresa txiki eta ertainekin batera, gizarte ekonomiako enpresen kontratazio publikorako sarbidea ere erraztuko dela.

Zein alderdi hartzen dira kontuan?

Ekoizpen metodoa eta baldintzak, material osagaiak, langileen lan baldintzak eta produktuaren ekoizpenak edo zerbitzua emateak epe laburrera eta luzera dituen zuzeneko eta zeharkako ondorioak, enpresen gizarte eta ingurumen profila edo enpresek tokiko ekoizpen ehunean duten inpaktua, besteak beste.

Nola antolatzen da?

Oro har, lizitatuzaileak proposatutako ingurumen eta gizarte ezaugarriei buruzko eskaintzak ebaluatzeko irizpideak agerietan sartuta, esaterako, ura eta energia aurrezte eta horien erabilera efizientea, etiketa ekologikoak edo ingurumen kalitatearen bestelako bereizgarriak erabiltzea, material birziklatu, berrerabili edo ekologikoak erabiltzea eta enpresaren ASG profila edo enpresaren gizarte-ingurumen jarduna.

Ingurumen motako baldintzak: Helburu hauek dituzten baldintzak: Berotegi efektuko gasen isurpenak murriztea; kontratu bat egikaritzean aldatu daitezkeen ingurumen balioen mantentzea edo hobekuntza; uraren kudeaketa jasangarriagoa; energia berriztagarrien erabilera sustatzea; produktuen birziklatzea eta ontzi berrerabilgarrien erabilera bultzatzea; edo solteko produktuen entrega eta ekoizpen ekologikoa bultzatzea.

Gizarte motako edo enpleguari buruzko baldintzak: Helburu hauek dituzten baldintzak: desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenean aitortutako eskubideak eraginkor egitea; legeria nazionalak eskatzen duenaren gainetik dagoen desgaitasuna duten pertsonen kopuru bat kontratatzea; lan merkatura sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegua sustatzea, bereziki desgaitasuna duten pertsonak edo gizarte bazterkeria arriskuan daudenak, laneratzeko enpresen bitartez; lan merkaturan gizon eta emakumeen arteko desberdinkeriak desagerraraztea, laneko berdintasuna sustatzen duten neurriak hartuta; emakumeak lan merkaturan parte hartze handiagoa izan dezan eta lana eta familia bateragarri egiteko neurriak hartuta, langabeziari aurre egitea, batez ere gazteena, emakumeena eta iraupen luzekoa; lantokiko prestakuntza sustatzea; laneko osasuna eta segurtasuna bermatzea eta hitzarmen kolektibo aplikagarriak errespetatzea; laneko istripuak prebenitzea; Europar Batasunaren Funtzionamendu Tratatuaren 145. artikuluan definitzen den enplegurako estrategia koordinatuaren inguruan ezartzen diren bestelako helburuak; oinarritzko lan eskubideen errespetua bermatzea ekoizpen katean zehar, LANEren Funtsezko Hitzarmenak betetzea eskatuz, barne hartuta garapen bidean dauden herrialdeetako ekoizle txikiei laguntzeko neurriak, esaterako, gutxieneko prezio bat eta ekoizleei zuzendutako prima bat ordaintzea edo merkataritza katearen gardentasun eta trazabilitate handiagoak.

Iturria: Manual interno de contratación adaptado a la ley de contratos del sector público, ESMASA, Alcorconeko Udala.

Zein alderdi hartzen dira kontuan erosketara eta kontratazio publiko jasangarrian?

- Erosketaren beharra.
- Produktuak egiteko erabilitako materialak.
- Produktu edo zerbitzuen jatorria.
- Produktuak ekoizteko baldintzak.
- Enpresa hornitzailearen gizarte-ingurumen jarrera eta jarduna.
- Produktuen amaierako helmuga erabilera amaitzean.

4. FASEA

EZARPENA ETA JARRAIPENA

4.1. EZARPENA



ZEIN DA HELBURUA?

Urrats honetan **plangintza errealitate bihurtu behar da 2030 Agendaren ikuspegitik**¹⁷. Prozesuko eragile nagusi izanda, tokiko gobernuek programa eta jarduketan ezarpena kudeatzeko eta lurraldeko eragileen arteko esperientzia trukerako eta partaidetzarako espazioak ahalbidetzeko ardura dute.



TOKI ERAKUNDETIK EGIN BEHARREKO LANAK

1. Diseinu fasean sortutako **lantaldeak** parte hartze aktiboa izango du ezarpen osoan zehar.
2. Tokiko gobernuaren barne, **sail sektorialen arteko eguneroko koordinazioa** sustatzen jarraitzea, programa eta proiektuen **ezarpena ikuspegi integral eta ez zatitu batetik** egiten dela bermatzeko.

Kudeaketan zehar politika publikoak/jarduketak “zatikatu” arren sail bakoitzak proiektu jakin batzuk gara ditzan (etxebizitza, haurtzarora, enplegua, genero berdintasuna, etab.), 2030 Agenda osoa eta bertako printzipio guztiak jorratzen direla bermatu behar da.

3. **Zeharkako alderdiak proiektu eta programa sektorial guztietan txertatzen** direla bermatzea, idazketatik hasi eta ezarpena arte.
4. **Maila anitzeko gobernantza plataformak** ezartzea beste gobernu maila batzuekin partekatzen diren eskumenen kasuan (adib. eskualdeko edo erkidegoko gobernuarekin).

¹⁷. 2030 Agendak barne du ezarpen bitartekoei buruzko kapitulu bat, Garapena Finantzatzeko Addis Abebako Ekintza Agendarekin erabat lotuta dagoena. Agenda horretan adierazten da ezarpen bitartekoak ezinbestekoak direla Agendaren bideragarritasunerako eta garapenaren hiru dimentsioak hartu behar dituztela kontuan. Zehazki, jasangarritasuna eta inklusioa lortzeko oztopo nagusian jarri behar dute arreta, hau da, berdintasun sozioekonomikoa, genero berdintasuna eta lurralde berdintasuna ez izateagatik sortzen den ekitaterik ezaren iraunkortasuna, ondasun eta zerbitzuetarako sarbidean desberdintasun handiak sortzen dituena. Besteak beste, “eten digitalak” inpaktu negatiboa du emakumeen, gazteen eta haurren teknologia eta zientziarako sarbidean eta desgaitasuna duten pertsonen teknologia irisgarri baterako sarbidean. (<http://www.un.org/esa/ffd/ffd3/index.html>).



KONTUAN IZAN HONAKOEN KASUAN:...



UDALERRI TXIKIENAK ETA/EDO LANDA EREMUETAKOAK: ezarpenerako gaitasunak, diagnostiko fasean adierazi den bezala, oso mugatuak izan daitezke baliabide ekonomiko eta teknikoaren ikuspuntutik. Ondorioz, oso garrantzitsua da probintziako eta eskualdeko gobernutik eta gobernu zentraletik udalerrri hauei sostengua ematea **prestakuntza eta aholkularitza teknikoa** eskainita ezarpen prozesu osoan zehar. **Antzeko ezaugarri edo arazoak dituzten beste udalerrri batzuekin elkartzea** funtsezkoa da gaitasunak batera indartu ahal izateko.



ZER ESKAINI DEZAKETE BESTE ERAGILE BATZUEK?

- Tokiko gainerako eragileen (sozietate zibileko elkarteak, sektore pribatua edo akademia) partaidetza aktiboa, aldiari behingo kontsultara mugatzen ez dena, ezinbestekoa da ere ezarpen fasean zehar. Eragile horietako bakoitzak tokiko gobernuaren gaitasunak indartu ditzake aholkularitza teknikoari esker, errealitatearen ezaguerari esker eta jardunbide egokien trukeari esker.
- Geroz eta gehiago, **unibertsitate eta prestakuntza eta ikerketa zentro** publiko zein pribatuek lotura instituzionalak izaten dituzte eta tokiko gobernuari laguntza ematen diete tokiko kudeaketan, gaikuntzaren, laguntza tekniko espezifikoren, zabaltze eta/edo ikerketa aplikatuko programen eta abarren bidez.



HURRENGO URRATSA EMAN AURRETIK GOGORATU...

- Lurraldearen garapen jasangarri eta inklusiborako bidean, **prozesuak emaitzak bezain garrantzitsuak dira.**
- GJHen ezarpenak tokiko gobernuak partaidetzaren bidez identifikatutako behar eta lehentasunak kontuan hartu behar ditu eta **estrategia nazionalekiko koherentzia eta osagarritasuna bilatu behar ditu.**
- **Beste tokiko gobernu batzuekin eta beste eragile garrantzitsuekin informazioa eta esperientziak trukitzea** funtsezkoa da ezarpena aberasteko eta inpaktu positibo eta eraldatzailea lortzeko aukerak areagotzeko.
- **Barne erregistroen informatizazioak**, hasierako zailtasunen arren (behar diren ezaguera teknikoak, ekipamenduak, sargaiak eta azpiegitura, gailu informatikoak, etab.), erabakiak hartzeko baliagarria den kudeaketa lortzen laguntzen du.

4.2. JARRAIPENA

ZEIN DA HELBURUA?

Aurreikusitako programak eta jarduketak garatzen ari diren **jakitea** eta **herritarren bizitza benetan hobetzen ari den eta ingurumena benetan babesten ari den** egiaztatzea.

Ariketa hau ez da puntuala. 3.3 urratsean adierazitakoaren arabera, tokiko mailan lehenetsitako GJHen ezarpen osoan zehar egin beharreko **etengabeko azterketa** da. Zehazki, aztertu behar da **zein neurritan egikaritzen ari diren aurreikusitako jarduketak eta lortutako emaitzak aurreikusitakoekin bat datozen ala ez**. Honela bakarrik antzeman ahalko dira garaiz plangintza eta egikaritzearen arteko aldeak, oztopoak edo doikuntza beharrak.

TOKIKO GOBERNUTIK EGIN BEHARREKO LANAK

1. Sail edo foku puntuak, lantaldea osatzen duten gainerako sailekin batera, monitorizazio sistema bat diseinatu behar du **honakoei buruzko informazioa** biltzeko:

- **Aurreikusitako jardueren egikaritze maila.**
- Identifikatutako **tokiko helmugen betetze maila.**
- Eta, ondorioz, **lehenetsitako GJHen betetze maila (erabatekoa edo partziala).**

2. Aurreko urratsean azaldu den moduan, adierazleak hautatzean, **datuen eskuragarritasuna** egiaztatu behar da, eta baita datuak biltzeko behar diren denbora eta gaitasunak ere.

Oso garrantzitsua da adierazle kualitatiboak eta adierazle kuantitatiboak konbinatzea, eta kanpoko iturrietako adierazleak eta adierazle propioak

3. Adierazle bakoitza bere **informazio iturriarekin/iturriekin eta argitalpen** (kanpoko iturrien kasuan) edo ekoizpen **maiztasunarekin** lotzea.

Non aurki daiteke informazioa?

- **Erregistro administratiboak eta uneko programen kudeaketa erregistroak.**
- **Inkestak.**
- **Banakako elkarrizketak eta foku taldeei egindakoak.**
- **Bigarren mailako datuak.**
- **Kostu errealeen kalkulua, kostu/lorpen harremana, etab.**
- **Hainbat iturri estatistiko ofizialeko datuak, barne hartuta diputazio probintzialak, kabildoak eta uharteetako kontseiluak, izaera probintzialekoak edo udalerrika desagregatuta daudenak.**

4. Ekintzen ezarpenean parte hartzen duen departamentu/sail bakoitza informazio trukeari buruzko datuen bilketaren arduraduna da.

5. Jarraipen eta ebaluazio **txostenak** eragile parte hartzaile guztiekin **baliozkotzea** eta **ahalik eta gehien hedatzea** (jardunaldiak antolatzea, webgune instituzionalak, gizarte sareak, komunikabideak, etab.).



KONTUAN IZAN HONAKOEN KASUAN:...



UDALERRI TXIKIENAK ETA/EDO LANDA EREMUETAKOAK: tokiko gobernuen elkarte eta sareek sinergiak sortzen lagundu dezakete informazioa bildu eta aztertzeko orduan eta baterako sistematizazioa egiteko orduan, tokiko gobernu bakoitzak txosten independentea aurkezteko aukerarik ez badu.

Gaitasun handiagoa duten tokiko gobernuentzat, ariketa interesgarria izan daiteke egindako ahaleginak eta lorpenak Nazio Batuen “Tokiko Txosten Boluntarioen” esparruan ezagutzera ematea, hartara antzeko prozesuekin lotura ezarrita, eskualdeko eta estatuko txostenetan lagunduta eta Nazio Batuen Goi Mailako Foro Politikoaren esparruan egindako aurrerapenak proiektatuta.



ZER ESKAINI DEZAKETE BESTE ERAGILE BATZUEK?

- Sozietate zibilaren txosten edo diagnostikoez oso informazio baliagarria eskaintzen dute, tokiko gobernuen aurkeztutako txostenen informazioa osatzen duena.
- Tokiko behatokiak oso baliabide garrantzitsua dira informazio guztia aztertzeko eta monitorizazioa eta ebaluazioa sustatzeko orduan.
- Erkidegoetako eta estatuetako gobernuak laguntza eman behar diete tokiko gobernuei toki mailan datuak biltzeko eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko.



ERREMINTA KUTXA

- *Guidelines for Voluntary Local Reviews*¹⁸
- *“Guía para la implementación de los ODS en el ámbito local de Andalucía”* gidan balorazio kualitatibo eta erreflexiboa proposatzen da tokiko edo eskualdeko gobernuaren barnean, ikus “¿Cómo califica el avance general en la implementación de los ODS?” koadroa (39. orr.).



BESTE ESPERIENTZIA BATZUEN IKASKUNTZAK

- *UCGLren GOLD V “La localización de las agendas globales”* CGLren GOLD V “La localización de las agendas globales” (ingelesez eskuragarri) txostenak zehatz-mehatz aztertzeko dituzten nazioarteko agenden ezarpenaren ebaluazioak 2016. urteaz geroztik gutxienez Berrikusketa Nazional Boluntario bat aurkeztu duten 142 herrialdeetan.
- *Tokiko Agintaritzen Txosten Boluntarioak:* Euskal Autonomia Erkidegoa eta Valentzia.
- *Menorcako Gizarte eta Ingurumen Behatokia* Institut Menorquí d’Estudis erakundearen mende dagoen informazioa bildu eta aztertzeko tresna bat da.

18. <https://sdgs.un.org/topics/voluntary-local-reviews>.



HURRENGO URRATSA EMAN AURRETIK GOGORATU...

- Etengabeko jarraipen hau, kontrol ariketa bat ez izateaz gain, **ikaskuntza prozesua da erabakiak hobe hartu** ahal izateko, **kudeaketa publiko efizienteagoa** lortzeko, **gardentasuna areagotzeko** eta kontuak emate **eraikitzaileagoa** garatzeko herritarren aurrean.
- **Adierazleak behar bezala definitu** ez badira, oso zaila da datuen bilketa ona egitea eta, ondorioz, **ezarritako helburuen eta lortutakoaren arteko aldea behar bezala monitorizatzeko** aukera gutxiago daude.
- Tokiko mailan bildutako informazio hori guztia funtsezkoa da GJHen ezarpenaren inguruko **probintziako/eskualdeko/estatuko txostenen prestaketa eta monitorizazio prozesuetan laguntzeko**, tokiko eremuan lortutakoa eta bertan garatutako jardunbide egokiak ezagutzera ematen eta hedatzen baitu. Honela bakarrik lortuko da 2030 Agendak lortu nahi duen **konpromiso partekatua** errealitate egitea.
- Tokiko gobernuek **beren esperientziak partekatu behar dituzte, barne hartuta arrakastak, erronkak eta ikasitako gauzak**, Agenda ahalik eta azkarren betetzen laguntzeko.
- Ekintzak GJHeekin lotuta daudela kontuan hartuta, **aztertu** ahalko da ere **zein GJH jorratu diren gehien** urte bakoitzean.
- Informazio hori guztia partekatzeak hainbat helmuga ditu: **herritarrei kontuak ematea**, agintari publikoek duten gardentasun eta erantzukizun mandatu argia betez, eta **jardunbide egokien eta ikaskuntzen kapitalizazioa ahalbidetzea beste tokiko gobernu batzuei garapen inklusibo eta jasangarrirantz elkarrekin aurrera egiteko aukera emanda.**

BIBLIOGRAFIA

- Red Udalerrri Jasangarrien Euskal Sarea (2011), "EAEko udalerrietan 21 Tokiko Agendaren ekintza planak berrikusteko gida metodologikoa".
- Red Española del Pacto Mundial de Naciones Unidas (2016), "El sector privado ante los ODS. Guía práctica para la acción".
- Global Task Force of Local and Regional Governments (2016), Guía para la Localización de los ODS: Implementación y Monitoreo Subnacional.
- CGLU (2016) Objetivos de Desarrollo Sostenible: lo que los gobiernos locales deben saber.
- García Maties, R. (2016). Las entidades locales y los objetivos de desarrollo sostenible. Algunas notas sobre la naturaleza jurídica de la Agenda 2030. Revista de Estudios de la Administración Local y Autonómica.
- FAMSÍ (2017), "Localizar los Objetivos de Desarrollo Sostenible gobiernos y actores locales y provinciales en la implementación de la agenda 2030. Una mirada desde Andalucía".
- UNESCO (2017) "Ciudades del Aprendizaje y los ODS: una Guía de Acción".
- Ayuso, A. (2017) Participación y rendición de cuentas en la localización de la Agenda 2030.
- ISI Argonauta (2017), Guía de los ODS para organizaciones del Tercer Sector.
- José Antonio Alonso eta Anna Ayuso (koor.) (2017), Acercar los Objetivos de Desarrollo Sostenibles la ciudadanía. El compromiso de Europa con la Agenda 2030.
- REDS (2018) Informe "Mirando al futuro: ciudades sostenibles. Los Objetivos de Desarrollo Sostenible en
- 100 ciudades españolas".
- Udalerrri Jasangarrien Euskal Sarea (2019), "Nola heldu Garapen Jasangarriaren Helburuei tokiko eremutik. Gida praktikoa".
- NNUU (2019), "Guía de los vagos para salvar el mundo".
- Kanariar uharteetako Parlamentua eta PNUD (2019) Guía para la localización de los ODS. La perspectiva del Parlamento de Canarias.

- CGLU (2019) 5. GOLD txostena: "La localización de las Agendas Globales".
- Iniciativa ODS Local Andalucía (2020) Guía para la implementación de los ODS en el ámbito local de Andalucía.
- FEMP (2020), Guía Divulgativa de la Agenda Urbana Española.
- Nazio Batuen Garapenerako Programak, UN Habitat-ek, Global Taskforce-ek, CGLUK eta Bartzelonako Diputazioak batera garatutako ikaskuntza moduluak:
 - 1. ikaskuntza modulua: Localizando los ODS.
 - 2. ikaskuntza modulua: Planificación territorial para lograr los ODS
 - 3. ikaskuntza modulua: Los informes de los ODS
- Consejo Nacional Argentino de Políticas Sociales, Manual para la Adaptación Local de los Objetivos de Desarrollo Sostenible.
- Fundacion IPSS, "170 acciones diarias para transformar nuestro mundo" gida.

WEBGRAFIA

- Nazio Batuak – Garapen Jasangarriko Helburuak
- 2030 Agenda Espainia
- FEMP – GJHen lokalizazioa eta 2030 Agenda
- FEMP 2030 Agendarako Toki Erakundearen Sarea
- Hiri eta Tokiko Gobernuen Batasuna - CGLU
- GJHen inguruko giza eskubideen gida, Danimarkako
- Giza Eskubideen Institutua
- LOCAL 2030
- CIDOB: GJHen lokalizazioa
- "Haz posible el cambio. Acepta el Desafío". Nazio Batuen kanpaina
- "Actúa ahora" Nazio Batuen kanpaina

ERREMINTA KUTXA

I. ERANSKINA.

ZER DAKAR ZEHARKAKOTZEAK EDO ELEMENTU HAUEK
TXERTATZEAK:

GIZA ESKUBIDEETAN OINARRITUTAKO PLANTEAMENDUA

GENERO BERDINTASUNA


HAURREN ESKUBIDEEN PLANTEAMENDUA

DESBERDINKERIAK ETA GIZARTE ZAURGARRITASUNA MURRIZTEAREN PLANTEAMENDUA

EKONOMIA ZIRKULARRA ETA 2030 AGENDARI EGITEN DION EKARPENA

BIDEZKO MERKATARITZA 2030 AGENDAN

AURRERA EGITEKO TRESNA GISA



TI. ERANSKINA.

ZER DAKAR ZEHARKAKOTZEAK EDO ELEMENTU HAUEK TXERTATZEAK:

GIZA ESKUBIDEETAN OINARRITUTAKO PLANTEAMENDUA

Giza Eskubideetan Oinarritutako Planteamendua (aurreantzean, GEOP) 2030 Agendaren elementu nagusietako bat da, benetako garapen inklusiboa lortu ahal izateko.

GEOPa pertsonen duintasunarekin zerikusia duten balio, printzipio eta arau unibertsaletan oinarritzen da, pertsonen bizitzari, berdintasunari, segurtasunari, parte hartze politikoari, gizarte ongizateari eta pertsonen garapen integralaren beste edozein alderdiri dagokionez, eta giza baliabideak dira planteamenduaren ardatz nagusia¹⁹.

2030 Agendaren alderdi zehatzekin lotura duten printzipio hauen aplikazioan datza:

■ **Unibertsaltasunaren printzipioa:** honen arabera, politika publikoek baldintza jakin batzuk eskaini behar dituzte pertsona eta lurralde guztiek eskubide guztiak baliatzeko aukera dutela bermatzeko. Edonola ere, printzipio hau bateragarria da udal plangintzarako prozesuan lehentasunak ezartzearekin, garapen jasangarriaren ikuspegi integral batetik.

■ **Berdintasun eta bereizkeriarekin ezaren printzipioa:** pertsona bakar bat ere eta lurralde bakar bat ere (esaterako, landa eremuak edo uharteetako lurraldeak) GJHak lortzeko diseinatu diren politika eta programen onuretatik kanpo gelditzen ez dela ziurtatzeko. Adibidez, printzipio hau aplikatzen zaie aurrekontuak eta inbertsio publikoak banatzeko irizpideei, izan ere, bereizkeria, eskubideetarako sarbidean, baliabide publikoen banaketa ez bidezkoaren ondorioa

izan daiteke, besteak beste. Gainera, udal politikek kontuan hartu behar dute genero ikuspegiaren integrazio egoki bat, emakumeei eragiten dieten desberdintasunak eta bereizkeriak desagerrarazten laguntzen dutela bermatzeko, eta migratzaileen sarbidea bermatzeko, baldintza berdinetan. Azkenik, udal programek egiaztatu behar dute zerbitzuak eta instalazioak irigarriak direla desgaitasuna duten pertsonentzat.

■ **Partaidetza inklusibo eta aktiboaren printzipioa:** honi esker identifikatzen dira, lurraldeko eragile guztien parte hartzearekin, tokiko politiken diseinua, ezarpena eta ebaluazioa orientatuko dituzten beharrak eta lehentasunak, eta horrek, era berean, legimititate eta gizarte bereganatze handiagoak lortuko ditu lokalizazio planarantzat. Printzipio honen aplikazioak bereziki kontuan hartu beharko da tradizionalki erabakiak hartzeko prozesuetatik kanpo gelditu izan diren kolektiboen inplikazioa

■ **Kontuak ematearen eta erantzukizunaren printzipioa:** honen arabera, herritarren aldetiko eskakizun mekanismoak egongo dira botere publikoekiko, beraz, tokiko gobernuek kontuak emango dituzte, aldi behin, lokalizazio planaren esparru barruan abian jarritako politika eta jarduketan inguruan. Gainera, ariketa horretan planaren ezarpenean zerikusia duten eragile guztiek parte hartu ahalko dute.

19. El enfoque basado en Derechos Humanos: Evaluación e Indicadores, Red en Derechos, 2011

Zein da toki administrazioen eginkizuna giza eskubideei dagokienez?

Tokiko agintariak, eguneroko lanean, udalerriko herritarrei eragiten dieten giza eskubideen inguruko arazoekin kontaktuan egoten dira. Beren eginkizunak gauzatzean, tokiko agintariek erabakiak hartzen dituzte hezkuntzari, etxebizitzari, osasunari, ingurumenari edo ordena publikoari buruz, eta erabaki horiek giza eskubideen errespetuan ondorioak dituzte. Agintari hauen betebeharren artean daude errespetatzeko betebeharra, babesteko betebeharra eta, beren politiken bitartez, pertsona guztien giza eskubideak betearazteko betebeharra.

Tokiko agintariek arreta berezia jarri behar dute zaugarritasun egoeran dauden taldeen eskubideen sustapen eta babesean, hala nola desgaitasuna duten pertsonak, migratzaileak, sexu bereizkeriaren biktimak, haurrak edo adineko pertsonak. Honen ildotik, kolektibo hauei emandako zerbitzuen kalitatea da toki administrazioek giza baliaideekiko duten errespetu eta konpromisoaren adibide bat.

Informazio gehiago:

- Manual de la AECID para la aplicación del Enfoque Basado en Derechos Humanos <https://www.aecid.es/Centro-Documentacion/Documentos/Publicaciones%20AECID/Guia%20EDBH%20v4.pdf>
- Guía de los ODS para las organizaciones del Tercer Sector https://epd.caongd.org/wp-content/uploads/2019/09/GuiaODSorganizaciones3Sector_-F.VicenteFerrer.pdf
- A Rights-based approach encompassing all Human Rights, an EC Staff Working Document https://ec.europa.eu/international-partnerships/system/files/online-170621-eidhr-rba-toolbox-en-a5-lc_en.pdf
- El enfoque basado en Derechos Humanos: Evaluación e Indicadores <https://www.aecid.es/Centro-Documentacion/Documentos/Evaluaci%C3%B3n/EvaluacionEDBH%20+%20NIPO+%20logo.pdf>
- “Ciudad de Derechos Humanos:El modelo de Barcelona” gida metodologikoa <https://www.uclg-cisdp.org/es/actualidad/noticias/barcelona-publica-una-gu%C3%ADa-metodol%C3%B3gica-para-compartir-su-experiencia-como>

Giza eskubideen planteamendua gauzatzeko ekintzak

1. Politika eta araudiak giza eskubideekin bateragarriak direla egiaztatze prozedurak ezartzea.
2. Beren jarduketan inaktuak gainbegiratu eta ebaluatzea, giza eskubideen errespetuari dagokionez.
3. Nazioarteko giza eskubideen tratatuak tokiko mailan betetzeari buruz informatzea.
4. Tokiko funtzionarioei giza eskubideen arloko prestakuntza sistematikoa ematea.
5. Herritarrak giza eskubideen inguruan sentsibilizatzea.

GENERO BERDINTASUNA

Genero berdintasuna oinarrizko giza eskubidea da eta 2030 Agendako printzipio zentraletako bat. Genero berdintasunik gabe, garapen jasangarria ez da posible izango.

Zer esan nahi du gure eguneroko errealitatearentzat?

Jakin nahi baduzu, sakatu hemen:

<https://www.youtube.com/watch?v=FUBA0VTyKRk>

Emakumeen berdintasuna eta ahalduntzea 17 Garapen Jasangarriko Helburuetako bat da (**5. GJHa**), baina garapen inklusibo eta jasangarriko **dimentsio guztietako zeharkako eta funtsezko elementu** bat da ere.

Zentzu horretan, hemendik 2030. urtera genero berdintasuna lortu ahal izateko, **presazko neurriak hartu behar dira emakumeen eskubideak mugatzen jarraitzen duen bereizkeriaren jatorri sakonak desagerrarazteko, bai arlo publikoan zein pribatuan ere.**

Tokiko gobernuak eta landa udalerrriak dira emakumeei eragiten dieten indarkeriak eta bereizkeriak identifikatzeko eta jorrazteko posizio onenean daudenak. Tokiko gobernuak genero berdintasuna sustatzeko eta emakumeak ahalduntzeko eredu izan daitezke, planteamendu hori barne duten udal politikak bultzatzeari eta **herritarrei zerbitzu ez diskriminatzaileak emateari** esker.

Azken hamarkadetan lortutako aurrerapenen arren, COVID-19aren pandemiak sortutako krisiaren modukoek arriskuan jar ditzakete aurrerapen horiek eta emakumei eragiten dieten desberdinkeriak areagotu ditzakete. Horregatik, **krisi honek sortutako genero inpaktua-
ren irismena ezagutu behar da eta krisiari emandako erantzunean kontuan hartu behar da, izan ere, COVID-19ak eragindako osasun, gizarte eta ekonomia krisiaren ezaugarriak direla eta, krisiak desberdin eragingin die emakume eta gizonei.**

Genero zeharkakotzea lortzeko dekalogoia

1. Ez ahaztu zure “genero betaurrekoak” erabiltzea politika publikoen zikloaren etapa guztietan.
2. Testuingurua aztertzean emakume eta nesken errealitatea eta arazoak ezagutzera ematen baditugu, biztanleria guztiari emango diogu ikusgarritasuna.
3. Sexuaren arabera desagregatutako datuak lagungarriak dira emakumei eragiten dieten arazo espezifikoak hobetzeko.
4. Emakumeen eta emakumeen elkarrekin partaidetza aktiboak jarduketari orientazioa egokiagoa ematen laguntzen du.
5. Genero berdintasunaren ardura duten erakundeek inplikazioak politiken koherentzia handiagoa bermatzen du garapen jasangarriarekiko.
6. Generoarekiko sentikorrak diren adierazleek gizarteko aldaketak neurtzeko aukera ematen digute, berdintasunean aurrera egiteko.
7. Emakume eta neskek ahalduntzeko ekintza espezifikoak bitartez genero desberdinkeriak desagerrarazten laguntzen dugu.
8. Zeharkakotzea lortzeko giza baliabide espezializatuak eta baliabide ekonomikoak behar dira.
9. “Generoarekiko sentikorra” den jarraipen sistema batekin berdintasunerantz aurrera egiteko dauden oztopoak identifikatu ahalgo ditugu.
10. Genero inpaktua neurtzen duten ebaluazioekin bakarrik jakingo dugu gure jarduketak genero berdintasunean laguntzen ari diren.

Iturria: “Guía de la AECID para la Transversalización del Enfoque de Género” gidatik egokitua

Informazio gehiago:

- NBE EMAKUMEAK - 5. GJH <https://www.unwomen.org/es/news/in-focus/women-and-the-sdgs/sdg-5-gender-equality>
- Nazio Batuak - Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordea, bereziki Pekineko Ekintza Plataformaren berrikusketa prozesuan, batzordearen 25. urteurrenean (2020), barne hartuta Espainiako txostena: <https://www.unwomen.org/es/csw/csw64-2020>
- Guía de la AECID para la Transversalización del Enfoque de Género <https://www.aecid.es/Centro-Documentacion/Documentos/Publicaciones%20AECID/GU%C3%8DA%20DE%20G%C3%89NERO.pdf>
- Guía para incorporar el enfoque de género en la planificación de políticas sociales, Junta de Andalucía https://www.juntadeandalucia.es/export/drupaljda/publicacion/17/01/Gui%CC%81a%20Genero%20CIPS_v4.pdf
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak, kontratueta eta dirulaguntzetan https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/es_emakunde/adjuntos/guia_clausulas_igualdad_es.pdf
- Adierazle sistema: EAEko emakumeen eta gizonen berdintasuna https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/es_emakunde/adjuntos/guia_indicadores.pdf
- Genero ikuspuntua tokiko eta eskualdeko garapenean integratzeko eskuliburua https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/es_emakunde/adjuntos/manual_integra_es.pdf
- La perspectiva de género, esencial en la respuesta a la COVID-19 [https://www.inmujer.gob.es/disenov/novedades/IMPACTO_DE_GENERO_DEL_COVID_19_\(uv\).pdf](https://www.inmujer.gob.es/disenov/novedades/IMPACTO_DE_GENERO_DEL_COVID_19_(uv).pdf)

HAURREN ESKUBIDEEN PLANTEAMENDUA

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak esparru politiko eta juridiko bat ezartzen du, haurren bizitza osasuntua, kalitateko hezkuntza eta mota guztietako abusu eta indarkerien aurkako babesa bermatzeko helburuarekin. Haurren eskubideen planteamenduak haurrak babesteko gaitasuna duten osagai nagusiak (familiak, komunitateak, legeak, komunikabideak...) identifikatu eta indartzen dituen ingurune babesle baten garapena sustatzen du, eta erabakiak hartzean beti haurren interes gorena kontuan hartzeko beharra ezartzen du ere.

2030 Agendak lehentasuna ematen die haur eta nerabeen eskubideei, aur eta nerabe guztien babes handiena lortze aldera. Horrez gain, haur eta nerabeak politiken erdigunean jartzen dituen eredu sozial eta politiko baten aldeko apustu argia da ere, haur eta nerabeak partaidetzarako eta erabakiak hartzeko espazioetan sar daitezen ahalbidetuta. 2030 Agenda da etorkizuneko mundurantz aurrera egiteko ibilbide orri bakarra, horretarako behar diren nazioarteko eta tokiko adostasuna eta ikuspegia oinarri hartuta. Tokiko gobernuen garapen

jasangarriarekiko konpromisoa ezinbestekoa izango da eta eragin erabakigarria izango du gaur egun haur eta nerabeak direnentzat. Haiek jarauntsiko dute utziko diegun mundua eta mundu hori, gaur eta egunero, ekintza txikien bidez eraikitzen dugu, arlo publikotik, familiarren esparrutik eta banakako esparrutik, baina baita ekintza politikorako esparru zabal eta anbizio handikoetatik ere, besteak beste, 2030 Agenda.

17 Garapen Jasangarriko Helburuetako bakoitzak eta horien barruko 169 helmugek inpaktua dute, zuzenekoa edo zeharkakoa, haur eta nerabeengan. Pobrezia eta gizarte bazterkeriaren fenomenoek bereziki eragiten diete seme-alabak kargura dituzten familiei eta haur eta nerabe horietako askok desberdinkeraren ondorioak sufritzen dituzte, are modu larriagoan azken hilabeteotan bizi izan dugun pandemiaren ondorioz. Era berean, islatu egin behar dira haur eta nerabeek duten hezkuntzarako eskubidea eta sortzen diren arazoak, hala nola haur hauen aurrerapen akademikoa eta aukera profesionalak, arrisku berriekin batera, esaterako, eten digitala.

DESBERDINKERIAK ETA GIZARTE ZAURGARRITASUNA MURRIZTEAREN PLANTEAMENDUA

Nazio Batuen esanetan, "diru sarreretan, generoan, adinean, desgaitasunean, sexu orientazioan, arrazan, klasean, jatorri etnikoan edo erlijioan oinarritutako desberdinkeriak mundu osoan gertatzen dira oraindik, herrialdeen barruan zein herrialdeen artean. Desberdinkeria horiek epe luzerako garapen sozial eta ekonomikoa arriskuan jartzen dute, pobrezia murrizketari eragiten diote eta pertsonen osotasun eta balio sentipena suntsitzen dute"²⁰.

<https://www.youtube.com/watch?v=ojl69FKxqdE&list=PLV2030>

Agenda ezartzeko ekintza planean adierazten den moduan, gure herrialdeko hirien eta landa eremuen artean dagoen aukera desberdinkeriaren eta pobrezia etena da GJHak lortzeko oztopo nagusietako bat.

2030 Agendaren ezarpenean aurrera egiteko eta "inor atzean ez uzteko", tokiko gobernuek, lurraldeko gainerako eragileekin batera, zeharkako moduan txertatu behar dute ekitatearen eta intersektionalitatearen planteamendua GJHak garatzeko planen diseinuan, eta arreta berezia jarri behar diete zaurgarritasun egoera larriagoan bizi diren pertsona eta kolektiboen beharrei.

Giza eskubideetan oinarritutako desgaitasunaren planteamendu bat txertatzeari dagokionez, bestelako neurri espezifikoekin batera, desgaitasuna duten pertsonen kezka eta esperientziak kontuan hartu behar dira politika publikoen prestaketan, aplikazioan, jarraipenean eta ebaluazioan, desgaitasuna duten pertsonen politika ho-

riei onura atera ahal izateko baldintza berdinetan.

Oztopoak are larriagoak dira emakumeen eta bakarrik migratzen duten haurren kasuan. Kasu hauetan, jatorri etnikoaren, erlijioaren edo egoera migratorioaren ondoriozko bereizkeriari batzen zaio generoaren ondoriozko bereizkeria, bereziki bakarrik bidaiatzen duten haurren kasuan, oso zaurgarriak baitira. Arazo honi heltzeko, ezinbestekoa da migratzaileen egoera, beharrak eta eskubideak kontuan hartzea. Horretarako, funtsezkoa da estereotipoen aldaketan eta diskurtso arrazista eta xenofoboaren aurkako borrokan ahalegintzen diren harrera eta integrazioa. Halaber, migrazio behartuen arazoak ere jorratu behar dira: bakea eta giza baliabideak sustatzea jatorrizko eta bitarteko herrialdeetan, pobrezia desagerarazten laguntzea garapenerako laguntzak areagotuta, pertsonen salerosketaren aurka borrokatzea.

Gertatzen diren bereizkeria eta desberdinkeriak modu aktiboan jorrotuta bakarrik lortuko ditugu gizarte inklusiboagoak, bidezkoagoak eta jasangarriagoak, haurrak, desgaitasuna duten pertsonak, adinekoak, migratzaileak eta pertsona baztertuak tokiko agenden erdigunean ipintzen dituztenak.[pRlgPG0eJmXSEnHuS2J92WVlzB-NdxDV&index=21](https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/wp-content/uploads/sites/3/2016/10/10_Spanish_Why_it_Matters.pdf)

Zein da 10. GJHaren garrantzia tokiko gobernuentzat?²¹

- Eremu pobreenetan, ezinbestekoa izango da tokiko gobernuei bitartekoak ematea eta pobrezia eta bazterkeria identifikatzeko eta jorrazeko gaitasunak sortzea.
- Tokiko gobernuek eginkizun garrantzitsua dute tokiko mailan inklusio politikoa hobetzeko orduan.
- Gutxiengoen eta kontsulta publikoko prozesuetan, tradizionalki, ordezkaritza gutxiegi izan duten taldeen partaidetza sustatu dezakete, partaidetza politiko aktiboa bultzatzeaz gain.
- Tokiko gobernuek berdintasunerako eta bereizkeriarik ezarako jardunbide aktiboak ezar ditzakete euren erakunde eta jarduketetan, eta irizpide horiek aplikatu ditzakete euren politika publikoetan eta emandako zerbitzuetan.
- Zerbitzu publikoak bereizkeriarik gabe emateko arduradunak dira ere. Tokiko gobernuek tokiko zerga progresiboak aplikatu ditzakete zerga politikan eta tokiko aurrekontuaren zati bat erabili dezakete etxebizitza pobreenen enplegu aukerak sustatzeko eta diru sarrerak areagotzeko.
- Hiri plangintza eta garapenaren arloan dituzten eskumenei esker posizio egokian daude auzo edo eremu pobreetako azpiegiturak eta zerbitzuak sustatzeko.

EKONOMIA ZIRKULARRA ETA 2030 AGENDARI EGITEN DION EKARPENA

Ekonomia Zirkularrak ingurumenaren eta baliabide naturalen gaineko presioa murrizten du, airearen, zoruaren eta uraren kalitatea hobetuta. Honela, klima aldaketari aurre egiten zaio, bestelako gizarte eta ingurumen onurerekin batera. Beraz, honekin batera, osasuna eta bizi kalitatea hobetzen dira, ingurumen inpaktuak murrizteari esker, enplegu iturri berriak sortzeaz gain.

Udalek, enpresa eta herritarrengandik hurbil daudelako eta ekonomia zirkularrean zuzeneko eragina duten jarduera ugarien erakunde kudeatzaileak diren heinean, eginkizun garrantzitsuak dute ekonomia zirkularraren sustapenean.

■ Nola sustatu dezakete toki administrazioek ekonomia zirkularra?

- Euren eskumenak baliatuta, udal kudeaketan txertatuta: hondakinen kudeaketa, uraren eta ekipamenduen kudeaketa, erosketa publikoa, azpiegiturak, etab.

- Gizarte ehunaren barruko kontsumo eredu zirkularrak sustatuta: kontzeptu hau hezkuntza eta sentsibilizazio kanpainen sartuta, lankidetzeta plataformak sustatuta, etab.

- Tokiko ehun produktiboaren barruan bultzatuta: kontratazio publikoan enpresa jasagarrienen eta zirkularren alde eginda, lankidetzeta plataformak sustatuta, ekintzailetzeta berde eta zirkularra sustatuta, komunikazioarekin eta sentsibilizazioarekin lotutako jarduketan bidez, etab.

■ Tokiko gobernuek ekonomia zirkularra sustatzeko ardatzak

Jarraian ageri den koadroan ikus daitekeenez, tokiko gobernuek funtsezko eginkizuna dute hiri eta lurraldeetan ekonomia zirkularrago bateranzko trantsizioa bultzatzeko. Trantsizio horrek hainbat politika eta lurralde saili eragiten die, hala nola mugikortasuna, nekazaritza, zoruaren erabilera, hondakinen kudeaketa, enpresa garapena edo kontsumitzaileen heziketa.



Iturria: "Toki esparrutik ekonomia zirkularra sustatzeko euskal gidaliburua".

Informazio gehiago:

■ Estrategia Española de Economía Circular. España Circular 2030: https://www.miteco.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/temas/economia-circular/espanacircular2030_def1_tcm30-509532.PDF

BIDEZKO MERKATARITZA 2030 AGENDAN AURRERA EGITEKO TRESNA GISA

Bidezko merkataritza munduko pobreziaren eta desberdinkerriaren aurka borrokatzen duen merkataritza aukera da, giza eskubideen errespetua eta ingurumenaren babesa ekonomia jardunaren erdigunean ipinita.

Bidezko merkataritzaren printzipioak 10 dira eta nazioarteko mailan izenpetu dira Bidezko Merkataritzaren Gutunean. Printzipio horien artean aipagarriak dira bidezko prezio bat ordaintzea, soldata baldintza onak, haurren lanik eza, genero berdintasuna eta ingurumenaren babesa produktuen ekoizpenean, besteak beste. Printzipio horiek oinarri hartuta, bidezko merkataritzak 2030 Agendako GJH guztietan laguntzen du.

Nola lagundu dezaket nire udalerritik?

Udalerrietan bidezko merkataritza sustatzeko ekimen ugari daude, esaterako:

- Kontsumo arduratsua eta bidezko merkataritza GJHak lortzeko tresna eraginkor gisa aintzatesteko adierazpen instituzional bat proposatzea eta konpromiso hori lokalizazio planean zehazteko jarduketak barne hartzea.
- Erosketa publiko etikoa sartzeko udalak deitutako kontratuetan, bidezko merkataritzako gizarte eta ingurumen klausulen bidez.
- Urtean zehar herritarrei zuzendutako informazio saioak antolatzea bidezko merkataritzari buruz eta 2030 Agendari egiten dion ekarpenari buruz, edo bidezko merkataritzaren nazioarteko eguna ospatzea udalerrian jarduera kultural eta ludikoak antolatuta.
- Udalerriko ostalaritzari gonbidapena luzatzea bidezko merkataritzako produktuak eskaini ditzaten.

Informazio gehiago:

- Bidezko merkataritzaren 10 nazioarteko printzipioak
<http://comerciojusto.org/que-es-el-comercio-justo-2/los-10-principios-internacionales/>
- Bidezko merkataritza kontsumo jasagarria eta erosketa publiko etikoa sustatzeko tresna gisa:
https://comerciojusto.org/wp-content/uploads/2020/12/buenaspracticass_Madrid-1.pdf
- Bidezko merkataritzaren nazioarteko eguna ospatzeko materiala:
<https://comerciojusto.org/publicacion/carteles-para-fotos-yo-celebro-el-dia-mundial-del-comercio-justo/>



2030 AGENDA

LOKALIZATZEKO GIDA

Laguntzaileak:

